

# ARABAKO KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREA: AZTERKETA ETA HOBEKUNTZAK

---

HIZNET hizkuntza plangintza graduondokoa 2012-2013

Sakontze egitasmoa

Ikaslea: Leire Sueskun Gandarias  
Tutorea: Iñaki Martinez de Luna

## AURKIBIDEA

---

1.SARRERA.....	4
2.TXOSTEN EXEKUTIBOA / INFORME EJECUTIVO.....	6
3.HELBURUA.....	20
4.INFORMAZIOAREN EZAUGARRIAK .....	21
5.METODOLOGIA.....	21
6.LAGINA .....	22
7.ARABA .....	22
8.ARABAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK .....	26
9.EUSKAL HERRIKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREAK.....	30
10.ARABAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2010-2013 .....	41
11.KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN LANA 2009-2012 .....	43
11.1.EUSKARA PLANAK: EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA ETA ERABILERA PLANA. 44	
11.2.EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAK .....	66
11.3.DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK .....	67
11.4.HIZKUNTZA-AHOLKULARITZA ETA ITZULPENGINTZA ZERBITZUA .....	68
11.5.KOORDINAZIOA .....	68
11.6.KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN ERAGIN ESPARRU OROKORRAK .....	69
11.7.ATALEKO BALORAZIOA.....	71
12.KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN AUKERA, MEHATXU, INDARGUNE ETA AHULGUNEAK.....	72
13.KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN BALORAZIO KUALITATIBOA.....	76
14.ARABAKO KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREA HOBETZEKO HAINBAT PROPOSAMEN .....	103
15.EGILEAREN GOGOETA .....	107
16.BIBLIOGRAFIA.....	109

## **ERANSKINAK**

**I Eranskina.** Arabako Plan Estrategikoa 2010-2013

**II Eranskina.** Arabako Plan Estrategikoa 2010-2013 onartzen duen 813/2009 Erabakia

**III Eranskina.** Memoria txostena 2012\_Agurain

**IV Eranskina.** Memoria txostena 2012\_Aiara

**V Eranskina.** Memoria txostena 2012\_Añana

**VI Eranskina.** Memoria txostena 2012\_Arabako Errioxa

**VII Eranskina.** Memoria txostena 2012\_Mendialdea

**VIII Eranskina.** Memoria txostena 2012\_Trebiñu

**IX Eranskina.** Memoria txostena 2012\_Zuia

## 1.SARRERA

Arabako Foru Aldundiak 2008ko irailean berreskuratu<sup>1</sup> zuen Euskararen Foru Zerbitzua euskara zirimiria bezala heda zedin Araban. Egungo Euskararen Foru Zerbitzua berriz sortu zen Lorena Lopez de Lacalle Aristi Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatu zenean, Xabier Agirre jeltzalearen gobernuan. Euskararen Foru Zerbitzuaren sorrerarekin osatu zen Arabako Foru Aldundiaren azpiegitura, euskararen normalizazioari dagokionez. Izan ere, Arabako gizartearengan eragiteko zein Arabako Aldundiko langileengan eragiteko zerbitzuak abian zeuden orduantxe: batetik, Arabako Lurralde Historikoan eragina izango zuen euskararen Plan Estrategikoa gidatuko zuen Euskararen Foru Zerbitzua; eta bestetik, Arabako Foru Aldundirako euskararen Erabilera Plana gidatuko zuen Euskara Zerbitzua<sup>2</sup>.

2010-2013ko Euskararen Foru Zerbitzuaren Plan Estrategikoak<sup>3</sup> bi helburu nagusi ditu: batetik, Araban euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea; eta bestetik, Arabako gizarte eragile eta herri erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlanerako ekimenak jorratzea, euskararen normalizazioaren aldeko urratsak emateko maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean. Helburu horiei jarraiki, bi izan ziren Euskararen Foru Zerbitzuaren hastapenetan zehaztutako lehentasunak<sup>4</sup>. Batetik, Araban euskara sustatzeko teknikarien sare garrantzitsu bat eratzea. Horien bitartez lortuko zen tokian tokiko errealitateari egokitutako planak egitea; izan ere, teknikari horiek izango zuten eskualde bakoitzean euskararen egoerari buruzko informazioa bertatik bertara jasotzeko aukera. Bestetik, Euskararen Aholku Batzorde bat sortzea Arabarako lan ildo

<sup>1</sup> Mikel Mintegi Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak Euskararen Foru Zerbitzua sortu zuen, baina PPrentz agintaldian (1999-2007) zerbitzu hori zokoratu zen.

<sup>2</sup> Zerbitzu horrek ez zuen izan Euskararen Foru Zerbitzuak izan zuen etenaldia PPrentz agintaldian. Egun, Funtzio Publikoan kokatzen den zerbitzua da.

<sup>3</sup> Diputatuen Kontseiluak onartutako Plana (azaroaren 24ko 813/2009 Erabakia). Plan hori osatzeko, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak EMUN S. Kooperatibaren aholkularitza izan du (hasierako diagnostikoa osatu, eragile eta adituen ekarpenak jaso, eta 2010-2013 Plan Estrategikoa egiteko). 2010eko otsailaren 8an Lorena Lopez de Lacallek agerraldia egin zuen Biltzar Nagusietan onartutako euskararen Lehen Plan Estrategikoa azaltzeko.

<sup>4</sup> EUSKONEWS (2008). Jokin Larrañaga Arabako Diputazioko Euskararen Foru Zerbitzuko arduradunari elkarrizketa. 460. zenbakia. Euskonews.com. [http://www.euskonews.com/0460z/bk/elkar\\_eu.html](http://www.euskonews.com/0460z/bk/elkar_eu.html) (apirilean bistaratua).

nagusiak zehazteko. Batzorde horren osieran hainbat eragin esparrutako pertsonak parte hartzea aurreikusten zen, besteak, beste, helduen euskalduntze, irakaskuntza, lan, aisia eta kultura esparrukoak.

Aurreko paragrafoan aipatutako teknikarien sarea sortzeko, alegia, kuadrilla bakoitzak bere teknikari propioa kontratatu zezan, Euskararen Foru Zerbitzuak diru-laguntza deialdi bat argitaratzea erabaki zuen<sup>5</sup>. Gauzak honela, 2009ko irailean, azken euskara teknikariaren kontratazioarekin, osatuta gelditu zen Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea: Agurain, Aiara, Añana, Arabako Errioxa, Mendialdea eta Zuia. Gerora, 2010ean, sare hori zabaldu zen Trebiñuko Konderriko euskara teknikariaren kontratazioarekin. Esan beharra dago, proiektu honetan ez dagoela sartuta Gasteizko Kuadrilla; nolana ere, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariekin harremana egon badago, txosten honetan zehar azalduko den bezala.

2012. urtearen amaieran eta 2013aren hasieran sarearen jarraikotasuna ezbaian egon zen bi arrazoiengatik: batetik, kuadrillek euskara teknikariak kontratatu zituzten diru-laguntza deialdia bertan behera gelditu zelako; eta bestetik, funtzionatzeko sistema bera berrantolatu nahi zelako. Lehenengo arrazoiari dagokionez, Arabako Foru Aldundia gobernatzen duen PP alderdiak 2013rako aurrekontu proiektuan ez zuen jaso kuadrilletan euskara teknikariak kontratatzeke diru-laguntza partida. Hori dela eta beste hainbat desadostasun direla, Arabako Biltzar Nagusietako 2012ko aurrekontuak luzatu behar izan ziren 2013rako. Gauzak horrela, partida hori berreskuratzeko alderdien arteko adostasuna behar izan da. Bigarren arrazoiari dagokionez, Iciar Lamarain Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak Arabako Biltzar Nagusietako agerraldi batean (2012ko abenduaren 3koa) adierazi zuen badaudela beste sistema batzuk interesgarriak izan daitezkeenak Araban aplikatzeko, adibidez, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarena. Horregatik, beste sistema eta antolakuntza batzuen artean, txosten honetan Euskararen Erakunde Publikoari buruzko informazioa ere jaso da.

---

<sup>5</sup> Kuadrilletan euskara teknikariak kontratatzeke hautatutako bidea diru-laguntzena izan zen. Nolanahi ere, ez zen aztertutako bide bakarra egitasmo hau abian jartzeko; izan ere, bestelako bide eta sistemak ere aztertu zituen Aldundiko lantaldeak.

Kuadrillek euskara teknikariak kontratatzeke diru-laguntzak berreskuratu bitartean eta sistemaren behin betikotasuna definitu bitartean, egon izan dira bi teknikari hainbat hilabetetan lanera bueltatu gabe egon direnak: Mendialdea eta Añana (bi eta bost hilabetez, hurrenez hurren). Gainontzeko teknikariek jarraitu dute, baina behin-behinekotasun egoeran.

Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea aztertu eta hobekuntzak planteatzeko helburuei jarraiki, hainbat gai dira sakontze egitasmo honetan jasotakoak: kuadrilletako euskara teknikariek egindako lana 2009tik hona, kuadrilletako euskara teknikarien balorazio kualitatiboa (horretarako laginaren atalean zehaztutako eragileen parte-hartzea izan da), kuadrilletako euskara teknikarien AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune eta Ahulguneak) eta Euskal Herrian dauden euskara teknikarien sareak. Datu hutsez osatutako beste hainbat atalekin batera, lehen esan bezala, lortu nahi dena da Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarearen azterketa anitz eta oso bat egitea, aurrera begira egitura egonkorrago bat osatzeko. Aipatutako atalez gain, elebidunez egindako txosten tekniko bat ere jaso da; izan ere, lan honek ez du helburu akademiko huts bat lortu nahi, baizik eta, aurrera begira, Arabako euskara teknikariek osatzen duten sarea hobetzeko abiapuntu sendo eta anitz bat eskaintzea.

## **2.TXOSTEN EXEKUTIBOA / INFORME EJECUTIVO**

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen 2009ko azaroaren 24an (813/2009 Erabakia) Arabako Lehen Plan Estrategikoa izango zena lurraldeko euskararen normalizaziorako. Aipaturiko planaren definitze prozesuaren lidergoa Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak hartu zuen. Prozesu horretan parte hartu zuten, planak jasotako eragin esparru desberdinak ordezkatzuz, Arabako eskualde guztietatik etorritako pertsonak. Prozesu parte-hartzaile hori EMUN S. Kooperatiba aholkularitzak gidatu zuen.

Plan Estrategikoak 75 neurri edo ekintza jasotzen ditu planaren indarraldi osoan garatzeko (2010-2013). Horien arteko bat da euskara teknikarien sare bat antolatzea Arabako kuadrillak oinarri hartuta. Aipatutako sarea osatuta gelditu zen 2009ko

irailean, orduan kontratatu baitzen azken euskara teknikaria. Era berean, 2010ean sare hori zabaldu zen, Trebiñuko euskara teknikariaren kontratazioarekin.

Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sareak duen finantziario iturririk nagusia Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza bat da. Nolanahi ere, proiektu honetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta kuadrillek ere parte hartzen dute. Finantziario modu hori horrela izanik, urtero planteatzen da euskara teknikari hauen jarraikortasuna, kontratazioetan laguntzeko diru-laguntzen existentziaren arabera erabakia hartuz.

Hori horrela izanik, eta zentzu horretan, esan daiteke euskara teknikarien sarea ez dagoela, gaur egun, finkatuta. Horren adibide da Arabako Foru Aldundiko 2013rako aurrekontu proiektuan Kuadrilletako euskara teknikarien kontratazioarako partida egon ez izanak, teknikarien jarraikortasunean izan duen eragin negatiboa: Mendialdea eta Añanako euskara zerbitzuek eten bat jasan zuten (bi eta bost hilabeteetako, hurrenez hurren) finantziario bide hori ziurtatuta gelditu arte. 2012ko amaieran eta 2013ko hasieran Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea zalantzatan egon zen, nagusiki, kontratazio sistemagatik.

Aurrekari horiek oinarri hartuta, ikerkuntza honen helburua da Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea aztertzea eta sarearen funtzionamendu hobea lortzeko beharrezkoak diren hobekuntzak planteatzea. Ikerkuntza honen helburua da informazio baliotsua ematea, Arabako teknikarien sare hau hobetzeko ildoak definitzen laguntzeko. Horretarako, sarearen inguruan idatzita dagoen hainbat dokumentazio aztertzeaz gain, 32 laguneko lagin bat elkarrizketatu da; modu horretan jaso da sareari buruzko ikuspuntu kualitatiboa. Elkarrizketa horietan PP, EAJ-PNV, Bildu eta PSE-EEko ordezkarien edota talde politiko horien hizkuntza politikak ondo ezagutzen dituztenen iritzia jaso dira, beste batzuen artean, besteak beste, hainbat gizarte eragile, kuadrilletako gerente eta euskara teknikari.

Hori guztia baliagarria izan da aztertzeko zein aukera, mehatxu, indargune eta ahulezi dituen kuadrilletako euskara teknikarien sareak; ondorio nagusiak; eta azkenik, zein balizko bide dagoen proiektu hau hobetzeko. Ondoren zehaztuko dira aipatu berri diren ataletako ondorioak aipagarrienak.

## ONDORIO NAGUSIENAK: AHULEZIAK, MEHATXUAK, INDARGUNEAK ETA AUKERAK

### **Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarearen ahulezia nagusienak**

- Funtzioen dimentsionamendu handia. Larriagotzen den aspektua da; izan ere, ez da zeharlerrotasunik lortu. Horrek zuzeneko eragina du teknikarien lan kargan.
- Zaila da kuadrilletako euskara teknikarientzako funtzio orokor batzuk definitzea, neurri handi batean, hiru faktorerengatik: eskualdeetako oso bestelako egoera soziolinguistikoa, batzuen eta besteetan dauden baliabideak, eta bakoitzeko udal kopurua, haien arteko sakabanatzea eta biztanleriaren dentsitatea. Nolanahi ere, euskara teknikarien eragin esparruak oso antzekoak dira.
- Agerian geratzen da giza baliabide gehiagoren beharra gizarte gero eta elebidunago baten eskaerei erantzuteko. Behar hori ez da bakarrik eskualdeetan ikusten, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuan ere bai.
- Orain arte aipatutako guztiagatik agerikoa da teknikarien ezintasuna gutxieneko espezializazio bat lortzeko.
- Gainera, euskararengandik horren gertu ez daudenengana iristeko estrategiak falta dira.

### **Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarearen mehatxu nagusienak**

- Lanpostuen ezegonkortasuna eta diru-laguntzen deialdiekiko dependentzia handia. Ezegonkortasun horrek eragin negatiboa du euskararen normalizaziorako helburuak zehazteko orduan.
- Kuadrilletako euskara teknikariak kontratatzeke egungo sistemaren inguruko zalantzek zuzeneko eragina du finantzazio iturri nagusienean: Arabako Foru Aldundia.



- Teknikarien sare honek politikarekiko menpekotasun handia du. Azken hilabeteotako gertaerak trukerako txanpon oker bat bezala hauteman da hainbat esparrutatik.
- Entitate desberdinen arteko teknikarien mugikortasuna bi ahoko ezpata da: batetik, ingurunearen eta teknikariaren beraren ezagupen hoberako balio du; baina bestetik, eragin negatiboa du denboraren eta lanaren kudeaketan, Arabako sakabanatze geografikoa handia delako. Mugikortasun horrek eragina du, batez ere, egun berean bi entitate desberdinetan lan egin behar duten teknikariengan (lan egin beharreko entitate kopuruagatik).
- Kuadrillak entitate txikiak dira, langile gutxikoak. Hortaz, teknikariek haiei ez dagozkien lanak ere egin behar izaten dituzte (ez da euskara teknikariei bakarrik gertatzen zaien kontua).
- Entitate hauetan ez da erabateko zeharlerrotasunik lortu.

#### **Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarearen indargune nagusienak**

- Egungo sistema egokia da lurraldean hizkuntza politika bateratu bat abian jartzeko: erreferentzia puntuak kuadrillak eta zenbait udal dira. Tokian tokiko berezitasunetara egokitzen den politika orokorra.
- Era berean, egungo sistema egokia da bi zentzutan: kuadrillaz gaindiko entitateetara diagnostiko errealago bat transmititzeko baliagarria da eta kuadrillaz gaindiko entitate horietatik etorritako politika eta irizpide orokorren egokitzapen hobea lortzeko baliagarria da.
- Teknikari hauek bertako langileak dira eta bertatik bertara lan egiten dute. Horrek errazten du ingurunearen eta teknikariaren ezagutza hobea lortzen. Nolanahi ere, eskualdeko udal desberdinetatik mugitzen diren teknikarien kasuan, eragin negatiboa du Arabako sakabanatze geografikoa handia delako.
- Euskara teknikariek erreferentzialtasun garrantzitsu bat lortu duten beren eskualdeetan eta bakoitzean lantalde bat osatu dute.

- Euskara teknikari hauen lanari esker Kuadrilla guztiek badute gaur egun beren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartuta, baita entitateko Erabilera Plana ere (lurraldeko udal gehienek dute beren Erabilera Plan propioa). Plan horiek sortu dira eskualdeetako gizarte eragile eta eragile instituzionalekin elkarlanean. Euskararen arduraren banaketa lortzen ari da. Euskararen normalizazioa modu koordinatu eta artikulatu batean garatzen ari da.

### **Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarearen aukera nagusienak**

- Sare honen osaerarekin hainbat eremutatik planteatutako behar eta eskari bati erantzuten zaio.
- Sistema egokia da oso ondo egokitzen delako Arabako errealitatera: herri asko, oso sakabanatuak eta dentsitate gutxikoak (kontuan hartu behar da Gasteiz eta Laudio artean kokatzen dela Arabako biztanleriaren %81).
- Sare honen osaerarekin eskualdeen zonifikazioari erremedio ematen zaio: iparraldeko eskualdeak (Aiara, Zuia eta Agurain) eta hegoaldeko eskualdeak (Añana, Trebiñu, Mendialdea eta Arabako Errioxa). Era berean, Araba Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurraldeetara gerturatzeko bide bat da.
- Euskararen Foru Zerbitzua lurraldeko gainontzeko euskara zerbitzuentzat erreferente garrantzitsuan bihurtzen ari da. Zerbitzu horrek zuzendutako koordinazio guneak bost helburu orokor lortzeko lan egiten du: euskara teknikarien artean esperientziak trukatzea, Arabako Lurralde Historiko osoan aplikagarriak diren irizpideak bateratzea, Arabako euskara zerbitzuen arteko koordinazio eta komunikazioa, eta modu bateratu batean prestakuntza beharrei erantzutea.
- Teknikariek egindako lanaren gaineko kontrol eta zabalkunderako bide egokiak.
- Kuadrilletako euskara teknikarien sarea instituzio desberdinen arteko lankidetzatik sortutako proiektua da: Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta kuadrillak.

ARABAKO KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREA HOBETZEKO

PROPOSAMENAK

- Kuadrillak oinarri hartuta, euskara teknikarien sarearekin jarraitu. Denborak erakutsi du sistema egokia dela: Arabako errealitatea zein den kontuan hartzen du, lurraldearen egoera soziolinguistikoaren diagnosi egokiago bat egitea baimentzen du, baita eskualde bakoitzera irizpide eta politika orokorrak egokitzea ere, eta lehen aipatutako bi zonifikazioen (iparraldeko eta hegoaldeko kuadrillak) gerturatzea suposatzen du.
- Adostasuna lortu indar politiko guztien artean eta elkarlanerako bideak definitu normalizazioan eragiten duten gizarte eragileekin, sarearen iraunkortasunerako eta hizkuntza politika oso bat lortzeko Araban.
- Lege babesa eman euskara teknikarien sareari.
- Kuadrilletako euskara teknikarien kontratazioetan laguntzeko sistemarik iraunkorrena bilatu, beti ere, adostasunean oinarrituta.
- Beste lurraldeetako kontratazio sistema eta funtzionamenduari dagokionez, aztertu kasuan kasu zer den Arabarako aplikagarria eta nola egokitu daitekeen.
- Euskara teknikarien deslokalizazioarekin jarraitu: eskualdeetako entitateetan lan egiten jarraitu.
- Arabako euskara zerbitzuen koordinazioa zuzendu eta gidatzen duen organoa Arabako Euskararen Foru Zerbitzua izaten jarraitzea, orain arte bezala, baina bestelako dimentsionamendu eta funtzioen banaketa posible bat aztertuta.
- Arabako euskara teknikarien lan-dinamika zertxobait aldatzea: beharrezkoa den maiztasunarekin bildu daitezela haien artean interes-guneka sailkatutako egitasmoak garatzeko.
- Giza baliabideen kopurua indartzeko aukera aztertu. Erabaki hori definitutako balizko ratio batzuen arabera hartzea proposatzen da (adibidez, biztanle

kopuruaren araberako ratioa, herri kopurua edo bestelako teknikari kopuruaren arabera -animatzaile soziokulturalak, kirol teknikariak...-).

- Araba osorako funtzio orokor baino malguak definitu. Orokortasuna tokian tokiko errealitate soziolinguistikora egokitzeko aukera eman behar da.
- Kuadrillez gaindiko entitateekin etengabeko lankidetzak (Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza).
- Aztertu eta definitu zein den euskara teknikarien eragin esparrua: kuadrillak edota udalak.
- Aztertu eta definitu lankidetzak bide posibleak euskararen lurraldean existitzen diren beste sareekin.
- Hobekuntza bide horietan guztietan proposatzen da Arabako euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten eragile guztien (edo gehiengoaren) iritzia kontuan hartzea.
- Azken proposamena, baina kontuan hartzeko lehena: orain arteko kontratazio sistema mantendu berria definitu bitartean (sistema egokiago bat dagoela erabakiz gero), Arabako euskararen normalizazioan etenik egon ez dadin. Egindako proposamen guztien artean, lehentasunezkoa izango da sarearen iraunkortasuna bermatzeko bideak lantzea.

Arabako Kuadrilletako euskara teknikarien sareak, udal euskara teknikariekin batera (dauden lekuetan), lantalde sendo bat osatzen dute gaur egun. Lantaldearen lan dinamika denborarekin hobetuz doa, teknikarien arteko elkar ezagutza geroz eta hobea delako, baita bakoitzak egiten duen lanaren gaineko ezagutza ere. Kuadrilletako euskara teknikarien sareak funtzionatu du; izan ere, 2009an abian jarri zenetik gaur egun arte, Arabako euskararen normalizazioan aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatiboak eman dira. Aurrerakuntza aipagarrienak kualitatiboak izan dira; zaila delako horren gaztea den proiektuak (2013an sareak laugarren urtea beteko du) izan dituen ondorioak hizkuntza normalkuntza prozesu batean, hori egitea oso zaila da.

Egia da azken hilabeteotan desadostasunak egon direla kuadrilletako euskara teknikarien sarearen inguruan; baina helburua argi izanez gero, bidea elkarrekin eraikiz joan gaitzke eta joan behar gara. Ikerkuntza hau izan dadila abiapuntua jarraitu beharreko bidea definitzeko: abiapuntu beretik, zentzu berean.

## INFORME EJECUTIVO

La Diputación Foral de Álava aprobó en Consejo de Diputados de fecha de 24 de noviembre de 2009 (Acuerdo 813/2009) el que sería el primer Plan Estratégico de Álava para la normalización del uso del euskera en el territorio. El Servicio Foral del Euskera de la Diputación fue quien lideró el proceso de elaboración del citado plan. Proceso en el que participaron agentes promotores del euskera representantes de las distintas áreas de actuación que recoge el plan, personas procedentes de las diversas comarcas que conforman Álava. Ese proceso participativo fue guiado por la consultora EMUN S. Cooperativa.

El Plan Estratégico recoge 75 medidas o actividades a desarrollar en su periodo de vigencia (2010-2013). Una de ellas es la creación de una red de técnicos de euskera tomando como base las Cuadrillas de Álava. Esta red quedó constituida en septiembre del 2009, con la incorporación del último técnico de euskera. Asimismo, en 2010 se amplió la red con la contratación del técnico de euskera de Treviño.

Esta red de técnicos de euskera de las Cuadrillas de Álava se financia fundamentalmente a través de una vía de subvención de la Diputación Foral de Álava; aunque en ella también participan la Viceconsejería de Política Lingüística, así como las propias Cuadrillas. Ese tipo de financiación hace que año tras año se replantee la continuidad de estos técnicos de euskera, en base a la existencia o no de subvenciones para su contratación.

Es por ello, y en ese sentido, que se puede decir que la red de técnicos de euskera a día de hoy no está consolidada. Prueba de ello es que a consecuencia de no recoger la partida para ayudar en la contratación de los técnicos de euskera de las Cuadrillas en el proyecto de presupuestos para el año 2013 de Diputación Foral de Álava, la continuidad de los mismos se ha visto negativamente afectada: los servicios de

euskera de Montaña y Añana quedaron suspendidos hasta asegurar esa vía de financiación (dos y cinco meses, respectivamente). A finales del 2012 y principios del 2013 la red de técnicos de euskera de las Cuadrillas de Álava pasó a ser cuestionada; principalmente, el sistema de contratación.

Teniendo como base esos antecedentes, el objetivo de esta investigación es analizar la red de técnicos de las Cuadrillas de Álava y proponer cuantas mejoras sean necesarias para un mejor funcionamiento de la misma. Este estudio tiene como objetivo proporcionar información valiosa que ayudará a definir vías de mejora para con el proyecto de esta red de técnicos de Álava. Para ello, además de estudiar diversa documentación escrita en torno a ella, se ha entrevistado a una muestra de 32 personas y así recoger su punto de vista cualitativo en torno a esta red. En estas entrevistas se han recogido opiniones de representantes o personas que conocen bien las políticas lingüísticas de Bildu, EAJ-PNV, PP y PSE-EE, así como de diversos agentes sociales, gerentes de Cuadrillas y técnicos de euskera, entre otros.

Todo ello ha servido para analizar qué debilidades, amenazas, fortalezas y oportunidades tiene esta red de técnicos de euskera de las Cuadrillas; qué conclusiones se obtiene de ello; y finalmente, qué posibles vías de actuación se pueden plantear para la mejora de este proyecto. Se mencionan brevemente a continuación los aspectos más significativos de cada uno de los apartados ahora mencionados.

## PRINCIPALES CONCLUSIONES: DEBILIDADES, AMENAZAS, FORTALEZAS Y OPORTUNIDADES

### **Principales debilidades de la red de técnicos de euskera de las Cuadrillas de Álava**

- Gran dimensionamiento en lo que a las funciones se refiere, agravado por la falta de transversalidad y que incide directamente en la carga de trabajo de los/as técnicos/as.
- Dificultad de definir unas funciones generales para todo el personal técnico de euskera, en gran medida, por tres factores: situación sociolingüística muy diferente entre las comarcas, disponibilidad de recursos de unas y otras, y

número de ayuntamientos dependientes, su dispersión y densidad de la población muy dispares. No obstante, los/as técnicos/as de euskera actúan en unos ámbitos de actuación muy similares.

- Queda en evidencia la necesidad de más recursos humanos para hacer frente a las demandas de una sociedad cada vez más bilingüe. Necesidad que no sólo se detecta en las comarcas, puesto que también se detecta en el propio Servicio Foral del Euskera de Diputación Foral de Álava.
- Por todo lo indicado hasta ahora, la imposibilidad de lograr una mínima especialización por parte del personal técnico, es evidente.
- Además, faltan estrategias para acercar al euskera a personas que no lo tienen tan cercano.

#### **Principales amenazas de la red de técnicos de euskera de las Cuadrillas de Álava**

- Inestabilidad de los puestos de trabajo y gran dependencia para con las subvenciones de estos puestos. Inestabilidad que influye negativamente a la hora de fijar los objetivos en materia de normalización del euskera.
- Cuestionamiento del actual sistema de contratación del personal técnico de euskera que incide en el mantenimiento de su principal vía de financiación: Diputación Foral de Álava.
- Gran politización de esta red de técnicos. Los hechos de los últimos meses se perciben, desde diversos ámbitos, como un cambio de moneda muy desacertado.
- La movilidad del personal técnico en unas y otras entidades es un arma de doble filo: por un lado, ayuda a lograr un mejor conocimiento del entorno y del/la técnico; pero por otro lado influye negativamente en la mejor gestión del tiempo y trabajo del personal puesto que la dispersión geográfica de Álava es grande. Esto influye sobre todo en el caso de los técnicos que por el número de entidades en las que tienen que trabajar, han de prestar servicios en dos entidades distintas en un mismo día.

- Las Cuadrillas son entidades pequeñas y con pocos recursos, lo cual influye en la necesidad de desarrollar actividades no directamente relacionadas con el puesto en cuestión (no es una cuestión que atañe únicamente a los/as técnicos de euskera).
- No se ha logrado una total transversalidad del euskera en estas entidades.

### **Principales fortalezas de la red de técnicos de euskera de las Cuadrillas de Álava**

- El actual sistema es adecuado para llevar a cabo una política lingüística unificada en el territorio: los puntos de referencia son las Cuadrillas y varios ayuntamientos. Política general que se adecúa a las casuísticas específicas de cada lugar.
- Asimismo, el actual sistema es adecuado en dos sentidos: permite transmitir un diagnóstico más acertado a las entidades superiores a las Cuadrillas y permite adecuar con mayor acierto las políticas y criterios generales procedentes de esas entidades superiores.
- Estos/as técnicos/as son empleados de las propias entidades y trabajan en las propias comarcas. Esto facilita ayuda a lograr un mejor conocimiento del entorno y del/la técnico; aunque en los casos en que el/la técnico se mueve por los distintos ayuntamientos de la comarca, influye negativamente en la mejor gestión del tiempo y trabajo del personal puesto que la dispersión geográfica de Álava es grande.
- Los/as técnicos/as de euskera se han convertido en una referencia muy importante en las comarcas y han constituido grupos de trabajo en cada una de ellas.
- Gracias a la labor de los técnicos de euskera todas las Cuadrillas tienen aprobado y en marcha su propio Plan de Promoción de Uso del Euskera así como su Plan de Uso de la entidad (casi la totalidad de ayuntamientos del territorio también tienen su propio Plan de Uso). Son planes que se han creado en colaboración con agentes sociales e institucionales de las comarcas. Se está



logrando repartir la responsabilidad del euskera. Se está logrando desarrollar la normalización del euskera de un modo coordinado y articulado.

### **Principales oportunidades de la red de técnicos de euskera de las Cuadrillas de Álava**

- Con la creación de esta red se responde a una necesidad y demanda procedente de diversos ámbitos.
- El sistema es adecuado puesto que se adapta muy bien a la realidad de Álava: muchos pueblos, muy dispersos y con poca densidad (hay que tener en cuenta que en Vitoria y Llodio se concentra el 81% de la población alavesa).
- Con la creación de la red se pone remedio a una zonificación de comarcas existente: situación de las comarcas del norte (Ayala, Zuia y Salvatierra) y comarcas del sur (Añana, Treviño, Montaña y Rioja Alavesa). Asimismo, sirve de medida para acercar Álava al resto de territorios de la Comunidad Autónoma Vasca.
- El Servicio Foral del Euskera se está convirtiendo en un importante referente para el resto de servicios de euskera del territorio. El punto de coordinación dirigido por este Servicio trabaja por la consecución de cinco objetivos generales: compartir experiencias entre los/as técnicos de euskera, unificar criterios aplicables en todo el Territorio Histórico de Álava, desarrollar proyectos en común, coordinación y comunicación entre los servicios de euskera de Álava, y responder de una manera unificada a las necesidades formativas.
- Vías de control y comunicación adecuadas del trabajo de los/as técnicos/as.
- La red de técnicos de euskera de las Cuadrillas es un proyecto fruto de la colaboración de distintas instituciones: Diputación Foral de Álava, Gobierno Vasco y las Cuadrillas.

## PROPUESTAS PARA LA MEJORA DE LA RED DE TÉCNICOS DE EUSKERA DE LAS CUADRILLAS DE ÁLAVA

- Continuar con la red de técnicos de euskera que tenga como base las Cuadrillas de Álava. El tiempo ha demostrado la idoneidad del sistema: tiene en cuenta la realidad de Álava, permite hacer un diagnóstico más acertado de la situación sociolingüística del territorio, permite adecuar los criterios y políticas generales a cada comarca, y supone un acercamiento de las dos zonificaciones mencionadas (comarcas del norte y el sur).
- Lograr un acuerdo entre todas las fuerzas políticas y definir vías de colaboración con los agentes sociales que trabajen en favor de la normalización del euskera para la continuidad de la red así como una política lingüística completa en Álava.
- Dar un respaldo legal a la red de técnicos de euskera.
- Acordar, teniendo como base el consenso, el sistema que dé más continuidad a la línea de ayudas para la contratación del personal técnico de euskera.
- Respecto a sistemas de contratación y funcionamiento de otros territorios, analizar en cada caso qué es aplicable a Álava y cómo se puede adecuar.
- Continuar con la deslocalización del personal técnico de euskera: continuar trabajando en las entidades de la comarca.
- Continuidad del Servicio Foral del Euskera como órgano que dirija y guíe el resto de servicios de euskera del territorio, como hasta ahora, pero analizando un posible redimensionamiento y reparto de funciones.
- Cambiar la dinámica de trabajo de los técnicos de euskera de Álava, no significativamente, de tal manera que se reúnan con una periodicidad necesaria para llevar a cabo proyectos que respondan a determinados puntos de interés.
- Analizar la posibilidad de reforzar el número de recursos humanos. Decisión que se propone adoptar en base a unos posibles ratios que se definan (por

ejemplo, en base al número de habitantes, número de pueblos o número de otro tipo de personal técnico existente -animadores socioculturales, técnicos de deporte...-).

- Determinar unas funciones generales, pero flexibles, para todo Álava; hay que dar margen para adaptar lo general a la realidad sociolingüística de cada comarca.
- Continua colaboración con las entidades superiores a las Cuadrillas (Diputación Foral de Álava y Gobierno Vasco).
- Analizar y definir cuál es el ámbito de actuación del personal técnico de euskera: Cuadrillas y/o ayuntamientos.
- Analizar y definir posibles vías de colaboración con redes existentes en el resto del territorio del euskera.
- En todas esas mejoras se propone tener en cuenta la opinión de todos (o la mayoría, al menos) los agentes promotores del euskera que trabajan por la normalización del euskera en Álava.
- Última propuesta pero a tenerla en cuenta en primer lugar: continuar con el actual sistema de contratación hasta definir el nuevo (en caso de determinar la idoneidad de uno nuevo), para que no haya parones en la normalización del euskera de Álava. De todas las propuestas de mejora realizadas, tendrá prioridad trabajar en las vías para asegurar la continuidad de la red.

La red de técnicos de euskera de las Cuadrillas de Álava, junto con los técnicos de euskera de los ayuntamientos (allá donde los hay), conforman actualmente un equipo de trabajo firme cuya dinámica de trabajo mejora con el paso del tiempo, gracias a un conocimiento mutuo de los técnicos y el trabajo que cada uno realiza. La red de técnicos de euskera de las Cuadrillas ha funcionado, puesto que, desde su inicio en 2009 hasta la actualidad, se han dado pasos cuantitativos así como cualitativos en la normalización del euskera en Álava. Los avances más significativos han sido los cualitativos, ya que medir la incidencia de un proyecto tan joven (la red de técnicos

cumple en 2013 su cuarto año) en un proceso de normalización lingüística, es muy difícil.

Es cierto que ha habido discrepancias en los últimos meses en torno a la red de técnicos de euskera de las Cuadrillas, pero si el objetivo es claro, el camino se puede y se debe ir construyendo conjuntamente. Sirva esta investigación como punto de partida para definir el camino a seguir: desde un mismo punto de partida, actuando en un mismo sentido.

### 3.HELBURUA

Sakontze egitasmo honetan planeatzen den gaia, beraz, pil-pilean dagoen gaia da. Proiektuaren garrantzia agerikoa da; izan ere, beharrezkoa da orain arte egindako lana eta sortutako estrukturak aztertzea, aurrera begira, hobekuntzak proposatu eta abian jartzeko. Hori da, hain zuzen ere, egitasmo honen helburua: Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea aztertzea eta hobetzeko bideak proposatzea. Horretarako, ikerketa aplikatua egin da.

Lan honen hasierako hipotesia da Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sareak funtzionatu duela; izan ere, oro har, aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatiboak eman dira Araban euskararen normalizazioan. Nolanahi ere, euskararen normalizazio eraginkorragoa lortuko bada Araban, ezinbestekoa da euskara teknizariz osatutako egitura sendo eta iraunkor bat osatzea, baita beharrezkoak diren baliabideez (giza baliabideak, materialak eta ekonomikoak) hornitzea ere.

Sistema sendo eta iraunkorra da gobernu aldaketa batek desorekatu edota desegingo ez duen egitura. Horrek eskatzen du euskararen normalizazioan inplikaturako eragile desberdinek definitu eta adostutako egitura bat izan behar dela, gizarte eragile eta eragile instituzionalen arteko akordio bat. Egitura sendo eta iraunkor horrek argi izango ditu funtzioak, eragin-esparruak, hierarkia funtzionala eta hierarkia organikoa.

## 4. INFORMAZIOAREN EZAUGARRIAK

Sakontze egitasmo hau osatzeko datu mota desberdinak jaso dira: datu hutsak, interpretazio eta ondorioak, eta proposamenak. Datu hutsak Arabako eta bertako errealitate soziolinguistikoaren deskribapena egiteko erabili dira, batez ere. Interpretazio eta ondorioetarako oinarri hartu dira lagina atalean zehaztutako kargu eta profilei egindako elkarrizketak. Proposamenek, azken aurreko atala osatuko dute, nagusiki. Lan honetan lortu den aniztasuna azpimarratzekoa da, bertan jaso baitira eragile mota desberdinen iritziak: gizarte eragileak, eragile instituzionalak, perfil desberdinak, instituzio maila desberdinak eta hainbat ideologietako eragileak (Bildu, EAJ-PNV, PP, PSE-EE).

## 5. METODOLOGIA

Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea aztertzeko, lehenik eta behin, sareari buruz idatzita dagoen dokumentazioa aztertu da, besteak beste, Arabako Euskararen Foru Zerbitzuko Plan Estrategikoa, sareari buruzko hainbat artikulua eta kuadrilletako teknikariek beraiek egindako urteko memoria txostenak. Horiek bereziki garrantzitsuak izan dira txosten honen 11. atala<sup>6</sup> osatzeko. Arabako teknikarien sarea hobetzeko, Arabako Biltzar Nagusietan behin baino gehiagotan Iparraldeko sistemari egin zaio erreferentzia; horregatik Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren kasua ere aztertu da, inguruko beste sareekin batera (adibidez: Bizkaiko Alkarbide, Gipuzkoako Udalekin edota Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea). Dokumentazio hori oinarri hartu da txosten honen 9. atala<sup>7</sup> osatzeko; eta esan beharra dago, azaleko azalpenak diren arren, sare bat egotearen garrantzia agerian gelditzen dela bai batean zein bestean. Idatzitako dokumentazio hori guztia osatu da sarearen azterketa kualitatibo batekin. Horretarako txosten honen 6. atalean, alegia, "lagina" atalean zehaztutako pertsonen elkarrizketa egin zaie.

---

<sup>6</sup> "Kuadrilletako euskara teknikarien lana 2009-2012".

<sup>7</sup> "Euskal Herriko euskara teknikarien sareak".

Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea aztertzeko eta hobetzeko bideak proposatzeko metodologia kualitatiboa erabili da: sakoneko elkarrizketak eta, ahal den kasuetan, eztabaida taldeak.

## 6.LAGINA

Sakontze egitasmo hau osatzeko 32 lagun elkarrizketatu dira, funtsean, sakoneko elkarrizketen eta talde eztabaiden bitartez. Ahal izan den guztietan eta, noski, egoki ikusi den guztietan, eztabaida taldeak lehenetsi dira informazio aberasgarriago bat lortzeko. 32 elkarrizketatu horiek honela banatu dira: 13 sakoneko elkarrizketa eta 7 talde eztabaida (2-4 lagun ingurukoak azken talde horiek).

Ikerketa lan honen hasierako maxima izan da Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sareari buruz ahalik eta ikuspuntu eta iritzi gehien jasotzea egitasmo anitz eta osoa izateko. Elkarrizketatu diren perfilak ikusita, helburua bete dela baieztatu daiteke, honako perfil hauen iritzi eta ikuspuntuak jaso baitira: politikariak<sup>8</sup> (Eusko Jaurlaritzan, Arabako Foru Aldundian zein Arabako Biltzar Nagusietan egondakoak edo daudenak), kuadrilletako gerenteak, euskara teknikariak (Euskararen Foru Zerbitzukoak, kuadrilletakoak eta udaletakoak), gizarte eragileak eta adituak. Horien inguruko datu zehatzagorik ez da emango, haien anonimotasuna bermatzeko. Perfil horiek guztiak kontuan hartuta, lagin txiki bat hartu eta elkarrizketak garatu dira.

## 7.ARABA

Arabako Lurralde Historikoak badu administrazio-antolamendu berezi bat beste lurraldeek ez dutena: kuadrillak. Lurralde antolamendurako sistema hori azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauan jasotzen da, eta bertan zehaztutako eskualde desberdinek arazo espezifikoak eta interes bereziak sortu eta partekatzen dituzte. Egun, Arabako

---

<sup>8</sup> Sakontze egitasmo honetan jaso dira PP, EAJ-PNV, Bildu eta PSE-EEren ordezkarien edo esparru honetan lan-ildoak oso ondo ezagutzen dituzten pertsonen iritzi eta ikuspuntuak.

Lurraldean ondorengo eskualdeek osatzen dute: Vitoria-Gasteiz, Aiara, Agurain, Arabako Errioxa, Añana, Mendialdea eta Zuia.

Ondorengo Arabako mapan ikus daitezke Arabako kuadrillak koloreka: horia, Gasteizko Kuadrilla; laranja, Aiara; berdea, Arabako Errioxa; urdina, Agurain; grisa, Zuia; arrosa, Añana; eta gorria, Mendialdea. Trebiñu zuriz agertzen den eremu geografikoa da.



Arabako kuadrillak eta Trebiñuko Konderrria osatzen duten udalerriak asko dira, eta zenbait kasutan, udalerririk horien baitan beste hainbat herri daude. Kopurua, hortaz, ondorengo zerrendan zehaztutakoa baino askoz handiagoa da kasu batzuetan. Arabako herrien kopuru eta sakabanaketa, beraz, handia da.

- Agurain: Agurain-Salvatierra, Alegría-Dulantzi, Asparrena, Barrundia, Elburgo-Burgelu, Iruraiz-Gauna, San Millán/Donemiliaga, Zalduondo.
- Aiara: Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio, Okondo.

- Arabako Errioxa: Bastida, Bilar, Eltziego, Eskuernaga, Guardia, Iekora, Kripan, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Mañueta, Moreda Araba, Navaridas, Oyón-Oion, Samaniego.
- Añana: Añana, Armiñon, Beranturi, Erribera Beitia, Erribera Goitia, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Valdegovía, Zanbrana.
- Mendialdea: Arraia-Maeztu, Bernedo, Harana, Kanpezu, Lagran, Peñacerrada-Urizaharra.
- Zuia: Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia, Zuia.
- Vitoria-Gasteiz: 63 herrik osatzen dute egun, Vitoria-Gasteizko udalerria.
- Trebiñuko Konderria: Argantzun, Trebiñu.

Ondorengo taulan jaso diren datuak dira Arabako biztanleriari dagozkionak; hain zuzen ere, 1981 eta 2006. urteei dagozkien euskara gaitasunari buruzko datuak. Bi data horien arteko alderaketa eginez gero, ageriko datua da, oro har, euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak nabarmen igo dela; erdal hiztun elebakarren portzentajeak, berriz, behera. Hortaz, gizarte gero eta elebidunago batean bizi garenaren seinale.

Arabako biztanleria eta hizkuntza gaitasuna <sup>9</sup>								
Eskualdea	1981				2006			
	Bizt.	Eusk. %	Ia-eusk. %	Erd. %	Bizt.	Eusk. %	Ia-eusk. %	Erd. %
<b>Agurain</b>	8.368	3,62	6,70	89,68	10.660	26,98	23,14	49,88
<b>Aiara</b>	32.936	4,38	5,59	90,03	32.818	26,70	24,32	48,98
<b>A. Errioxa</b>	9.288	0,86	1,68	97,46	10.945	22,26	16,73	61,01
<b>Añana</b>	5.879	0,88	2,12	97	7.859	19,35	20,25	60,40
<b>Mendialdea</b>	3.586	0,56	3,23	96,21	3.089	18	15,83	66,17
<b>Zuia</b>	6.196	25,61	9,28	65,11	8.645	38,94	22,16	38,90
<b>Gasteiz</b>	182.803	3,39	11,17	85,44	223.553	24,64	22,73	52,63

Aipatu beharreko beste datu garrantzitsu bat da biztanleriaren banaketa. Kontuan hartu behar da Vitoria-Gasteiz eta Laudion Arabako biztanleen %81 baino gehiago bizi dela. Gainontzekoa, Arabako beste udalerrietan banatuta geratzen da. Horrek, ezbaierik

<sup>9</sup> Iturria: taula hau osatzeko EUSTATEko datuak erabili dira. ≥ 2 urteko biztanleria, Arabako udalerririk eta euskara maila gurutzatzen dituen taula.




gabe, kuadrilletako euskara teknikarien lana baldintzatzen du. Aspektu hori ere jaso da kuadrilletako euskara teknikarien sarearen balorazio kualitatiboan; hori da, hain zuzen ere, kuadrilletako euskara teknikariek azpimarratzen duten zailtasunetarikoa bat.

Atal honekin amaitzeko, eta egoeraren irudi argi bat izateko, ondorengo mapetan zehaztuta daude 2009. urtea baino lehen eta ondoren Araban zeuden euskara zerbitzuak. Gogoan izan, urte horretan hasi zela martxan Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea.

Sarea abian jarri baino lehen Araban zeuden euskara zerbitzuak:



Sarea abian jartzearekin batera, Arabako euskara zerbitzuak ugaritu egin ziren eta lehen presentziarik ez zuten lekuetara zabalduz joan ziren.



## 8.ARABAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK<sup>10</sup>

Atal hau osatzeko V. Inkesta Soziolinguistikoan jasotako datuak (2011) hartu dira oinarri. V. Inkestak euskararen egoerari buruzko azken datuak eskaintzeaz gain, azken 20 urteotako bilakaera nolakoa izan den ere adierazten du. Bost urtetik behin egindako inkesta honek 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartzen ditu aintzakotzat. Inkestatik kanpo gelditzen da, beraz, euskararentzat horren garrantzitsua den taldea; izan ere, eskolaren eraginez, euskaldunduena den adin-taldea da.

V. Inkesta Soziolinguistikoak lau ikerketa-eremu jasotzen ditu: herritarren hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean eta eremu formaletan) eta euskararekiko jarrera. EAE, Nafarroa eta Iparralde, euskararen eremu guztiak, hartu ditu kontuan. Ondorengo ataletan baina Arabako egoera soziolinguistikoari dagozkion datuak besterik ez dira jaso.

<sup>10</sup> EUSKO JAURLARITZA (2011). V. Inkesta Soziolinguistikoa: Arabako datuen desglosea. Argitaratu gabea.

**Biztanleriaren ezaugarri soziodemografikoak.** Arabako elebidunen kopuruan zuzeneko eragina duten bi ezaugarri aipatu behar dira lehenik eta behin: gizartearen zahartzea eta etorkinen pisua.

Arabako gizartea geroz eta elebidunagoa den moduan, geroz eta zaharragoa da, Euskal Autonomia Erkidegoarekin alderatuta azpitik kokatzen den arren. Arabako biztanleriaren %17,7k 65 urte baino gehiago ditu eta %17,8k hogeitetik behera. Biztanleriaren piramidearen oinarria geroz eta estuagoa da; erdialdea zabala eta goialdea zabalduz doa.

Elebidunen bilakaeran eragina duen bigarren faktorea etorkinen pisua da. Araban oso handia. Kontuan hartu behar da Arabako biztanleen %35 Euskal Autonomia Erkidegoa ez den beste lurralde batean jaiotakoa dela. Portzentaje horretatik %25 estatuko beste lurraldetatik etorritakoak dira eta %10 atzerritik. EAE eta Nafarroako datu orokorrak aintzat hartuta, Araba da etorkin gehien dituen lurraldea. Etorkin gehienak 15-40 urte bitartekoak dira; adin tarte hori osorik hartuta, %20 ingurukoa da etorkinen pisua. Horrek adin tarte horren euskalduntzean zuzeneko eragina du, euskalduntzearen moteltzea dakarrelako.

Horri guztiari gehitu behar zaio txosten honen 7. atalean jasotako datua; hain zuzen ere, desoreka handia dagoela Araban hiriburu eta gainontzeko lurraldearen artean: geroz eta handiagoa baita hiriburuaren eta gainontzeko zonaldeen arteko aldea.

**Hizkuntza-gaitasuna.** V. inkesta soziolinguistikoak jasotako datuen arabera, Arabako 16 urte edo gehiagoko biztanleen %16,8 elebiduna da, %16,8 elebidun hartzailea eta %66,4 erdal hitzun elebakarra. Elebidunen kopurua handituz doa etengabe; izan ere, duela 20 urte, biztanleriaren %7 besterik ez zen elebiduna.

Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2011 (%) <sup>11</sup>			
Lurraldea	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldunak
Bizkaia	25,4	17,8	56,8
Gipuzkoa	49,9	16,4	33,7
Araba	16,8	16,8	66,4

<sup>11</sup> EUSKO JAURLARITZA (2011). V. *Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Adin tarteari dagokionez, 35 urtetik beherakoen artean eman da elebidunen gorakadarik handiena: 16-24 eta 25-34 adin tartetean (%46,2 eta %29,3 hurrenez hurren). Azken hogeitun urteotan elebidunen hazkundera orokorra eta jarraitua izan den arren, bereziki nabaritu da 16-24 urte bitarteko tartean; izan ere, 1991ean elebidunen kopurua %8,9koa zen eta gaur egun %46,2.

Adin tarte hori ere bada lehen hizkuntza euskara jaso dutenen artean nabariena. Oro har, geroz eta gehiago dira euskara eta erdara batera jasotzen dutenen kopurua. Euskara etxean jaso duten elebidunak herenera ez dira iristen (%29) eta horietatik erdiek gaztelania ere jaso dute euskararekin batera. Elebidun horien gehiengoa (%71) euskaldun berria da, alegia, eskolan edo euskaltegian ikasi dute euskara. Horri jarraiki, 50 urtetik beherakoen artean proportziorik nabariena kokatzen da (%75 inguru); 50-64 urte bitartean portzentaje garrantzitsu bat ere badago (%52,9); eta 65 urtetik goragokoen artean portzentajerik lausoena ikus daiteke (%23,7).

**Euskararen familia transmisioa.** EAEko datuak, oro har, bat datoz Arabako datuekin. Eta horiei erreparatuz, ondoren aipatuko diren ondorioak ikus daitezke. Guraso biak elebidunak izanik, seme-alaben %85ek izan dute familia bidezko transmisioa; %7k euskara eta gaztelania; eta %8k ez dute transmisiorik izan. Gurasoetako bat elebiduna den kasu gehienetan erdara da gehien transmititu den hizkuntza (%64); eta horren erdiak euskara eta gaztelania (%36). 2-15 urte bitarteko seme-alabak dituztenen artean, oso gutxi dira euskara transmititu ez duten bikote elebidunak (%3). Euskararen transmisioa ia erabatekoa da guraso biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak direnean. Portzentaje hori jaisten da gurasoetako bat ala biak euskaldun berriak diren kasuetan. Nolanahi ere, euskaldun berri zein zahar, oro har, familia bidezko transmisioa ematen da. Berdin gertatzen da bikote mistoetan (gurasoetako batek ez daki euskaraz): %29k familia bidezko transmisiorik ez du egiten, %71ak bai, ordea. Familia mota horretan, alegia, mistoan, da alderik nabariena eman den taldea: euskara transmititzen ez duten familia mistoen kopurua dezente jaitsi da, %64 izatetik %29 izatera pasa baita.

**Erabilera.** Hori da, gaur egun, euskarak duen erronkarik garrantzitsuenetakoa. Euskararen ezagutza eta erabileraren datuak ez datoz bat. Nolanahi ere, Araban gero

eta pertsona gehiagok erabiltzen du euskara, eta gero eta gutxiago dira erdara hutsean aritzen direnak. Arabako biztanleriaren %4,3k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du (kontuan hartu behar da 1991n eta 2006an portzentaje horiek baxuagoak zirela: %0,5 eta %3,3 hurrenez hurren). %8,3k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago (1991ean %7,2 eta 2006an %7,3).

Erabilera gehien hazi den adin-taldea 16-24 eta 25-34 urte bitartekoak da: %7 inguruk euskaraz erdaraz beste edo gehiago egiten du. Adinean gora egin ahala baina erabilerak behera egiten du nabarmen.

Erabilera gehien etxetik kanpo ematen da. Ez da harritzekoa; izan ere, elebidun gehienek euskalduntzea familiaratik kanpo eman da, euskaltegi edota ikastetxeetan. Horrek, gertuko harreman-sare erdaldunarekin batera, euskararen erabilera asko mugatzen dute. Euskararen erabilera handiagoa ematen da eremu formalean, lanean eta lagunaren artean. Nolanahi ere, erabilerak gora egiten du seme-alabekiko erabileran.

**Jarrerak.** Azken hogeitaz urteotako bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera Araban ez dela asko aldatu. Euskara sustatzeari aldeko jarrera neutro edo kontrako jarrerak gehiengoa osatu dute orain arteko emaitza guztietan. Ikusi ondorengo taulan jasotako datuak:

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. Araba, 1991-2011 (%) <sup>12</sup>			
Urtea	Alde	Ez alde ez aurka	Aurka
1991	45,4	33,4	21,2
2001	42,9	39,1	17,9
2011	48,1	30,7	21,1

Euskararen erabilera sustatzeari aldeko jarrera nabariagoa da Araban (%48,1) Gasteizen (%42) baino. Sustapen nahi hori 16 urtetik gorako biztanleen artean nabariagoa da (%48,1), baita elebidunen artean ere (%83,1). 16-24 eta 25-34 urte bitarteko arabarren artean ematen da jarrera positiboena euskararen sustapenari dagokionez. Honetan zeresan handia du gurasoen jatorria; izan ere, bertan jaioak eta gurasoak ere bertakoak dituztenen %61,5 euskararen erabilera sustatzeari alde dago,

<sup>12</sup> EUSKO JAURLARITZA (2011). V. *Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

bertan jaioak baina gurasoetako bat etorkina denen artean, berriz, %50,9. Guraso biak etorkinak dituztenen artean %39,4 agertu dira euskararen erabilera sustatzearen alde. Aurkako jarrerarik nabariena Araban jaiotakoen artean, baina guraso biak kanpoan jaioak dituztenak dira (%26,6). Etorkinen artean jarrera neutroa da nagusitzen dena (ez alde ez aurka %45).

**Arabako elebiduna** gaztea da, 16-24 urte bitartekoa. Gasteizen bizi da (kontuan hartu behar da Arabako biztanleriaren gehiengoa hiriburuan bizi dela) eta familiatik kanpo ikasi du euskara, batez ere, hezkuntza sistemari esker. Gerta liteke gurasoetakoren bat euskaldun berria edo elebidun hartzailea izatea, hori da ohikoena. Erdal elebiduna izanik, erraztasun handiagoa dauka gaztelaniaz hitz egiteko euskaraz baino. Arabako elebidunak euskara erabiltzen du, baina erdara baino askoz gutxiago; eta erabiltzen duena etxean ez da izan ohi, baizik eta kalean, ikastetxean edo lanean. Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera argia dauka, baina gurasoetakoren bat edo biak kanpoan jaio badira, aldeko jarrera hori lausotzen da.

## 9.EUSKAL HERRIKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREAK

XX. mendeko azken hamarkadan hasi ziren sortzen euskara teknikarien sareak. Lurralde lurralde, denbora aurrea joan ahala eta erritmo desberdinean, euskara teknikarien bilgune eta sareak sortuz joan dira; batzuk borondatez (*Udaletako Euskara Teknikarien Sarea*), beste batzuk modu gidatu eta arautuan (*Bizkaiko Alkarbide*). Euskara teknikarien sare eta bilgune horiek euskararekin eta euskara teknikariek egin beharrekoekin erlazionatutako hainbat esparru landu dituzte, besteak beste, lurraldeko hizkuntza politika bateratua osatu, proiektu orokor eta komunak abian jarri, esperientzia eta proiektuen bilguneak sortu eta teknikarien prestakuntza behar orokorreari modu antolatu batean erantzun.

Egun, badira Euskal Herrian ondorengo teknikarien bilgune eta sareak: Bizkaian, *Alkarbide*; Araban, *Kuadrilletako euskara teknikarien sarea*; Nafarroan, *Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea (NUETS)*; Gipuzkoan, *Udal*>ekin; eta Iparralden,

*Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)*. Ondorengo ataletan jaso da bakoitzari buruzko oinarritzko informazioa, hurbilpen txiki bat egiteko, oso azalekoa bada ere.

### Euskal Autonomia Erkidegoa. Udaletako Euskara Teknikarien Sarea (UETS)<sup>13</sup>

1994. urtean, hainbat udaletako euskara teknikariek UETS eratu zuten. Horiek izan ziren euskara teknikariek eman zituzten koordinaziorako lehen pausuak. Lan hori baina modu boluntarioan egin zuten, hau da, UETS ez zen izan erakunde bat sortutako berezko egitura, baizik eta teknikariek osatu zutena, elkarren artean lana bideratzeko premiatik abiatuta. Elkarlanerako premia horren beharra idatziz jaso zuten BAT aldizkariko 12. zenbakian argitaratutako artikuluan (1994ko ekainean): Udaletako Euskara Teknikarien Sarea (UETS). Bat 12, 53-57:

*"Udaletan euskarari nolabaiteko presentzia emateko ihardunari ekin zitzaion une beretik, gutxi asko denok azaldu dugu elkarlana bideratzeko premia. Hitzetik hortzera erabili dugu koordinazio hitza. Etengabe mahairatu izan dugu esperientziak trukatzeko behar larria. Izan ere, konturatu, konturatzen baikara gure "laborategietan" (Udaletxeko lau hormen artean) esperimentuak egitera mugatzeak daukan arriskuaz, esperimentu horiek beste hainbatekin eta errealitate zehatz eta zabalarekin kontrastatzen ez diren heinean, behinik behin".*

Bidea egiten ari zen sare horrek lorpenak eskuratu zituen. Haien arteko koordinazioari esker hainbat proiektu abian jarri baitzituzten. Lehen aipatutako artikuluan berean jasotzen dira horien adibide batzuk:

*"Udaletako Euskara Teknikarien koordinazioa dela bide burutu diren ekintzen artean aipagarrienak dira irakaskuntzan, familia arloan, gazteen arloan eta diruetxeetan egin diren kanpainak: "Euskara gazteena", "Alfabetatze kanpaina", "Transmisio kanpaina", aspaldi xamar egindako "Kontuak euskaraz: zure esku dago", etab. Aipatu kanpainen eragin garrantzitsua izan*

---

<sup>13</sup> ARRUTI, I. (2012). Hizkuntza plangintza udalerrri mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

*dutelakoan gaude, eta gure uste apalean, eragin horren arrazoirik nagusiena UETSen koordinatzen garen teknikarion elkarlana izan da".*

UETSk lan zama handia ikusi zuen sarearen koordinazioa eta, oro har, egin beharreko lan administratiboa aurrera ateratzeko. Horregatik, instituzioei laguntza eskatu bazioten ere, garai hartan ezin izan zitzaizen eman. Artikulu bereko ondorengo pasarteetan argi asko ikusten da oraintxe azaldutakoa:

*"Alabaina, eratu dugun egitura honek lan handia dakarrela kontutan izanik, gauzak txukun egitekotan behintzat, derrigorrezko irizten diogu UETSen koordinazioa eta lan administratiboa bideratzeko beste erakunderen batek (EUDEL, HPIN, HPZN...) bere egituraren baitako (norbaitzu) norbait lanean jartzeari, bestela orain artean bezala, gauzak egin egingo dira apika, baina nekez eta dolorez, eta okerragoa dena, udaletako euskara teknikariak nekatu edota aspertuz gero, norbera bere zuloan sartu eta bere gisara ibiltzeko dakarren arriskuarekin egingo dugu topo berriro ere, eta jakina, elkarlana horrenbeste aipatzen den garai hauetan ez litzateke berri ona izango".*

Kontuan hartuta sare honen helbururik nagusiena zela udal administrazio eta udalerrietan euskararen erabilera normaltzea, hori lortzeko bidean sor zitezkeen arazo zehatzei irtenbide bateratua emateko koordinazio bideak ahalbidetzea izan zen sarearen eginkizuna. Helburu eta eginkizun horiek lortzeko, sareak lau ildoren lanketa aurreikusten zuen: esperientziak trukitzea, irizpideak bateratzea, proiektuak elarrekin egitea eta haien artean koordinatzea.

Sare honek bi bilera mota aurreikusi zituen: batetik, arruntak (hilabeteetan behinekoak eta alde zurretik garatutako gai-zerrenda bat irizpide dutenak); eta bestetik, gai bakarrekoak (udal batek edo batzuk eskatutakoa gai zehatz bat lantzeko).

UETSren atal honekin amaitzeko, hona hemen sare honek artikulu berean udalek hizkuntz normalizazio egokia bideratzeko emandako hainbat aholku:

*"Udal hizkuntz politikaren oinarrizko irizpideak*



A) *Politika orokorraren atala Udalaren hizkuntz politika, Udalaren politika orokorraren atal bat da eta horren ardura nagusia korporazio eta alkatearena da. Herriak hautatutako kargudunen egitekoa, besteak beste, administrazioa den neurrian euskararen erabilpenaren normalkuntzak, Udal barnean zein udalerrian, eskatzen dituen betebeharrei erantzuteko egitura egokitzea, bitartekoz hornitzea eta hizkuntz plangintzaren bidea markatzea da. Euskara Zerbitzuaren ardura aldiz, korporazio eta alkateak markatutako bide hori ahalik eta hobekien urratu eta tajutzea delarik, aholkularitza lana ahaztu gabe.*

B) *Erabakia non, hizkuntz irizpidea han Hizkuntza Udaleko atal guztietan izan behar dugu gogoan. Ez dago hizkuntzarik gabeko udal-ekintzarik. Hizkuntzaz batean edo bestean, baina beti hizkuntzaren batean, bideratzen dira ekintzak eta proiektuak edota plangintzak. Erabakiak hartzen diren gune guztietan egon behar du euskararen erreferentziak eta erabakiaren arduraduna, bere ataleko hizkuntz erabilpenaren arduraduna ere bada. Hauxe da hizkuntz normalkuntzaren oinarritzko irizpide garrantzitsuenetako bat, erabakia non hizkuntz irizpideak han behar du.*

C) *Izaera interdepartamentala Aurreko puntuan aipatu arrazoia dela medio, derrigorrezkoa da Euskara Zerbitzuak izaera interdepartamentala izatea eta gainerako zerbitzuetan proiektzioa izatea, Udalak erabakitako hizkuntz politika beste zerbitzu-buruekin batera garatu eta aurrera eramateko. D) Eginkizunak Udalaren hizkuntz politika aplikatzeko derrigorrezkoa da, beraz, hizkuntz politika hori planifikatzea, antolatzea, koordinatzea, abian jartzea eta kontrolatzea. Horiek dira, Euskara Zerbitzuaren eginkizunak, bai Udal barnera begira bai Udalerrira begira."*

### **Bizkaia. Alkarbide**

Alkarbide da Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen bilgunea. 2001ean sortu zen Kultura Saileko Foru Aldundiaren 175/2001 Foru Dekretuaren<sup>14</sup> bitartez, Bizkaiko Foru Aldundian Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

---

<sup>14</sup> Azaroaren 20koa, "Alkarbide", Bizkaiko Toki Erakundeen Euskara zerbitzuen bilgunea, eratu eta haren jardunbideari buruzko araudia onetsi duena.

Nagusia 1999an sortu eta handik bi urtera. Eusko Jaurlaritzaren eta EUDEL-en laguntzaz sortutako proiektua da Alkarbide. Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia sortu zenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko euskara zerbitzuen egoera, egungo egoerarekin alderatuta, oso bestelakoa zen: haien artean sakabanatze handia zegoen eta ez zegoen irizpide bateraturik.

Hortaz, udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen arteko koordinazio beharra agerikoa zen: bai tokian tokiko eragile eta zerbitzuentzat, baita Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiarentzat ere. Hori horrela, Zuzendaritza Nagusiaren lehentasuna izan zen Alkarbide sortu eta abian jartzea.

Gune honen helburu nagusia da udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen lanaren koordinazioa eta antolakuntza orokorra, hala euskara sustatzeko irizpideak bateratu eta hobetzeko, nola udal eta mankomunitateen iritziak eta iradokizunak jaso eta erkatzeko. Horri jarraiki, hiru helburu zehatz antzematen dira:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden euskara zerbitzuen politikak koordinatzea, beti ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren marko orokorra ardatz izanik.
2. Hala eskatzen duten Bizkaiko udal zein mankomunitateei, euskara arloan, aholkularitza eta laguntza ematea. Era guztietako prestakuntza eskaini, trebakuntza ikastaroak antolatu eta terminologia landu.
3. Lurralde osorako proiektuak prestatu eta garatzeko zerbitzuak eskaini.

Laburbilduz, Alkarbideren eginkizuna da lurraldeko hizkuntza politikak koordinatu, euskararen sustapen eta biziberritzeko politika egoki eta egingarria gauzatzeko.

Egiturari dagokionez, Alkarbidek hiru maila ditu: maila politikoa (zuzendaritzaz eta ordezkartzaz arduratuko da), antolakuntza maila (bilgunearen barne koordinazioaz arduratuko da, era guztietako zerbitzuak eskainiko dizkio toki erakundeetako euskara zerbitzuei, eta bertako teknikariak trebatu eta prestatzeko bideak jorratuko ditu) eta maila tekniko (udal eta mankomunitateetako euskara teknikariek osatuko dute, arloka antolatutako lan mahaiak izango dira).

Aipatu berri diren lan mahai horiek A, B, C, D ereduaren arabera sailkatuta daude: A egoera soziolinguistiko okerrean dauden herri eta mankomunitateak izanik, eta D egoera soziolinguistiko hobea batean dauden herri eta mankomunitateak. Hori horrela, eta aipatutako zonalde soziolinguistikoak kontuan hartuta, bakoitzarentzako egokiena izan daitekeen irtenbide eta neurriak proposatuko dituzte, eta hausnarketa eta azterbideak bultzatuko dituzte.

Maila politikoko batzordeari Batzorde Artezkaria deituko zaio, antolakuntza mailako batzordeari Eragilea eta maila teknikokoa Lan mahaiak izango dira. Azken horiek udal eta mankomunitateetako teknikariek osatuko dituzte eta, lehen esan bezala, lau eremu soziolinguistikotan banatuta daude -A, B, C, D-.

Alkarpideren jardunbidea lau eremutan garatzen da, batez ere: koordinazioa, proiektugintza, prestakuntza eta esperientzien gordailua. Arlo horiek guztiak kontuan hartuta, egun, Alkarpideek 85 udalerriri ematen dio zerbitzu (gaur egun, Bizkaiko Lurralde Historikoan 112 udalerriri daude).

Modu honetan, besteak beste, Bizkaiko udalek eta mankomunitateek euskararen arloan gutxieneko azpiegitura finko bat izatea lortu dute, egon badaudenak sendotu eta halako azpiegiturak sortzen lagundu. Alkarpide gune iraunkorra izan nahi du, abagune politikoei eta kasuan kasuko herri kargudunen iraupenari lotu gabeko gunea izatea. Azken batean, euskara biziberritzeko bidean, Bizkaiko Lurralde Historiko osoko udal erakundeen hizkuntza politikak bateratuko dituen organo iraunkorra da.

### **Araba. Euskararen Foru Zerbitzua eta kuadrilletako euskara teknikariak**

Arabako Foru Aldundiak 2008ko irailean sortu zuen Euskararen Foru Zerbitzua euskara zirimiria bezala hedatu zedin Araban. Euskararen Foru Zerbitzua sortu zen Lorena Lopez de Lacalle Aristi Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatu zenean, Xabier Agirre jeltzalearen gobernuan. Zerbitzu hori baina ez zen berria; izan ere, zuela bi legegaldi, Mikel Mintegi saileko diputatu zenean, existitzen zen. PPrena izan zen Mikel Mintegiren ondorengo Aldundia eta Euskararen Foru Zerbitzua bertan behera gelditu zen. Nolanahi ere, lehen esan bezala, berreskuratzea lortu zen.

Euskararen Foru Zerbitzuak 2010-2013 arteko indarraldia izango zuen Araba osorako Plan Estrategikoa<sup>15</sup> burutu zuen. Bi helburu nagusi ditu aipatutako planak: batetik, Araban euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea; eta bestetik, Arabako gizarte eragile eta herri erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlanerako ekimenak jorratzea, euskararen normalizazioaren aldeko urratsak emateko maila pertsonalean, sozialen eta ofizialean. Helburu horiei jarraiki, bi izan ziren Euskararen Foru Zerbitzuak hastapenetan zehaztu zituen lehentasunak: batetik, Araban euskara sustatzeko teknikarien sare garrantzitsu bat eratzea; eta bestetik, Euskararen Aholku Batzorde bat sortzea Arabarako lan ildo nagusiak zehazteko. Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarearen sorrera, beraz, hortxe kokatzen da, Euskararen Foru Zerbitzuaren sorrerako hastapenetan bertan.

Teknikarien sare horren osieran, oinarri hartu zen Arabako errealitatea eta egitura administratiboa: herri asko, sakabanatuak eta kuadrillen existentzia. Hori horrela, eta Arabako errealitate soziolinguistiko desberdinen aurrean lan-ildo egokiak abian jartzeko, erabaki zen kuadrillak oinarri hartzea sarea antolatzeke. 2009. urtean Euskararen Foru Zerbitzuak bideratutako diru-laguntza bati esker (2010etik aurrera Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proiektu honetan lagunduko zuen) Arabako kuadrilletan euskara teknikariak kontratatzea errealitate bihurtu zen. 2009ko urtarrilean hasi eta urte osoan zehar euskara teknikari horien kontratazioak burutu ziren. Sarea 2009ko irailean osatuta gelditu zen. 2010ean, Trebiñu ere sare horretan sartu zen lan jardunaldi erdiko euskara teknikari batekin.

Arabian, hortaz, koordinaziorako gunea kuadrilletako euskara teknikariak, zenbait udal teknikariak eta Euskararen Foru Zerbitzuko teknikariak osatzen dute. Sarea, haren bilerak eta teknikariak beharrezkoa duten formazioa Euskararen Foru Zerbitzuak dinamizatzen du. Hilero elkartzen dira euskara teknikariak, aldez aurretik zehaztutako gai-zerrenda batekin. Nolanahi ere, euskara teknikariak hasi dira lan mahaietan ere lan egiten proiektu zehatzak lantzeko; horren adibide da sortu berri den mahaiak: administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak irizpide dituen mahaiak.

---

<sup>15</sup> Arabako Diputatuen Kontseiluak onartutako Plana azaroaren 24ko 813/2009 Erabakia bitartez.

Proiektu jakinak lantzeko, aldez aurretik zehaztu gabeko maiztasunez elkartzen dira eta beti dago Euskararen Foru Zerbitzuko teknikari bat bilera horiek gidatu eta dinamizatzeko.

### Nafarroa. Euskarabidea

Nafarroako Gobernuak 90. hamarkadan abian jarri zuen diru-laguntza bide bat udaletan euskararen normalizazio lanetan lagundu eta antolatzen. Diru-laguntza programa horien bitartez, eremu euskalduneko eta mistoko udal gehienetan euskara zerbitzuen sorrera ahalbidetu da. Prozesu horri behar bezalako laguntza eskaintzeko, Nafarroako Gobernuaren eta hainbat toki entitateren arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zen 1998ko azaroaren 11n.

Hitzarmena sinatu zenean 19 euskara zerbitzu zeuden guztira. Egun, 24 dira. Bi hitzarmen bereizten dira: bat, Iruñeko Udalarekin sinatutakoa; eta bestea, gainontzeko 23 udalengan eragina duena. Udal euskara zerbitzu horiek guztiak 105 udali ematen diote zerbitzu; eta bertan, Nafarroako biztanleen %64 bizi da.

Aipatutako hitzarmenean jasotako eginkizunak, honakoak: euskararen erabilpena eta udaletako gizarte bizitzan euskal kultura sustatu, euskara teknikariak kontratatu, langileri politikarien plangintza egin eta garatu, administrazioaren jardura indarrendu hizkuntza araudiari egokitu, udalen jabetzako euskal komunikabideak finantzatu eta indartu, udal esparruan euskararen buruzko azterlanak egin, eta euskararen normalizazio eta erabilerarekin lotura izan dezaketen gainerako gaiak landu.

Hitzarmen hori sinatu eta urte batzuk pasata, 2011n, Euskarabidea<sup>16</sup> sortu zen; Nafarroako Gobernuak erakunde autonomo bat, Euskara Sailari atxikitutakoa. Lehenago sortua zegoen Euskararen Nafar Kontseiluari bide ematen dio. Euskarabidearen estatutuak arautzen dituen Foru Dekretuan jasotzen dira. Era berean, bestelako esparruak ere araututa gelditzen dira bertan: zereginak, egitura organikoa, ondarea, baliabideak, aurrekontuak eta esleitutako langileak.

---

<sup>16</sup> Euskarabidea / Instituto Navarro del Vasqueuse-ren estatutuak onartzen dituen, abuztuaren 24ko 133/2011 Foru Dekretua. BON 172 zk, 2011ko abuztuaren 31.

Jarraipen Batzorde bat eratua dago, eta haren zereginetako batzuk dira urteroko laguntzak banatu eta plangintzak adostu. Batzorde horretan Euskarabideko ordezkariak eta udaletako ordezkari politikoak parte hartzen dute. 2009ko Jarraipen Batzordean hobekuntzarako proposamenen artean, koordinazioari zegokion bat jaso zen; hain zuzen ere, Euskarabidea eta tokiko entitateen euskara zerbitzuen arteko harreman teknikoa hobetu beharra.

### Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea (NUETS)

Nafarroako udaletako lehenengo euskara zerbitzuen sorrerarekin batera (duela 20 urte baino gehiago), Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea sortu zuten euskara zerbitzuek beraiek, boluntarioki. 24 zerbitzu eta 29 teknikari dira, egun, sarea osatzen dutenak. Sarea lan taldeka lan egiten du: hausnarketarako eta esparru zehatzetako egitasmoak garatzeko. Hausnarketako lan taldeak, honakoak: ebaluazioa; gogoeta, ikerketa, ideia berriak; trebakuntza; kohesioa eta barne harremanak; komunikazioa eta kanpo harremanak; eta idazkaritza. Teknikari bakoitza, gutxienez, bateko eta besteko lan talderen batean egon behar da (hausnarketarako talderen batean eta egitasmo zehatzak garatzeko lantalderen batean). Lan talde horien bilera maiztasunak ez daude aldezturik definituta; izan ere, egitasmo zehatzak abian jartzeko behar duten alditan elkartzen dira. Taldeka antolatuta egonda ere, hilabetean behin elkartzen dira NUETS-ko teknikari guztiak.

NUETS sortutako hainbat egitasmoren adibideak, besteak beste, transmisio kanpaina, eskolatzeko kanpaina, helduen euskalduntze-alfabetatze kanpaina, Etxepare Literatura lehiaketa, "Ze berri?" aldizkaria, administrazioan euskaraz kanpaina, udalekuak eta euskara merkataritza.

### Gipuzkoa. Udalekin

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusia 1997an hasi zen lurraldeko udal euskara teknikariei laguntza eta aholkularitza eskaintzen modu sistematikoan. Urte berean, Zuzendaritza horrek hiru lan mahai sortu zituen udalerrietako plangintzak koordinatzeko. Aipatu berri diren hiru mahai horiek merkataritza, kirola eta udal administrazioeko gaiak lantzeko eratu ziren. Esperientzia positiboa izanenez, lan mahai

horien osagarri, 2002an euskara teknikariei zuzendutako prestakuntza plana diseinatu zuen Euskara Zuzendaritza Nagusiak. Plan horretan udal euskara zerbitzuetako ezagutza eta trebetasun beharrei erantzuteko prestakuntza jasotzen zen, oso bestelakoa: prozedura administratiboaren legeari buruzkoa, komunikazioa edota zeharkakotasuna hizkuntza normalizazioan.

Beste urrats kualitatibo bat eman zuen Euskara Zuzendaritzak 2004an *Teknikari* izendatutako programa sortuz. Programa horren helburua zen euskara zerbitzuei aholkularitza integrala eta laguntza tekniko eskaintzea. Proiektu honekin alde batetik, ideien, pertsonen eta baliabideen bateratzea lortu nahi da; bestetik, Aldundiak eskainiko duen zerbitzuaren irudia edo pertzepzioa, proiektu desberdinetako edukiak eta programan esku hartzen duten eragileen arteko funtzio banaketaren artean sinkronia lortu.

*Teknikari* programaren aholkularitza zerbitzua eskaintzeko modua, informazio, formazio eta ikerketarako sistema oso batean oinarritzen da, eta zazpi lan-ildok zuzentzen dute bere jardunbidea: kiroleko lan mahaia, Gipuzkoako udaletan EBPN garatzeko aholkularitza tekniko, hizkuntza normalkuntzarako esperientzia berrien laborategia eta ikerketa espezifikoak, udal euskara teknikariei zuzendutako prestakuntza, teknikarientzako intranet sarea, eta Gipuzkoan hizkuntza normalkuntzarako komunikazio espazio berriak sortzeko proiektua.

*Teknikari* programa oinarri hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu zuen 2008an udal euskara teknikariekiko elkarlana sustatu eta bideratzeko Udal<>ekin programa. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen eta Aldundiaren artean hizkuntza normalkuntzarako bidea indartzeaz gain, elkarlanerako tresnak indartu eta suspertu nahi ditu programa honek.

Gauzak honela, euskararen sustapen eta normalizazioan ari diren udal teknikariei laguntza zehatza eskaintzen die Udal<>ekin programak, lau ildotan banatzen dena: prestakuntza (udal teknikarientzako prestakuntza saioak antolatuko ditu hizkuntzaren ekologiaz, diskurtsoaz, etorkinez, e.a), komunikazio eta informazioa (Gipuzkoako udaletako euskara teknikarien intranet sareari baliagarritasuna emango dio programak, informazioa, esperientzia eta praktika onak trukatzuz eta hedatuz. Aldi

berean, zaintza teknologikoa bideratuko du: inguruko informazioa jaso, hautatu eta ustiatu), esperientzien elkartrukea (*Praktika komunitateak* antolatuko dira, antzeko kezka eta interesak dituzten kideek osatuak, parte hartze aktiboa eta kideen arteko elkartrukea bultzatuz, eta eguneroko zereginetara bideratuta. Era berean, intranet sarea euskara teknikarien arteko elkartrukea bultzatzeko erabiliko da. Kirolaren esparruan euskararen erabilera normalizatzeko lanen koordinazioko lan mahaiaren zereginak sustatuko dira) eta ikerkuntza (etorkinen integrazioari buruzko azterketa kualitatibo bat egingo da Udal<>ekin programaren barruan, bititza historiak, elkarriketak eta eztabaida taldeak erabilita).

### Iparralde. Euskararen Erakunde Publikoa

Iparralden euskararen aldeko hizkuntza politikaren eraikuntzan hainbat data garrantzitsu egon badira ere, egungo sistemaren, *Euskararen Erakunde Publikoaren*, aurrekaririk gertukoena hizkuntza politikarako Obragintza Publikoaren sorrera izan zen: instituzioak euskalgintzako eragileak laguntzeko egitasmo hitzartu baten oinarri izango zena.

Estatuak eta lurralde elkargoek 2001ean sinatu zuten *Hizkuntza politika* izendatutako programa, aurreko paragrafoan aipatutako egitasmo hitzartua. Horren helburua zen euskararen sustapenerako lanean ari ziren eragile publiko zein pribatuei laguntza ematea. 2001. urtean Estatuak, Eskualdea, Departamendua, Hautetsien kontseilua eta euskal kultura sustengatzen duen herriarteko Sindikatua biltzen zuen Obragintza Publikoa sortu zuten. Instituzio horiek guztiek adostu zuten euskararen sustapenerako lehen neurri multzo publiko hori elkarrekin kudeatzea.

Egitura horri iraunkortasuna emateko, 2004an *Euskararen Erakunde Publikoa* (EEP) sortu zen. EEP Interes Publikoko Elkargo (IPE) bat da, eskubide publikoko pertsona juridikoa, funtzionamendu eta kudeaketa araudi malguak dauzkanak. IPEak helburu berezi baten inguruan antolatzen dira eta eragile publiko zein pribatuez osatzen da. Misioa hiru motakoa izan daiteke: administratiboa, industrialak edo komertzialak. Baliabide nahikoa ditu eta epe mugatu baterako eratu ohi da. EEPren eremua "Euskal Herri" edo "Pays" izendatutakoa da eta sei urtetarako sortu zen, haren indarraldia 2010ean amaituko zelarik (hasiera batean zehaztutakoaren arabera).



Osaera eta kide kopurua, honakoa: Estatutik hiru ordezkari, Akitania Eskualde Kontseilutik hiru ordezkari, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusitik hiru ordezkari, Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko Sindikatutik ordezkari bat eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseilutik beste bat. 11 lagun horiek Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseilua osatzen dute, egituraren erabakitzeko gunea izango dena.

EEPren helburua da euskararen aldeko hizkuntzan politika publikoa eta hitzartua sortu, definitu eta abian jartzea. Baita lan horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak bermatzea ere.

Erakundeak badu Aholku Batzordea. Horren helburua da eragile ez instituzionalak hizkuntza politika publikoaren garapenaren parte bihurtzea da. Hezkuntza eta hizkuntza esparruko eragileek parte hartzen dute. Hezkuntza esparrukoak: antolakuntza sindikalak, ikuskaritza sailak, pedagogia aholkulariak, guraso, unibertsitarioak, prestakuntza egiturak, e.a. Hizkuntza esparrukoak: euskararen promozioan ari diren elkarte edo eragile publikoak (hedabideak, aisialdia, argitalpena, helduen irakaskuntza). Taldean adituen laguntza ere badute; hain zuzen ere, soziolinguistikan adituak eta ikerlariak.

2006ko abenduaren 21ean, EEPko Administrazio Kontseiluko kideek Hizkuntza Politika Proiektua (HPP) izendatutakoa onartu zuten, Iparralden euskara sustatzeko 4 urterako Plan Estrategikoa izango zena. Bertan, helburu, estrategia, ildo, programak eta adierazleak jaso ziren. HPPren helburu nagusia zen hiztun osoen kopurua gehitzea, haur eta gazteak lehentasuntzat hartuta; hori guztia motibazioa, ezagutza eta erabileraren bitartez landuz.

## **10.ARABAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2010-2013**

Euskararen normalizazioari dagokionez, Araban aurrera pauso nabarmenak eman dira 1982. urtetik, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legea onartu zenetik. Gizarte geroz eta elebidunago batean gaudela adierazten dute azken inkesta

soziolinguistikoko datuek<sup>17</sup>. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak behar bat ikusi zuen euskararen normalizazioan aurrera pauso kuantitatibo eta kualitatiboak lortzeko, eta hala jasota geratu zen Arabako Euskararen Foru Zerbitzuak egindako Plan Estrategikoan:

*"Arabak eta bere erakundeek nahitaezkoa dute lan-metodoa finkatzea, epe motz eta ertainean arabar gizartea urtez urte eskatzen ari den euskararen alorreko premia eta helburuak definitzen lagunduko duena"*<sup>18</sup>.

Plan Estrategikoa osatzeko Arabako Euskararen Foru Zerbitzuak EMUN S. Kooperatibaren aholkularitza izan zuen: hasierako diagnostikoa osatu, eragile eta adituen ekarpenak jaso eta Plan Estrategikoa bera egiteko. Plan Estrategikoa garatzeko erabili den metodologia berria izan da, Euskara Plana hainbat eragileren parte-hartzearekin osatu baita, hausnarketa estrategikoa erabiliz<sup>19</sup>. Arabako eragile horiek zuzeneko parte-hartzea izan zuten hausnarketa fasean: euskararen diagnostikoa osatzeko, baita helburuak eta estrategiak proposatzeko ere. Txosten honen 13. atala osatzeko elkarrizketatutako hainbat eragilek parte hartu zuten Arabako Plan Estrategikoa osatzeko.

Euskararen Foru Zerbitzuaren Plan Estrategikoak bi helburu nagusi ditu, eta hala jasotzen dira Plan Estrategikoan bertan:

*"-Arabak euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea.*

*-Araba mailako gizarte eragile eta herri erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlanerako ekimenak jorratzea, euskararen normalizazioaren aldeko urratsak emateko maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean."*<sup>20</sup>

<sup>17</sup> Ikusi txosten honetako 8. atalean jasotako datuak.

<sup>18</sup> Arabako Euskararen Foru Zerbitzuko Plan Estrategikoan jasota.

<sup>19</sup> LABAKA, S. (2009). Arabak badu Euskararen Plan Estrategikoa, *Argia* aldizkarian argitaratutako elkarrizketa, 2009ko abenduaren 27a. 2212: 46-47.

<sup>20</sup> Arabako Euskararen Foru Zerbitzuko Plan Estrategikoan jasota.

Helburu horiek lortzeko Plan Estrategikoa hainbat eragin-esparrutan<sup>21</sup> banatu zen: gazteak eta aisia, helduen euskalduntzea, kulturgintza, merkataritza eta ostalaritza, familia transmisioa eta irakaskuntza, komunikabideak eta IKT-ak, eta administrazioa.

Plan Estrategikoak jasotako Administrazioa atalean jasota geratzen da lurraldeko euskara zerbitzuen sarea sustatzeko beharra (6. ekintza):

*"Lurraldeko Euskara Zerbitzuen sarea sustatzeko lana egin eta osatuz doan neurrian, horien arteko sare integrala osatu (koordinazioa, estraneta, prestakuntza bateratua, ekimen bateratuak...)"*.

Horri jarraiki, Administrazioa atalean jasotako 3. ekintzan agerian geratzen da kuadrillen figura toki entitate horien EBPN eta Erabilera Planak onartzeko:

*"Ahaleginak egingo dira udal eta kuadrilla bakoitzak zein bere EBPN garatu eta onar dezala, bai eta hauekin batera eginbeharreko erabilera plana ere"*.

Arabako Euskararen Foru Zerbitzuak proposatutako Plan Estrategikoa Diputatuen Kontseiluak onartu zuen 2009ko azaroaren 24an (813/2009 Erabakia<sup>22</sup>). Aipatutako datan onartutako Plan Estrategiko horri esker, ordura arte zeuden euskara zerbitzuei (Vitoria-Gasteiz, Laudio, Amurrio, Aramaio, Legutio eta Agurainen -azken honetan ez modu jarraikor batean-), Arabako kuadrilla bakoitzeko bana gehituko zitzaion; baita Trebiñuko Konderrian ere.

## **11.KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN LANA 2009-2012**

Atal honetan kuadrilletako euskara teknikariek egindako lanen laburpena jaso da, tokian tokiko euskara zerbitzuen sorreratik orain arte, alegia, 2009tik gaur egun arte. Azpi-atal desberdinetan jaso da teknikariek egindako lana; lan mota bakoitzeko, azpi-atal bana. Azpi-atal horien izenburuak irakurrita, begirada batez ikus daiteke kuadrilletako euskara teknikarien lanaren dimentsionamendu zabala. Lehenengo azpi-

---

<sup>21</sup> Arabako Euskararen Foru Zerbitzuko Plan Estrategikoak eragin-esparru horietan sakontzeko aukera ematen du.

<sup>22</sup> Arabako Plan Estrategikoa (2010-2013) onartzen duen 813/2009 Erabakia eranskinen atalean jasota.

atalean jaso dira, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak eskainitako marko orokorra oinarri hartuta, teknikariek 2009-2011 bitartean garatutako lan-ildoak, labur-labur. Bigarreanean, herri administrazioak euskalduntzeko tokian tokiko erabilera planei buruzko informazioa. Hirugarrenean, tokian tokiko Euskararen Aholku Batzordeenganako hurbilpen bat egin da, azalekoa bada ere. Laugarrenean, euskara teknikariek kudeatu behar dituzten diru-laguntza deialdiak zerrendatu dira. Bosgarrenean, kuadrilletako euskara teknikariek zein koordinazio lan egiten dituzten azaldu da. Seigarrenean, eta aurreko puntu guztiak kontuan hartuta, kuadrilletako euskara teknikariek garatzen dituzten funtzioen deskribapen orokorra egin da. Eta zazpigarrenean, atal honetan jasotakoarekin, kuadrillako teknikariek egindako lanen balorazioa osatu da, alegia, ataleko balorazioa.

Atal hau garatzeko oinarri hartu dira teknikariek 2009-2011 artean egindako lanen laburpen-txostenak. Eranskinetan jaso dira, eskualdez eskualde, 2012an egindako lanen memoriak.

## **11.1.EUSKARA PLANAK: EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA ETA ERABILERA PLANA**

### **11.1.1.EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN)<sup>23</sup>**

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) da Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, udalerrri edo eskualde bateko normalizazio lana garatzeko eskaintzen duen plan estrategikoa. Tokian tokiko plan estrategikoak osatzeko marko orokor bat eskaintzen du: esparruak, helburuak, adierazleak, estrategiak eta ekintzak. Egun, 10 dira EBPNaren marko orokorrak jasotzen dituen esparruak: familia transmisioa, euskalduntzea, irakaskuntza, administrazioa<sup>24</sup>, lan mundua, aisia, kirola, kultura, komunikabideak eta teknologia berriak.

---

<sup>23</sup> MENDIZABAL, P. (2012). Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

<sup>24</sup> EBPNren marko orokorrak "administrazio" atala jasotzen duen arren, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beste marko propio bat proposatzen du herri administrazioetan euskara normalizatzeko; izan ere, administrazioak baditu hainbat berezitasun plan estrategiko propio bat osatzeko. Administrazioetan euskara normalizatzeko planei (Erabilera Planak) buruz txosten honen 11.1.2 atalean sakontzen da.

Plan estrategiko hau dokumentu ireki eta malgua da; izan ere, etengabe egokitzeko sortu izan da, euskararen normalizazioan lanean diharduten eragileen ekarpenak jasoz. Plan honek euskararen aldeko politika gidatzeko eta euskalgintzan diharduten elkarte, talde eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko oinarritzko erreferentzia eta tresna izan nahi du.

EBPNren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikarako neurriak erabaki eta bultzatzea. Euskal Herrian maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Eusko Jaurlaritzak eskainitako marko orokor hau da Arabako kuadrilletako euskara teknikariek oinarri hartu dutena tokian tokiko plan estrategikoak garatzeko (oro har, IV. plangintzaldiko indarraldiko planak dira), baita urte bakoitzari dagokion Kudeaketa Plana osatzeko ere (lehen aipatutako plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko urtez urteko planak).

Hori guztia hobeto kudeatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bereziki sortutako aplikazio informatiko bat dago euskara teknikarientzat eskuragarri: IRATI aplikazioa. Plataforma horren erabilera ezinbestekoa bihurtu da euskara teknikarientzat EBPN diru-laguntza deialdian parte hartzeko<sup>25</sup>.

Aurrera begira, euskararen normalizaziorako marko estrategiko berri bat garatzen ari da: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, osatu duen plan berria. Oraindik ere indarrean sartu ez bada ere indarrean sartuko den marko orokor berria eskainiko du ESEPe, EBPNa ordezkatzuz.

Ondorengo ataletan jaso dira, EBPNren marko orokorra oinarri hartuta, eskualdez eskualde aktibatutako lan-ildo garrantzitsuenak<sup>26</sup>. Gogoan izan, Arabako kuadrillez<sup>27</sup>

---

<sup>25</sup> Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urtero argitaratzen duen diru-laguntza deialdia da, tokian tokiko EBPNan jasotako ekintzak garatzeko laguntza ematea duen deialdia.

<sup>26</sup> Atal hau osatzeko euskara teknikariek urtez urte egindako memoria txostenak hartu dira oinarri.

<sup>27</sup> Agurain, Aiara, Arabako Errioxa, Añana, Mendialdea, Zuia. Gasteizko Kuadrilla, sarrerako atalean esan bezala, ez da kontuan hartu egitasmo hau osatzeko.

gain, 2010etik Trebiñuko Konderriak ere osatzen duela Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea.

### AGURAINGO ESKUALDEA

Aguraingo eskualdean EBPNk eskainitako marko orokorra hartu dute hizpide euskararen normalizazioaren aldeko lana planifikatzeko. Gauzak honela, Aguraingo Kuadrillak (beste kasuetan bezala) bat egiten du EBPNren helburu nagusiarekin: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikarako neurriak erabaki eta bultzatzea. Euskal Herrian maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzeko. Kuadrillatik garatutako egitasmoetarako ez ezik, udaletan garatutako egitasmoentzat ere izan da hizpide Eusko Jaurlaritzak eskainitako marko orokorra. Kuadrillako EBPNan jasotako egitasmo aipagarrienak<sup>28</sup>, honakoak:

#### FAMILIA TRANSMISIOA

- *Esadazu euskaraz*. Gurasoentzako gomendio eta aholkuak jasotzen dituen idazkia; beti ere, kontuan hartuta guraso tipologia (biak euskal hiztunak, bietako bat edo biak erdal hiztunak).

#### AISIA, KULTURA

- Euskarazko literatura sustatzeko egitasmoa.
- Euskaraz lan egiten duten begiraleei zuzendutako ikastaroa.
- Arabako Kuadrilla arteko Bertsolarien Txapelketa.
- Barrian bertsolaritzari buruzko haur-barnetegia.

Aguraingo eskualdeko Euskara Zerbitzuak bestelako lan zehatzagoak ere kudeatu ditu, udalez udal garatu dituenak. Ondoren zehaztuko dira 2009tik eta 2011 bitartean, udalez udal garatutako ekintzarik aipagarrienak.

---

<sup>28</sup> Eskualde bakoitzeko egitasmo edo lanik aipagarrienak ordenatzeko EBPNren eragin esparruak oinarri hartu dira. Hortaz, hori izango da eskualde guztien lanak azaltzeko erabiliko den eskema.

AGURAINGO UDALA. EBPNa dagokion urteroko Kudeaketa Planak egin, garatu eta jarraipena egin. Horiei dagozkion memoriak egin. Udal Erabilera Planaren garapen eta jarraipena. *Berbalagun* egitasmoa. Ekitaldietan parte-hartzeko aurkezle euskaldunak identifikatzeko kanpaina. Bertso barnetegia. Bertso-eskola proiektua. Itzulpenak. Heldu, gazte eta umeentzako tailer eta lehiaketak. Euskararen astea. Harresi Aretoko eskaintza handitu.

ASPARRENAKO UDALA. EBPNa osatzea. EBPNa dagokion urteroko Kudeaketa Planak egin, garatu eta jarraipena egin. Horiei dagozkion memoriak egin. Udal Erabilera Planaren garapen eta jarraipena. Euskal ezkontza antolatu eta koordinatu. Euskararen aste antolatu eta koordinatu. Eskualdeko euskaltegiaren hitzarmenaren jarraipena. Udako udalekuak. Atsun elkartearekin hainbat egitasmo abian jarri. *Berbalagun* egitasmoa. Itzulpenak. Kuadrilla arteko bertsolarien txapelketak. Bertso eskola. Helduentzako euskarazko aisialdi programa. Udal ludotekan euskara sustatzeko programa. Kontratazioetan euskara probak egin.

BARRUNDIAKO UDALA. Erabilera Planaren garapen eta jarraipena. EBPNa egin eta onartzea. Itzulpenak. Langile euskaldunentzako formazioa. Udal hizkuntza irizpideak. Bertsolaritza tailerra. Umeentzako aisialdi programa. Udako udalekuak. *Berbalagun* programa. Toponimiari buruzko publikazioa. Euskara ikasteko beken kudeaketa. Euskararen antolaketa eta koordinazioa.

BURGELUKO UDALA. Euskararen eguna. Ludotekan eta gaztelekuan euskara sustatzeko ekintzak. Euskara ikasteko beken kudeaketa. Beste zerbitzuetako teknikariek koordinatu.

DONEMILIAGAKO UDALA. Erabilera Plana onartu eta garatu. Udal web orria itzuli. Herritarrei zuzendutako inprimakien itzulpena. Udal hizkuntza irizpideak definitu. Euskara ikasteko beken kudeaketa. Umeentzako antzerki tailerra. Itzulpenak.

DULANTZIKO UDALA. EBPNa dagokion urteroko Kudeaketa Planak egin. Erabilera Planaren gaineko komunikazio plana garatu. Udalean erabili ohi diren herritarrei begirako inprimakien azterketa. Udalaren hizkuntza irizpideak definitu. Itzulpenak. Euskararen aste antolatu. Kontratazioetan euskararen gaitasuna neurtzeko

probak. *Berbalagun* proiektua. Udako udalekuak. Aisian eta kulturaren euskararen presentzia hobetzeko hainbat egitasmo.

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA. Erabilera Planaren garapena. Langileen euskarazko gaitasuna hobetzeko ikastaroak. Herritarrek erabili ohi duten inprimaki eta dokumentu orokorren itzulpena. Udalaren hizkuntza irizpideak. Euskararen Eguna. Euskara ikasteko beken kudeaketa.

ZALDUONDOKO UDALA. Zalduondon *Bertxoko* kanporaketa. Bertso eskola abian jartzeko lanak. Euskararen astea antolatu eta koordinatu. Euskara ikasteko araudiaren azterketa eta horretarako diru-laguntzen kudeaketa. Itzulpenak.

### AIARAKO ESKUALDEA

Aiara, Artziniega eta Okondoko udalek, zeinek bere EBPN onarturik dute 4-5 urteko epealdirako. Bertan jasotzen dira, jardun-eremuka sailkaturik, aipaturiko epean lortu nahi diren helburuak eta horretarako garatuko diren ekimenak, beti ere urtez urteko kudeaketa planaren onarpenaren bidez. Segidako lerroetan jasotzen dira aipatu udalerrietako hainbat eremutan garatzen diren ekimenen eskema.

#### FAMILIA TRANSMISIOA

- Ume txikien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak. *Euskara Sehaskatik Plazara*: familietan haur bat jaiotzen denean, propio horretarako pentsaturiko produkturen bat oparitzen zaie, eta galdetegi bidez jasotzen diren nahi lituzketen aktibitate mota eta beste hainbati buruz dituzten lehentasunak.
- Gurasoentzako kasuan kasuko ikastaro bereziak, seme-alabekin edo gabe parte hartzeko: eskolako lanekin nola lagundu / euskal jolas eta kantuen tailerra / ipuin tailerra, e.a.

#### EUSKALDUNTZEA

- Irailean ikasturtearen hasieran, udalerrian bertan euskara ikasteko taldeak osatzeko kanpaina egin, kudeatu eta, talderik sortu bada, abian jartzen da ikastaroa. Euskaltegi iraunkorrik ez duten udalerrri txikietan oso garrantzitsuak



dira kanpaina hauek, horien bidez lortzen baita euskararen etorkizunerako lehentasunezkoak diren hainbat taldek ikasketari ekitea (ume txikiak dituzten etxeoandreak, e.a.), horretarako neurrira diseinaturiko ikastaroak eskaintzen zaizkie, beste gauza batzuen artean. Kanpaina hauetan Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak, Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera egindako publizitate-materialak ere erabiltzen dira; beti ere, eskualdeari egokitutako informazioarekin.

- Euskara ikasteko udal beken kudeaketa. Udal guztiek dute bere beka-sistema propioa.
- *Berbalaguna* programaren kudeaketa. Programa hau euskararen nolabaiteko ezagutza duen jendeari zuzentzen zaio, eguneroko erabilera indartzeari begira (astero euskara praktikatzeko taldeak osatzen dira, eta aisia zein kultura arloko aktibitate osagarriak antolatzen dira eskualdeko gainerako udalekin koordinazioan, e.a).

#### IRAKASKUNTZA

- Eskolen matrikulazio-aldian, udalek udalerriko eskolarekin batera parte hartzen dute publizitatea egiten: gutun eta foiletoan bidalketa, kartelak, eskualdeko irratietan iragarkiak, e.a. (udalerrri hauetako eskolek D eredua edo B indartua dute).
- Eskolengan propio pentsatutako hainbat ekimen antolatzen dira (*Gu ere Bertsolari* programa, *Euskararen Nazioarteko Eguna*, *Korrika*, e.a).
- Udalek eskoletako Ikasleen Guraso Elkarteei (IGE) diru-laguntza ematen diete euskarazko eskolaz kanpokoan programa gara dezaten (asteroko aktibitateak, egonaldiak, e.a.)
- Udalerrri guztietan abian dauden Euskararen Aholku Batzordeetan eskolen eta guraso elkarten parte hartzea bermatzen da. Aiara Udalerrriaren kasuan gainera, Hogeitalau Euskara Elkartearekiko koordinazioa bermatzen da.

## LAN MUNDUA

- Doako hizkuntza arloko zerbitzuen eskaintza (itzulpenak-zuzenketak-aholkularitza) merkatari eta ostalarientzat.
- Aiaraldeko merkatari eta ostalariekin aurretiako lanketa, horien establezimenduetan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeari begira. Gutxieneko baldintza batzuk betetzen dituztenak (zerbitzua euskaraz ere emateko ahalmena), eskualdeko euskararen gidan agertuko dira

## AISIA

- Kultura Arlotik prestatzen diren Udalekuetan euskararen erabilera bermatzeko eta hobetzeko laguntza eman.
- Aisialdiko egonaldiak antolatu: *Bertso-Abentura*.
- Euskal kulturaren sustraituriko ospakizunak indartzea (Inauteriak, Olentzero...). Euskal kultura eta hizkuntza suspertzen duten ospakizunetara irteerak antolatu, eta horrelako ekimen zein ospakizunak antolatu (irteera Durangoko Azokara, Araba Euskaraz, Korrika, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu udalerrietan...). Udalerri bakoitzak bere euskararen aldeko ekimen berezia prestatzen du urtero (Euskararen Eguna Aiaran, Euskararen Astea Artziniegan, Okondo Euskaraz Okondon), eta eskualde mailan *Euskara Mihian* izeneko eguna.
- Udalerri bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitutako urteroko programazioa prestatu, haur-ume-gazte-helduentzat. Eskualde mailako programak (euskararen jaia, gazteentzako motibazio-saio irekiak edo eskolen bidez bideratuak, pertsonaia garrantzitsuren baten inguruko jardunaldia (*Lazarraga*), e.a.

## KULTURA

- Hizkuntza-Paisaia (udalerrietako mapa toponimiko-topografikoak egitea Euskaltzaindiaren parte hartze eta bermearekin, horrela, toponimoak modu

zuzenean erabiliko direla ziurtatzeko: izenak finkatu, zabaldu eta, oro har, ondare inmaterial horren guztiaren erabilera zuzena bultzatu.

- Urtero Euskarazko Produktuen Katalogo bat zabaltzen da, horrela, euskarazko produktuak hobeto ezagutu eta gehiago kontsumitu daitezten.

#### KOMUNIKABIDEAK

- Abian jarritako programak, deialdiak, etab. zabaltzeko udalerriko komunikabideen erabilera sistematikoa (*Saraube* aldizkaria, *Artziberri*, udalek eskualdeko irratietan dituzten denbora-tarteak...), baita eskualdeko komunikabideena (*Aiaraldea.com*, *Aiara Irratia*, *Laudio Irratia...*), eta Arabako Foru Aldundiaren *Euskaraba* atariarena.

#### TEKNOLOGIA BERRIAK

- Oraindik gure instituzioetako web gehienetan euskararen presentzia behar adinako ez den arren, ahalegin garrantzitsua egiten da, bai presentzia hori hobetzeko, bai euskararen sustapena helburu duten proiektuak zabaltzeko tresna eraginkorrak bihurtzeko.

#### ARABAKO ERRIOXAKO ESKUALDEA

Kuadrillako euskara zerbitzuak 2009ko irailean hasi zuen bere zeregina eta irailetik urte amaiera bitartean EBPN 2010-2013 eta indarraldi bereko entitatearen Erabilera Plana osatu eta onartzeko beharrezkoa zen informazioa jasotzeko lan egin zen, batez ere. Hori guztia, euskararen eragileen laguntzaz (besteak beste, euskaltegia, ikastetxe eta elkarteak) eta bestelako eragile instituzionalen laguntzaz (udalak) egin zen. Ekintzarik aipagarriena izan zen Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizun bateratua; orain arte Ttiki-Ttaka elkarteak<sup>29</sup> besterik kudeatzen ez zuen ospakizuna eta hortik aurrera, eragile sozial eta instituzionalen elkarlanerako esparru batean bihurtu da. Jarraian zehaztuko dira, esparruz esparru, 2010 eta 2011n garatutako egitasmorik aipagarrienak.

---

<sup>29</sup> Eskualde osorako 1992. urtetik euskararen normalizazioaren alde lanean ari den elkartea.

## FAMILIA TRANSMISIOA

- *Euskara eta Ni*. Arabar Errioxa Irratian hilero egin ziren euskarari loturiko elkarrizketak, ikastolen hastapenetan egondakoei, lehenengo belaunaldietan parte hartutakoei, helduen euskalduntze prozesuan parte hartutakoei eta belaunaldi berriei. Hori guztia euskarak bizi duen egoeraren gaineko ikuspegi orokor bat emateko: iragana, oraina eta etorkizuna. Urte amaieran egindako elkarrizketa guztiekin bilduma bat osatu eta banatu zen.
- Umeen zainketa eta klase partikularrak euskaraz emateko zerbitzuak. Arabako Errioxan umeen zainketarako eta klase partikularrak euskaraz emateko eskaria eta eskaeraren arteko koordinaziorako gune bat osatu.

## EUSKALDUNTZEA

- *Zer moduz?* Erdal hiztuna euskarara erakartzeko sentsibilizazio eta motibaziorako proiektua. Oinarrizko euskara ikastaroak ematen dira gaur egun ere Arabar Errioxa Irratia bitartez; ikasgai horiek Kuadrillarena den Berberana hilabetekarian jaso ohi dira. Ikasturte osoan emandako ikasgaien bilduma osatu izan da, eta baita euskaraz dakiten eta ez dakitenentzat egingarriak diren euskararekiko konpromisoak jaso eta zabaldu ere.
- Euskaltegietako matrikulazio kanpaina. IKA Errioxa euskaltegiarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin elkarlana, matrikulazio kanpaina osagarriak abian jartzeko.
- *Mintzalaguna* proiektua. Topagunea elkartearen federazioarekin batera abian jarriko da matrikulazio kanpaina. Era berean, euskara teknikariaren parte hartzea eskatu da proiektu honen jarraipenerako osatuko zen batzordean. Planteamendu honekin eta aurrera begira euskara zerbitzutik planteatuko diren ekintza osagarriak, egokiagoak izango zirela aurreikusten zen.

## IRAKASKUNTZA

- *Gu ere bertsolari* Arabako Errioxan

- Eskola-aldizkaria sortzeko lehiaketa. Igo edizioaren amaiera eta II.aren proposamena. Ez da III. lehiaketarik antolatu.

#### LAN MUNDUA

- Arabako Errioxako merkataritza plana. Oyón-Oiongo udalerrian esperientzia pilotu bezala abian jartzeko eta merkataritza eta ostalaritzan paisaia linguistikoaren aldaketa irizpide zuen egitasmoa. Baliabide nahikorik ez izateagatik bertan behera gelditu zen. Nolanahi ere, esparru honi dagokion Oiongo diagnosi orokorra egin zen.

#### AISIA, KULTURA

- Arabako Errioxako bertso-eskola.
- Arabako Kuadrilla arteko I. Bertso txapelketa.
- Euskararen Nazioarteko Eguna. Ospakizun bateratua 2009tik hona egin izan ohi den bezala. 2010ean egun horri begirako ekintzak antolatu ziren (lipdub lehiaketa eta egun hori iragartzeko kartel lehiaketa), baita egunean bertan abian jartzeko ekintzak ere. Azken hori izan da gaur egun arte nagusitu eta erabili izan den eredu: egun hori heldu bitarteko ekintzak eta egunean bertan garatzekoak.
- Zineforuma.
- Euskarazko materialaren mailegu zerbitzua. Elkartea, euskaltegi eta udalei zuzenduriko zerbitzu honen helburua da aisialdi eskaintzan euskararen presentzia hobetzeko baliabideak erraztea.
- Aisialdi zirkuitua 2011. Ordura arte udalek modu indibidualean eskainitako emanaldien multzoa (ipuin kontalariak eta antzerkiak, besteak beste), egiten zenari jarraikortasun eta osotasun bat emateko.

## KOMUNIKABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

- *Euskararen orria*. Berberana hilabetekarian doan orrialdean Arabako Errioxan euskaraz edo euskararen gaineko ekimenen berri ematen du.
- *Euskara maite dut* pegatinen banaketa. Urteko momentu jakinetan pegatina hauen banaketa egiten da, besteak beste, herrietako jaietan edota Euskal Kultur Asteburua eta mahats-bilketaren festa bezalako ospakizunetan. Proiektu honen bitartez, Arabako Errioxako euskaldun eta euskaltzaleen komunitatea sendotu nahi da, komunitate jendetsua dela adierazi, ospakizun hauetan euskararen presentzia bermatu eta EBPNren definizio eta dinamizazio lanaren atzean dagoen *Arabako Errioxako Euskaltzaleak eta Euskara Zerbitzua* lantaldearen irudia zabaldu.
- Euskaraz edo euskararen inguruko ekitaldien berri emateko zerbitzua. Helburu honekin, hala nahi zuen ororen posta elektronikoa jasotzeko kanpaina abian jarri zen. Gauzak honela, Arabako Errioxan euskaraz edota euskararen inguruan egiten diren gauzen berri eman edota jasotzeko, Kuadrillako euskara zerbitzua erreferente sendoa bihurtzen ari da. Gaur egun, 370 pertsona baino gehiagok eman dute izena informazioa jasotzeko zerbitzu honetan.

### AÑANAKO ESKUALDEA

Añanako eskualdean bi motako ekintzak garatzen dira eskualdean euskararen sustapen eta normalizaziorako: batetik, udalek antolatzen dituzten egitasmoak; eta bestetik, kuadrillak berak antolatutakoak. Aurrera jarraitu baino lehen, esan beharra dago, Añanako eskualdean bost teknikari soziokultural daudela, hainbat herritarako lan egiten dutenak (teknikari horiek Añanako eskualdeko udalak banatuta dituzte, hau da, eragin esparru geografikoa definituta dute). Teknikari horien bitartez garatzen dira, oro har, euskara normalizatzeko ekintzak. Haiekin batera aztertzen da urteko plangintza eta gabeziak sortzen diren esparru edota udalerrietan kokatzen dira kuadrillako euskara zerbitzutik antolatutako ekintzak. Jarraian jasoko dira kuadrillako euskara zerbitzuak hainbat eremutan garatzen dituen ekimenen eskema.

#### FAMILIA TRANSMISIOA

- B eta D ereduetan ikasten ari diren umeen gurasoei zuzendutako hitzaldi eta tailerren antolaketa, elebiduntasunak dituen abantailak ezagutu ditzaten.

#### EUSKALDUNTZEA

- *Euskaltegi* programa. Horren bitartez sortu ohi dira hainbat udalerritako euskara ikasteko taldeak. Horien artean: Valdegovia, Lantaron, Berantevilla, Iruña Oka, Erribera Goitia eta Kuartango. Euskalduntzeari dagokion guztian parte hartzen du euskara zerbitzuak, besteak beste, matrikulazio kanpainak, taldeen sorrerak, taldeen mailakatzea eta diru-laguntzen kudeaketa. Matrikulazio kanpaina udalen eta eskualdean dauden Lehen Hezkuntzako eskolen bidez bideratzen da, baita institutuaren bitartez ere.

#### HEZKUNTZA

- Eskualdeko eskola eta institutuarekin batera, hezkuntza arloan zeuden gabezi eta indarguneen azterketa bideratu zen hasieratik horiei, inplikaturako eragile guztien artean, aurre egiteko.
- Bestelako ekintza puntualak egin dira esparru honetan. *Gu ere bertsolari* egitasmoa, Añanako eskualdeko umeentzako I. eta II. ipuin lehiaketak (eskolen artekoa, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako umei zuzendutakoa) eta DBHko maila guztiei zuzendutako ekintza erakargarriak (komiki digitalaren aurkezpena edota *Mendi Film Festival*-eko hainbat proiektzio eta hitzaldi).

#### LAN MUNDUA

- Añanako Kuadrillako euskara zerbitzuak hainbat lan poltsa osatu ditu denbora guzti honetan zehar. Horien helburua da eskualdeko euskal hiztunak identifikatu, aurrera begira, zerbitzu horien beharrik duenari helarazteko. Langile horien artean: kiroleko begiraleak, aisialdi begiraleak, udalekuetako begiraleak eta umeen zaintzarako pertsonen zerrenda.

## AISIA, KULTURA

- Eskualdeko udalerrri guztietan, uda sasoian, udaleku irekien eskaintza egiten da, baita horrekin erlazionatuta dauden lan guztiak garatu ere. 2010 eta 2011n Erribera Beitiako eta Zanbranako Udalerrietan eraman dituzte aurrera udaleku irekiak. Horien helburua da uda sasoiko oporraldian, horretarako aukerarik izan ohi ez duten umeei, euskaraz hitz egiteko aukerak eskaintzea; izan ere, oro har, familia erdalduneko ikasleak daude eskualdean. Bi asteko udalekuak proposatu ohi dira: lehenengo astea Erribera Beitian, Rivabellosan eta bigarren astean Zanbranan. Udaleku hauei buruzko gurasoen balorazioa oso positiboa izan da. Izan ere, lehen esan bezala, familia transmisiorik ez dagoen familietan proiektu mota hauen garrantzia berebizikoa da; are gehiago, horren eskualde erdaldun batean.
- Aisia eta kultura uztartzen dituen *Barnetegi* proiektua da esparru honetan eskaintzen den bigarren aukera bat. Umeei zuzendutako egitasmo bat da eta horren helburua da eskolara bueltatu baino aste batzuk lehenago euskaraz bizitzeko aukera ematea. Zugarramurdin bost eguneko egonaldia proposatu zitzaion umeei lehenengo urtean eta, batzaz beste, 39 umek parte hartzen dute. Udako oporraldi luzearen ostean, abuztuaren azken egunetik eta irailaren lehenengo astean zehar, egitasmo honetan parte hartzen duten umeen euskarazko gaitasuna lantzen da, hizkuntzaren parte ludikoa azpimarratuz, eskolarako bueltan horrenbeste alderik ez egoteko (euskararen gaitasunari dagokionez). Orain arteko esperientzia oso positiboa izan da eta umeen gaitasuna lantzeaz gain 6-12 urte bitarteko umeen arteko harremanak (sarea) landu ditu egitasmo honek. 2011n Pasaiaiko "Piraten Etxean" garatu zen egitasmo hau.
- Lehen aipatutako bi egitasmo horien balorazioa eta emaitza horren ona izanik, gurasoek, oro har, aisialdian eta umeen oporraldian euskararen gaitasuna lantzeko egitasmo ludiko gehiago eskatuz joan dira.



## MENDIALDEKO ESKUALDEA

Kanpezu-Arabako Mendialdea Kuadrillak 2008. urtean onartu zuen bere EBPNa. Euskara teknikariaren<sup>30</sup> zereginetako bat izan da, horren dinamizazio eta jarraipena egitea, bestelako eragileekin elkarlanean. Era berean, Kanpezuko Udalak onartu berri duen EBPN propioa definitu eta onartzeko lanak ere gidatu ditu. Mendialdeko eskualdeko euskara zerbitzuak eskualde osorako euskarazko eskaintza du helburu. Nolanahi ere, tokian tokiko lanak ere burutzen ditu. Ondorengo lerrootan zehaztuko dira bertako euskara zerbitzuak orain arte landutako lan-ildoak, esparruka.

### FAMILIA TRANSMISIOA

- Guraso berrientzako gida osatu da. Bertan jaso izan dira bikote moten araberako gomendio eta aholkuak. Horrez gain, gurasoentzako material egokia ere osatu eta banatu da (jolasak, kankak, aholku liburuxka, e.a). Programa honen helburua izan da guraso berriengana gerturatzea elebiduntasunak duen balio erantsi eta garrantziaz ohartarazteko.
- Ikastetxe eta kuadrillaren beraren laguntzaz, euskarazko produktuen katalogoa banatu da.
- Familia transmisioan lagundu zezaketen oporraldietako (Aste Santuan, udan, gabonetan...) aisialdi eskaintzaren berri eman izan zaie gurasoei ikastetxeen bitartez banatutako *Euskararen Orriarekin*.
- Bestelako ekimenak ere abian jarri dira esparru honetan: *txio* lehiaketa, edota jolas eta kantu txapelketak.

### EUSKALDUNTZEA

- Udalek antolatutako euskarazko klaseak, bertako biztanleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko.
- Matrikulazio kanpainak.

---

<sup>30</sup> 2009tik hona Mendialdeak bi euskara teknikari desberdin izan ditu. 2010ean lanean hasi zen gaur egungo teknikaria. Hasierako euskara teknikaria, gaur egun, Trebiñuko Konderriko euskara teknikaria da.

- Eskolak emateko irakasleen lan-poltsak osatu.
- Kuadrilla eta IVAPen arteko hitzarmena sinatu bertako langileek euskarazko klaseetara joan ahal izateko.
- Etorinentzako euskara klase bereziak.
- *Mintzalagun* programa abian jartzeko behar izan diren lanak (matrikulazio kanpaina edota taldeak osatzea).

#### IRAKASKUNTZA

- Bertsolaritza kulturaren ildo garrantzitsu bat izanik, ikastetxeen bitartez *Gu ere bertsolari* garatu izan da, bertsolaritza ezagutu eta bertsozaletasuna zabaltzeko.

#### LAN MUNDUA

- Ostalaritza esparruko eragileekin lan egin esparru honi dagokion diagnostika osatu eta gabeziei aurre egiteko baliabideak eskaintzeko.
- Arabako Foru Aldundiarekin batera, merkatari eta ostalariei euskarriak eskaini esparru honetan euskarak presentzia handiagoa izan dezan.

#### AISIA

- Haurrentzako aisialdi eskaintza, bereziki, oporraldian. Ikasturte batetik besterako tartean umeen euskarazko gaitasunean positiboki eragin, familia transmisioan egon litezkeen hutsuneak, neurri batean, betetzeko.
- Aisialdiari dagokionez, baliabideen zerrenda osatu: begiraleen, haur-zaindarien eta irakasleen lan-poltsak osatu.
- Euskarazko aisialdian garatu izan diren ekintza guztien komunikaziorako plan berezi bat osatu eta garatzea.

## KIROLA

- Esparru honetan euskararen presentzia hobetzeko egitasmo zehatzak abian jarri dira. Horrez gain, euskarak aldikako ohar, kartel eta antzekoetan ere presentzia izateko itzulpenak landu dira.

## KULTURA

- Euskararen Nazioarteko Eguna hizpide izanik, eta euskararen prestigio eta lidergoa lantzeko, Kuadrillako Batzarrak onartutako adierazpen instituzionala.
- Bestelako ekimen zehatzagoak ere garatu izan dira, besteak beste, liburuaren eguna, zinema euskaraz eta bertso saioak.
- Mendialdean lanketa berezia egin da toponimiarekin; izan ere, euskal toponimo asko dago inguru horretan. Lanketa hori hitzaldien eta mapa toponimikoaren bitartez egin da. Horrekin lortu dena izan da adieraztea euskara bertako hizkuntza izan dela aspalditik.

## ZUIAKO ESKUALDEA

Kuadrillako zerbitzua izaki, eskualdeko ikuspegia izan du, sortu zenetik, euskara zerbitzuak. Ikuspegi hori presente egon da beti antolatu diren proiektu eta ekintzetan, baita burutu den gestioan ere. Zerbitzuaren kudeaketa-lanak Zuiako Kuadrillako EBPNaren inguruan egin dira nagusiki. Zuiako kasuan, kuadrillako dinamika esparrutan banatu dute, eta normalkuntza ekintzak proposatu dituzte esparru bakoitzerako. Azken finean, proposatzen dena eta koordinatu eta antolatu batean egiteko bidea ematen du EBPNak. Marko horren barruan kokatu dituzte Zuian antolatutako ekintza eta jarduerak. Hori izan da erabakiak hartzerako orduan erabilitako markoa. Bide horretan, eta Euskararen Aholku Batzordearen eta EBPNaren plan estrategikoan erabakitakoari jarraiki, esan daiteke aisia, kulturgintza edo euskalduntze alfabetatzea izan direla lehenetsitako esparruak. Bide horretan, Euskara Zerbitzuak markatu ditu norabide zehatz batzuk, urteetan izan duten arrakastari eta unean uneko beharrei erantzunez.

## EUSKALDUNTZEA

- Euskalduntzen ari diren taldeentzako ekintza osagarriak. Zuiako eskualdean, azken urteetako goranzko joerari jarraiki, gero eta gehiago dira euskara eskolak jasotzen dituzten taldeak, eta baita 2009an lehenengoz martxan jarri zen *mintzalagun* programaren barruan dauden taldeak ere. Euskara elkarten eta euskaltegien ekimena bada ere, erakunde publikoentzat interes bereziko guneak dira hauek, euskalduntze-lanetan duten potentzialitatea kontuan hartuta. Talde hauekin, eta berauetako eragileekin elkarlanean, garatzen duten jarduerarekiko ekintza osagarriak antolatzeke konpromisoa hartu zuen Zuiako Kuadrillak 2010ean, eta hala antolatzen jarraitu du gaur arte ere. Garrantzitsua da euskarak noranahiko zentzua izatea, klaseetatik edo egituratutako taldeetatik atera eta bestelako testuinguruetan erabiltzeko aukerak ematea.

## AISIA

- Aisialdia euskalduntzeko ekintzak. Umeen aisialdia euskalduntzeko urtean zehar antolatzen diren ekimenek badute ardatz bat: urtero antolatzen den Umeen euskararen eguna. X. edizioa izan du 2011n, eta urtetik urtera indartzen doan ekintza da. Euskararen erabilerari bultzada bat emateaz gain, eskualdearen kohesioa ere laguntzen du, udalerrri guztietako umeen elkargunea baita.

## KULTURA

- Bertsolaritzaren sustapena. Gaur egun, euskararen presentzia urria den eremu soziolinguistikoetan, bertsolaritzak funtsezko papera jokatzeko normalizazio lanean. Askotan eragiteko zailak izan ohi diren esparruetan eragiteko aukera ematen du, gainera: ume, gaztetxo eta gazteengan eragiteko tresna erabilgarria da gaur egungo bertsolaritza. Hizkuntza modu erakargarrian, bizian erabiltzeko aukera eskaintzen die euskararekin (askotan) lotura akademikoa besterik ez duten hiztunei. Zuiako Kuadrillako euskara zerbitzuak aspaldi egin zuen bide honen aldeko apustua, eta konpromiso horrek erakutsitako fruituak onak izan dira: Gorbeialdeko bertso-barnetegia antolatzen du urtero, asistentzia eta

balorazio bikainarekin; 2010ean Kuadrilla arteko bertso txapelketa antolatu zenean, parte hartze zuzena izan zuen Gorbeialdeko bertso-ligan; eskualdeko bertso eskolekin duen lotura konstantea da.

Dena dela, ez da ahaztu behar EBPNa programa integrala dela, eta gizartea bere osotasunean hartzen duela. Gainontzeko esparruetarako ere proposatu dira ekintzak: merkataritzan (komertzioetako paisaia linguistikoa euskalduntzeko kanpaina), kirolean (*Kirola Euskaraz* jardunaldiak), beste batzuen artean.

Kuadrillaz gain, Zuia, Urkabustaiz eta Zigoitiko udaletako euskara sustatzeko ekintzak ere bere gain hartzen ditu euskara zerbitzuak. Udal bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, eta funtzionamenduan aldaketak daude batetik bestera. Euskara zerbitzuak udal bakoitzean duen dedikazioan ere aldaketak egon ohi dira, unean uneko proiektuen arabera. Hona, modu orokorrean, hiru udalerrietan orain arte egindako lanaren nondik norakoak:

**ZIGOITIKO UDALA.** 2009an diseinua egin eta gero, udalerriko EBPNa jarri zen martxan 2010ean. Aurrez normalkuntzaren testuinguruan zeuden hainbat ekintzari berriak gehitu zaizkie, batez ere EBPNa diseinatzerako orduan horretarako bereziki eratutako batzordean erabakitakoak kontuan hartu direlako. Era honetan, Zigoitia Euskaraz edo Mihiluze lehiaketa bezalako tradizio luzeko ekintzei guraso erdaldunentzako hitzaldia, komiki mutuaren eta haurrentzako ipuinen lehiaketa, administrazioko erabilera planeko identifikazio-mahaigainekoak... gehitu zaizkie. Honek guztiak udalerriko euskararen sustapenerako ekintzak modu ordenatu eta kohesionatuago batean egitea ekarri du, eta baita urtetik aurrera dauden gabeziak modu argiago batean ikustea ere. 2011n zehar jarraipena eman zaio dinamika honi, eta gehiago sakondu dira herriko gainontzeko kultur-elkarteekin hasieran finkatutako harremanak.

**URKABUSTAIZKO UDALA.** Urkabustaizen kasuan, 2010a izan da EBPNaren diseinua egiteko urtea. Modu lasai eta jarraitu batean egin da lan hau urte osoan zehar; lehenengo fasean diagnostikoa eta neurketak eginez, bigarreanean herriko eragile eta elkarten batzordea sortu eta bilduz eta hirugarrenean edukiak erabaki eta txukunduz. Prozesu parte hartzailea eta aberatsa izan da, eta normalkuntza-

ekintzen inguruko erabakiak hartzeaz aparte, euskara zerbitzuaren funtzioak ere definitu ditu, hein handi batean. 2011n jarri da martxan EBPNa, eta horrek nobedadeak ekarri ditu euskararen normalizazioa sustatzeko ekintzetan: besteak beste, *Bularretik Mintzora* egitasmoa jarri da martxan herri eskolarekin eta udal liburutegiarekin koordinatuta.

Guzti honetaz gain, Urkabustaizen orain arte egin diren ekintzen kudeaketaz ere arduratu da euskara zerbitzua. Urkabustaiz Eguna, euskarazko hitzaldi zikloa, bertso eskolaren eta *Gu ere bertsolari* programaren koordinazioa, e.a.

ZUIAKO UDALA. Zuiako udalerrian euskararen normalkuntzaren bidean antolatzen diren ekintzak euskara batzordearen erabakien bidez antolatzen dira. Bertan hartzen dute parte euskara zerbitzuak, kultura eta gizarte sustapen zerbitzuak, Bidabarri euskara elkarteak, Zuiako gau eskolak eta udaleko ordezkari politikoeak. Maiztasun finkoko bileren bidez urte osorako planaren zirriborroa egin, eta bertan aurreikusitakoak betetzen joaten dira. *Zuia Euskaraz* egunak (ahalegin handia egiten da euskararen aldeko motibazio eta inplikazioa pizteko helburua duen jai honetan) dakarren lanetik aparte, hitzaldiak, kartel lehiaketa, e.a izan dira urtetik urtera mantendu diren ekintza nagusienak.

### TREBIÑUKO KONDERRIA

Trebiñuko Konderriko eta Argantzungo udalerrietako Euskara Teknikaria 2010eko azaroan hasi zen lanean<sup>31</sup>. Lanaldi erdiko kontratazioa da, bi udaletan banatuta. Bere eguneroko zeregina hainbat eremutan garatzen du, betiere euskara gizartean normalizatzeko helburua izanda.

- Trebiñuko barrendegiko udalerrri bietako ordezkariak, Euskara Teknikaria kontratatu zutenean, Udalbatzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu beharko zuela ontzat hartu zuten. Plan horrek euskararen normalizaziorako ardatz eta ildo nagusiak definituko ditu 2011-2015 epeari begira. Euskara teknikariak Plana burutu du, tokiko agente garrantzitsu batzuen

---

<sup>31</sup> Lehen azaldu bezala, egungo Trebiñuko Konderriko euskara teknikaria, hori baino lehen, Mendialdeko Kuadrillako euskara teknikaria izan zen.

(besteak beste, zinegotziak, elkarteak eta pertsona adituak) partaidetzarekin. Sistema honek, EBPN adostua bermatzeaz gain, euskararen aholku batzordea (Udalez gaindiko erakundea) sortzeko abiapuntu bikaina izan da. Batzorde horrek, hain zuzen ere, Plana ondo bete dadin lan egiten du. Esan behar da Udal biek EBPN delakoa epearen barruan eta aho batez onartu izan dutela, eta onarpena ezinbesteko baldintza zen Arabako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuak atera ohi dituen diru-laguntzak (normalizaziorako jarduerak egiteko eta ikaskuntzarako) eskatu eta eskuratu ahal izateko. Lan orokorrez gain, udaletan hainbat lan propio burutu ditu bertako euskara teknikariak.

- Trebiñuko Konderriko Udalaren Euskara, Kultura eta Kirol Batzordearen ohiko bileretan parte hartzea.
- Trebiñuko Konderriko Udalaren web orrialdean euskara arloa sortzea. Arlo horretan zenbait gai interesgarri plazaratzen da, esate baterako helduak euskalduntzeko ikastaroei buruzko informazioa, lehiaketei buruzkoa, *Euskarabara* jotzeko esteka, e.a.
- Euskara Teknikariak euskaraz sortutako liburuak eta bestelako materialak lortu eta banatu ditu, zenbait erakunde publikoren emariei esker. Material guztia udal gune publikoetan banatu da, alegia, liburutegi publikoetan, eskola-liburutegietan, ludoteketan, haurreskolan eta abarretan.
- Euskararen erabilera sustatu eta sendotzea udalerrri bietako udakanpalekuetan: Gurasoen Elkaratekiko batzarrak, begiraleekikoak, hizkuntza-irizpideak finkatu, euskararen benetako presentziari buruzko azterketa egin, e.a.
- Trebiñuko Ikastetxe Publikoko ikasleei emandako eskolaz kanpoko euskara-eskolak: Ikastetxe honek Trebiñuko Konderriko haur guztien erdia inguru biltzen ditu, baina Gaztela-Leongo hezkuntza-sarean sartuta dagoenez ez du euskararen presentzia minimoena azaltzen. Hau horrela delarik, eta gurasoek hala eskatuta, ikastetxean ohiko eskolaz kanpoko euskara-eskolak eskaintzen dira. Euskara Teknikariak eskola horiek antolatzeko, kudeatzeko eta

gainbegiratzeko ardurak ditu. Ikastetxe honetan euskararen presentzia neurri batean mantentzea oso oso funtsezkoa da, batik bat euskararekiko sentsibilizazio aldetik, hala ikasleen sentsibilizazioari dagokionez nola irakasleena edo gurasoena. Zentzu honetan teknikariak eskolaz kanpoko ikasleen partaidetza bultzatu zuen *Gerardo Lopez de Guereñu* izeneko lehiaketan, lurraldeko euskal hizkerari eta toponimiari buruzkoa, eta ikasleek bigarren saria lortu zuten. Eskolaz kanpoko irakasleak berak ere sutsuki lagundu zuen lanean.

- *Korrika 2011*: Korrika 2011 Trebiñutik bertatik abiatu zen, eta gertaera garrantzitsu honek lan ugari eskatu zion Euskara Teknikariari: koordinazioa, bitartekaritza, publizitatea eta gestioa.
- Euskara teknikaria barrendegiko Udal bien ordezkari aritu zen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailak burutuko duen hurrengo soziolinguistika-azterketan udal biak kontuan har ditzan. Politika Sailak baiezkua eman zuen eta azterketa horretan Trebiñuko udalerrri biak sartuko ditu. Honek oso datu interesgarriak emango dizkigu gaur egun euskarak Trebiñun duen egoera jakin ahal izateko. Dagoeneko, argitaratuta dago aipatutako lan hori<sup>32</sup>.

### 11.1.2.ERABILERA PLANAK<sup>33</sup>

Erabilera Planak dira herri administrazioetan hizkuntzaren normalizazioa lortzeko plan estrategikoak. EBPNren kasuan bezala, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak marko orokor bat eskaintzen du tokian tokira egokitutako normalkuntza planak garatzeko. Marko orokor horrek, esparruak, helburuak, aldagaiak, estrategiak eta ekintzak hartzen ditu bere baitan. 12 dira marko horrek bere baitan hartzen dituen esparruak: hizkuntza gaitasuna, ahozko komunikazioak, idatzizko komunikazioak, itzulpenak, langileen prestakuntza orokorra, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet sareak, argitalpenak, hizkuntza paisaia, iragarpen, publizitate eta kanpainak, diru-laguntzak eta kontratazio administratiboak.

<sup>32</sup> EUSKO JAURLARITZA (2012). *Trebiñuko enklabea. Azterketa soziolinguistikoa 2012*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

<sup>33</sup> ARAKAMA, J.M (2012). Euskararen erabilera planak herri administrazioetan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.



Plan estrategiko hau malgua da; izan ere, tokian tokiko administrazioek zehazten dute, marko orokorretik landuko dituzten esparruak; beti ere, 86/97 Dekretuak zehaztutako gutxieneko helburuak lortze aldera.

Erabilera planek Eusko Jaurlaritzak zehaztutako plangintzaldien indarraldia izan ohi dute. Plangintzaldiak dira bost urteko indarraldia izango duten planen oinarria. 86/97 Dekretuaren 5. atalak zehazten duenez, *"hizkuntza normalizatzeko jarduerak denboran barrena antolatu ahal izateko, bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko dira"*. Gaur egun indarrean dagoen plangintzaldia bosgarrena da. Ondoren, orain arteko plangintzaldien zerrenda eta bakoitzaren indarraldia:

- Lehenengo plangintzaldia (1990-1995)
- Bigarren plangintzaldia (1997-2002)
- Hirugarren plangintzaldia (2003-2007)
- Laugarren plangintzaldia (2008-2012)
- Bosgarren plangintzaldia (indarrean)

Lehen aipatutako Dekretu bereko 9. atalean jasotzen da entitateek plangintzaldi hasieran beren erabilera planak onartuko dituztela *"Euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzarako planak onartuko dituzte plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, eta horrelakorik onartuta duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak, planaren inplementaziorako egoki derizkioten aldaketak lanpostu-zerrendan jasoko direlarik"*.

Horren guztiaren kudeaketa egiteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak IRATI deitutako tresna informatikoa sortu zuen duela urte gutxi. Kuadrilletako euskara teknikariek aplikazio hori erabiltzen dute.

Kuadrilletako euskara teknikarien zereginetako bat da bakoitzaren eraginpeko entitateen erabilera planak osatu, onartu eta abian jartzea. Gaur egun, plangintzaldi berri batean egonda, hain zuzen ere, bosgarrenean, euskara teknikariek egin beharrekoa esparru honetan da 2017a arteko erabilera planen plan estrategikoak

onartzea eraginpeko administrazio guztietan (udalak, kuadrillak eta, kasu batzuetan, ur partzuergoak). Plan estrategiko horiek guztiak onartzeak ondo planifikatutako eta diseinatutako lana eskatzen du. Zentzu horretan, indarrak batu eta teknikarientzako estrategia komunak definitzeko Arabako euskara teknikariek osatutako lantalde bat eratu da; bertan parte hartzen dute Euskararen Foru Zerbitzuko teknikariek, udal teknikari batek eta zenbait kuadrilletako euskara teknikariek. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikari baten parte-hartzea ere aurreikusten da beharrezkoak diren azalpen teknikoak argitu eta bidean laguntzeko.

Gaur egun, Arabako kuadrilla guztiek dute beren Erabilera Plana onartuta eta abian. Baita udalen gehiengoak ere. Arabako euskara zerbitzuen helburu behinena da 2013an indarrean dagoen plangintzaldirako tokian tokiko plan estrategikoak onartzea. Horretarako, lehen aipatutako lantaldearen osaera eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikariaren laguntza. Kuadrilla eta udal bakoitzean landuko diren esparruak eta orain arte landutakoak, oso bestelakoak izan dira; ezbairik gabe, tokian tokiko errealitate soziolinguistikora eta bertako baliabideetara egokitutakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ere ofiziala izanik, euskararen normalizazioa arautzeko legedia badugu. Ordea, Trebiñuko Konderrian ez. Nolanahi ere, Trebiñuko Konderriko euskara zerbitzuaren eraginpeko udaletan euskarak presentzia handiagoa izan dezan, bertako euskara teknikariak abian ditu hainbat lan-ildo, besteak beste, administrazioaren informazio-seinaleak elebidunez jartzea, eta kale izendegi, kartel eta aldikako ohar orokor elebidunak. Hortaz, Trebiñuko Konderriko euskara teknikariak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako markoa erabili ez arren, euskararen presentzia hobetzeko hainbat ekimen jarri ditu abian.

## **11.2.EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAK**

Aurreko atalean azaldu bezala, badira eskualde batzuk non EBPN bat baino gehiago dituzten: kuadrillakoa ez ezik, hainbat udalek ere berezko EBPNa dutelako (adibidez, Agurain, Aiara, Mendialdea eta Zuia). EBPN horien guztien definizio, jarraipen eta ebaluaziorako ezinbestekoak dira tokian tokiko Euskararen Aholku Batzordeak. Kideen aniztasunak markatzen du batzorde horien aberasgarritasuna, bertan biltzen baitira, oro har, EBPNk bere baitan hartzen dituen esparruetako ordezkariak: kultura eta

gizarte sustapenerako zerbitzuak, udal edo kuadrilletako ordezkariak, euskara eta kultura elkarteak, euskaltegiak, ikastetxeak, kirol taldeak eta, noski, euskara teknikariak. Esparru horietako bakoitzean garatzen ari diren egitasmoen gaineko esperientziak trukatzeko foroa izateaz gain, eskualde edota udalen arteko koordinazio gune indartsu bilakatu da, euskararen normalkuntzan lanean ari diren guztien (gehienen, behintzat) gunea izanik.

Batzorde horiek, oro har, urtean 2-3 aldiz elkartzen dira. Batzorde horien bitartez aukera ematen zaie herritarrei, modu antolatuan zein indibidualean parte hartuta ere, ikusten dituzten lehentasunak mahai-gaineratzeko, programak definitzeko, horien balorazioa egiteko eta plana eguneratu eta egokitzen laguntzeko. Paragrafo honen hasieran aipatutako maiztasuna handiagoa izan ohi da programa zehatzak garatu behar diren kasu eta momentuetan. Kuadrillaren batean, Arabako Errioxan kasu, Euskararen Aholku Batzordeko kideak azpi-batzordeka lan egiten dute EBPnren esparru desberdinetan jasotako egitasmoak lantzeko (sentsibilizazio eta komunikazio batzordea edota aisia, kirola, kultura batzordea dira esandakoaren adibide). Ezbairik gabe, Euskararen Aholku Batzorde hauek euskararen normalkuntzan egiten ari diren lanen gaineko iritzien berritasuna eta kontrastea ekarri dute. Lantalde horiek dira, gaur egun, tokian tokiko EBPnak osatzeko oinarriak.

### **11.3.DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK**

Euskara zerbitzuen zeregin nagusietako bat da tokian tokiko euskara planak garatzeko ezinbestekoak diren diru-laguntza deialdien kudeaketa. Bide hori oso garrantzitsua izaten da EBPNetan jasotako ekintzak garatzeko eta, are gehiago, kuadrilletan euskara teknikariak kontratatuzko. Honakoak dira euskara teknikariek urtero kudeatu behar izaten dituzten diru-laguntza deialdiak:

- Arabako Foru Aldundia: kuadrilletan euskara teknikariak kontratatuzko deialdia.
- Arabako Foru Aldundia: euskara sustatzeko jarduerak antolatzeko deialdia.
- Arabako Foru Aldundia: euskara sustatzeko eta euskararekiko sentsibilizazioa sustatzeko programak garatzeko deialdia (2012. urteaz geroztik, euskara sustatzeko deialdi berean).

- Eusko Jaurlaritza: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan ekintzak antolatzeko eta euskara teknikariak kontratatzeke deialdia<sup>34</sup>.

Hainbat teknikariren kasuan, Arabako Foru Aldundiko eskaerak (euskara sustatzeko jarduerak antolatzeko, euskara eta euskararekiko sentsibilizazioa sustatzeko) eta Eusko Jaurlaritzako EBPN-n jasota dauden ekintzak garatzeko deialdiak, kuadrillako eskaera egiteaz gain, bere eraginpeko udaletarako ere kudeatu behar izan ohi dituzte deialdiok.

Diru-laguntza deialdien eskaera zein zuriketa administrazio lana izan arren, teknikariek egiten dutenaren ebaluazioa egiteko eta ideia berriak proposatzeko ere balio izan dute.

#### 11.4.HIZKUNTZA-AHOLKULARITZA ETA ITZULPENGINTZA ZERBITZUA

Kuadrilletako euskara zerbitzuek egun eskaintzen dituzten beste bi zerbitzu dira hizkuntza-aholkularitza eta itzulpengintza. Urtetik urtera sendotuz doazen zerbitzuak dira: gero eta gehiago dira euskara zerbitzuetara itzuli edo gainbegiratzeko heltzen diren lanak. Horiek oso bide desberdinetatik heldu ohi dira: kuadrilletan bertan egin beharrekoak, udaletatik jasotakoak, baita elkarte eta merkatariegandik jasotakoak. Kasuren batean, eta lan-zama handituz zihoala ikusita, itzulpengintza zerbitzua arautu behar izan da (Agurain edo Arabako Errioxa kasu).

#### 11.5.KOORDINAZIOA

Kuadrilletako euskara zerbitzuen helburu orokorra izanik euskararen normalizazioa, ezinbestekoa da eginbehar horretan inplikaturako gizarte eragile zein eragile instituzionalekin elkarlanean, modu koordinatuan, lan egitea. Horri jarraiki, koordinazio mota desberdinak desberdintzen dira Araban: kuadrillen arteko koordinazioa, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuaren bitartez; eskualdeko koordinazioa bertako eragileekin (udaletako euskara zerbitzuak -dauden lekuetan-, elkarteak, ikastetxeak, euskaltegiak, e.a); eskualdeko udaletan zuzenean lan egiten duten kuadrillako beste zerbitzuekin (zeharlerrotasuna helburu duen koordinazioa); eta zerbitzua ematen den udalerrietako toki-entitate eta gizarte eragileekin (azken koordinazio mota hori ez da leku guztietan ematen).

<sup>34</sup> Trebiñuko Konderrriak ezin du parte hartu EBPN diru-laguntza deialdian.

Aipatutako koordinazio mota horien artean, esan beharra dago, Arabako Foru Aldundiko eta kuadrilletako euskara teknikarien artekoa oso estua izan dela orain arte; horretan asko lagundu dute hileroko egiten diren koordinazio bilerek, baita bestelako egitasmoak abian jartzeko elkarlanak ere. Aipatzekoa da, bertan Arabako udaletako euskara teknikariek ere parte hartzen dutela. Urtez urte koordinazio honek geroz eta garrantzia handiago hartuz joan da teknikarientzat: esperientzien elkartruckerako foroak delako, proiektu komunak zein zehatzak garatzeko abiapuntua delako, prestakuntza beharrei erantzuteko neurriak hartzeko foroak delako eta Arabako hizkuntza estrategiak geroz eta egokiagoak planteatzen ari direlako.

### **11.6. KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN ERAGIN ESPARRU OROKORRAK**

Kuadrilletako euskara teknikarien eguneroko zereginak dimentsionamendu handia dute aurreko puntuetan azaldu bezala: lan handia egiteko dago eragin esparru askotan (familia transmisioa, helduen euskalduntzea, irakaskuntza, administrazioa, lan mundua, aisia, kirola, kultura, komunikabideak eta teknologia berriak). Kuadrilla bakoitzak bere ñabardurak ditu, baina, oro har, kuadrillak oso entitate txikiak izanik, bertako langileek egunerokoan sortzen diren gainerako lanak ere egin behar izaten dituzte (lan administratiboa, esate baterako). Hori horrela, zaila da zehaztea funtzio berdin batzuk kuadrilletako euskara teknikari guztientzat, tokian tokiko errealitate soziolinguistikoa eta batzuen zein besteen baliabideak oso bestelakoak direlako. Nolanahi ere, eta 2009tik honako zereginak aztertuta, oro har, ondorengo lan-ildo edo esparruetan arituko dira 2013an kuadrilletako euskara teknikariak:

1. 2013an zehar Erabilera Planak egin dagozkion toki administrazioetan, zehaztutako eragileekin elkarlanean.
2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPNren) 2013ko Kudeaketa Plana definitu, abian jarri eta horren jarraipena egin, zehaztutako eragileekin elkarlanean.
3. Euskara planetan jasotako programak, proiektuak edota ekintzak definitu, abian jarri eta horien jarraipena egin.
4. Kuadrilla bakoitzeko Euskara Batzordea dinamizatzea eta koordinatzea.

Udalerrietan Euskara Batzorderik osatuta balego, horien dinamizazioa ere euskara teknikariak egingo du.

5. Euskararen normalizazioa lortzeko bideratutako diru-laguntzak (EBPN deialdia eta Arabako Foru Aldundiko deialdiak). Hala eskatzen duten elkarteak lagundu haiei zuzendutako diru-laguntzak prestatzeko.
6. Euskararen erabileraren normalizazioan lanean ari diren gainerako udal, haien menpeko egitura, elkarte eta eragileei (sozialak, ekonomikoak) laguntzea, hala eskatuz gero.
7. Kuadrillako edo udaletako teknikariekin elkarlanean aritu eraginpeko entitateetan euskararen zeharlerrotasuna lortzeko.
8. Euskara teknikarien jardun-eremuan aholku ematea, hala eskatuz gero (hizkuntza irizpideak txertatu kontratazioetan, merkataritza esparruko eragileen laguntza eskaera paisaia linguistikoa aldatzeko, adibidez).
9. Administrazioako lanek aipamen berezia izango dute aurtengo funtzioen zerrenda honetan; izan ere, 2013an indarrean sartzen den V. Plangintzaldiak zeregin bereziak ekarriko ditu, oro har, eskualdeko entitate publiko guztietan:
  1. V. Plangintzaldiari dagozkion Erabilera Planak onartzea (bigarren puntuan aipatua).
  2. Lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak eguneratzea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinatuta (ezinbesteko baldintza Erabilera Planak onartzeko).
  3. Hizkuntza gaikuntzarako ikastaroetarako eskaerak izapidetuko dira, baita horri lotutako gainerako lanak ere (IVAPekin hitzarmenak).
  4. Hizkuntza normalkuntza gaietan IVAP eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinatzea.
10. Arabako Lurralde Historikoan dauden gainerako euskara teknikariekin ohiko koordinazio bileretan parte hartzea. Era berean, maila horretan proiektu

zehatzak abian jartzeko lantalderik osatuz gero, dagokionean parte hartzea.

11. Itzulpen zerbitzua eskainiko da berariaz eskatzen duten eragile ekonomikoiei, beti ere Kuadrillako teknikariak duen plangintzaren eta baliabideen arabera. Entitatean itzulpen zerbitzua arautzeko tresnarik egonez gero, hori da lehenetsiko dena. Hainbat kuadrilletan itzulpengintza zerbitzua arautu behar izan da; izan ere, geroz eta lan larga handiagoa zetorren esparru horretatik, bestelako lanak garatzeko denbora kentzen zuena.

### 11.7.ATALEKO BALORAZIOA

Arabako kuadrilletako euskara zerbitzuen helburua da eskualde bakoitzean euskararen normalizazio linguistikoa lortzea, beti ere, eskualdeko xehetasun soziolinguistiko orokorrak eta udalerrietako ñabardurak kontuan hartuta. Era berean, lehen aipaturiko helburua partekatzen duten euskararen eragile guztiekin (gizarte eragileak eta instituzionalak), plano beretik eta zentzu berean, modu koordinatu batez lan egitea da beste helburu nagusi bat. Azken hori izan zen, ezbairik gabe, euskara zerbitzuen erronkarik nagusienetakoa hastapenetan.

Aipatu behar da, aurrera pausurik handiena euskararen eragileen koordinazioan lortu dela, oraindik ere hobetu beharra badago ere. Eskualdeko eragile sozial eta instituzionalen arteko harremanak nabarmen hobetu dira, eta horren adibide da kuadrilla batean eta bestean teknikariek osatu dituzten lantaldeak eta bakoitzean garatutako lan-dinamikak.

Azpimarratzekoa da kuadrilletako euskara zerbitzuek denbora honetan guztian zehar lortu duten erreferentzialtasun eta garrantzia. Euskararen sustapen eta normalizatorako eragile instituzional eta gizarte eragileen proiektuak definitu eta abian jartzeko euskara zerbitzuak akuilu bihurtu dira.

Dagoeneko, herri eta eskualde guztietan abian dira euskararen normalizatorako plan estrategikoak (EBPNak eta erabilera planak); euskara zerbitzurik gabe oso zaila izango zen horiek guztiak garatu eta jarraipena ematea. Plan horietatik hainbat lan sortzen dira (kontuan hartu behar da plana egitea bera beste lan bat ere badela) eta horien guztien koordinazioa eta ardura, nolabait, euskara teknikariek dute.

## 12.KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN AUKERA, MEHATXU, INDARGUNE ETA AHULGUNEAK

### 12.1.AUKERAK

- Kuadrilletako euskara teknikarien sarearekin hainbat bidetatik eskatutako **behar bati erantzuten** zaio.
- **Sistema** (kuadrilla bakoitzean teknikari bana jartzea) **egokia da Arabako errealitatea zein den** kontuan hartuta: herri asko, oso sakabanatuak eta dentsitate gutxikoak (kontuan hartu behar da Arabako biztanleriaren gehiengoa, %81 inguru, Gasteiz eta Laudio artean banatzen dela).
- Kuadrilletako euskara zerbitzuen sorrerarekin Araban existitzen den **zonifikazioari** (iparraldeko kuadrillak - Aiara, Zuia, Lautada - eta hegoaldeko kuadrillak - Añana, Arabako Errioxa, Mendialdea-) aurre egiteko modu egokia da. Horrez gain, Araba **beste herrialdeen** (Gipuzkoa, Bizkaia) egoerara hurbiltzeko modu egokia da.
- Arabako **Euskararen Foru Zerbitzua** lurraldeko euskara zerbitzuentzako **erreferente** gune garrantzitsuan bihurtzen ari da. Bost esparru lantzen dira Euskararen Foru Zerbitzuak **zuzendutako koordinazio gunean; bost helburu** lortzen ditu, oro har: euskara teknikarien artean esperientziak trukatzea, Arabako Lurralde Historiko osorako irizpideak bateratzea, proiektuak elkarrekin egitea, teknikarien artean koordinatu eta informatzea, eta formazio beharrei modu bateratu batean erantzutea. Lau urteren ostean, lantalde honek lortutako sinergia eta ezagutza oso handia da.
- Euskara teknikariek egindako lanaren gaineko **kontrol eta zabalkunderako neurriak** egon badaude: kuadrilletako batzordeak, Euskararen Foru Zerbitzuarekin hilero egiten diren bilerak, euskaraba edota bestelako zabalkunderako bideak (lehenagotik sortuak -Aiaraldea.com- edo sortu berriak - tokian tokiko euskararen blogak, adibidez-).



- **Instituzio desberdinen arteko elkarlanaren ondorioa** da Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarea: Arabako Foru Aldundia (neurri handi batean), Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta kuadrillak.

## 12.2.MEHATXUAK

- **Lanpostuen ezegonkortasuna eta diru-laguntzen deialdiekiko dependentzia handia.** Euskara teknikari hauen lanpostuak ez daude lanpostuen zerrendan sartuta; dependentzia handia dago Arabako Foru Aldundiaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza deialdiekiko. Izan ere, kuadrillek lanpostu horien **autofinanziaziorako** arazo asko dituzte. Horrek ezegonkortasun nabaria ematen die tokian tokiko euskara zerbitzuei eta horrek zuzeneko eragina du euskararen normalizaziorako **helburuak zehazteko** orduan.
- Kuadrilletako euskara teknikariak kontratatzeko **sistemaren inguruko zalantza** eta joan-etorri asko dago gaur egun. Horrek zalantzatan jartzen du urterako proiektu honen finantziazio iturri nagusia: Arabako Foru Aldundiarena.
- Horri jarraiki, kuadrilletako euskara teknikarien proiektua **oso politizatuta** dago gaur egun. Hainbat eragilek (gizarte eragile, eragile instituzional eta politikarik) **trukerako txanpon** bat bezala ikusten dute beste proiektu batzuk lortzeko.
- Kuadrilletako euskara teknikariak **bertako langileak dira eta bertatik bertara lan egiten** dute. Hainbat kasutan, euskara teknikaria udalez udal mugitzen da: horrek **elkar ezagutza asko indartzen** du, nahiz eta kasu batzuetan, mehatxu bat ere suposatzen duen, **entitate kopuru** hutsagatik: zaila da teknikari bakar batek udalerrri guztietan zerbitzua eman ahal izatea. Horri beste zailtasun bat gehitu behar zaio; izan ere, **dispertsio geografikoa handia** da Arabako eskualdeetan. Mugikortasun horrek eragina du, batez ere, egun berean bi entitate desberdinetan lan egin behar duten teknikariengan (lan egin beharreko entitate kopuruagatik).

- Kuadrillak eta bertako udalak **entitate txikiak dira, langile gutxikoak**. Hortaz, teknikariek haiei ez dagozkien lanak ere egin behar izaten dituzte (gainontzeko langileei bezala).
- Entitateotan, gehiago edo gutxiago, baina, oraindik ere, **euskararen zeharlerrotasun osorik ez da lortu**. Hortaz, euskarazko ekimen guztiak euskara teknikariaren esku utzi ohi dira.

### 12.3.INDARGUNEAK

- **Egungo sistema egokia da hizkuntza politika bateratua abian jartzeko**. Kuadrilletako euskara teknikarien bitartez, eta gerora gehitutako udaletako euskara teknikarien bitartez, helburu komuneko hizkuntza politika bat abian jarri daiteke Araban, **tokian tokiko ñabardurak** aintzat hartuko dituen hizkuntza politika.
- **Egungo sistema egokia da bi zentzutan**. Batetik, kuadrilletako euskara teknikarien bitartez, tokian tokiko errealitate soziolinguistikoaren diagnosi zehatzagoa heltzen da kuadrillaz gaindiko entitateetara. Bestetik, kuadrillez gaindiko entitateetatik etorritako irizpideak hobeto egokitu daitezke tokian tokiko errealitatera teknikarien bitartez (Eusko Jaurlaritzako plangintzaldien irizpideak direla, edo Arabako Aldundiko proiektu orokorrak direla).
- Kuadrilletako euskara teknikariak **bertako langileak dira eta bertatik bertara lan egiten** dute. Horrek eskaintzen die teknikariei bertako errealitatearen ezagutza hobe (ingurunea eta langileak) eta bertakoei euskara zerbitzua ezagutzeko aukera. Hainbat kasutan, euskara teknikaria udalez udal mugitzen da: horrek **elkar ezagutza asko indartzen** du, nahiz eta kasu batzuetan, mehatxu bat ere suposatzen duen.
- Kuadrilletako euskara teknikariek **erreferentzialtasuna** lortu dute beren eskualdeetan: banako, gizarte eragile zein eragile instituzionalentzat (udalak, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza). Tokian tokiko **lantaldeak** osatuz joan dira.

- Kuadrilletako euskara teknikarien lanari esker, Arabako kuadrilla guztiek dituzte beren **EBPNak** onartuta eta abian. Horrez gain, ia Arabako udal guztiek dituzte beren **Erabilera Planak** onartuta ere bai. EBPNak osatzeko talde **anitza** osatu da eskualde bakoitzean: gizarte eragile eta eragile instituzionalek **elkarlanean** osatutako planak direlako. Euskararen **ardura partekatuz doa**, ez da bakarrik hezkuntzaren eskuetan uzten. Horri esker, **euskararen normalizazioa modu koordinatu eta artikulatu batean** garatzen ari da; azken batean, modu planifikatu batean.

#### 12.4.AHULEZIAK

- Teknikarien **funtzioen dimentsionamendu** handia: lan karga handia eta eragin-esparru asko. **Zeharlerrotasunik**, oro har, ez denez lortu, horrek eragin zuzena du euskara teknikarien lan kargan; izan ere, euskaraz diren ekimen guztiak beren eskuetan amaitzen dute.
- Zaila da kuadrilletako euskara teknikarientzako **funtzio orokor** batzuk definitzea hiru faktorerengatik, batez ere: egoera soziolinguistikoa kuadrillatik kuadrillara oso bestelakoa delako (iparraldeko kuadrillak - Aiara, Zuia, Lautada - eta hegoaldeko kuadrillak - Añana, Arabako Errioxa, Mendialdea- beren artean zantzu antzekoagoak izan), batzuek eta besteek dituzten baliabideak desberdinak direlako, eta eskualde bakoitzeko udal kopuru, dispersio eta biztanleen dentsitatea oso bestelakoa delako. Nolanahi ere, lan-ildo edo eragin-esparru antzekoak definitu daitezke, besteak beste, euskara planak (EBPN eta erabilera planak), euskararen aholku batzordeak eta diru-laguntzak.
- Horrek agerian uzten du **giza baliabideen behar gehiago** badagoela. Arabako gizartea gero eta elebidunagoa da, eta eskaera horri aurre egiteko egin beharreko lana zaila da teknikari bakar batek aurrera eramatea. Baliabideen behar hori, kuadrilletan ez ezik, Arabako Euskararen Foru Zerbitzuan ere ageri da; izan ere, egungo lan karga aurrera eramateko hiru pertsonako lantaldea da Foru Zerbitzuko (bi teknikari eta administrari bat).

- Orain arte aipatutako faktoreek zuzeneko eragina dute euskara teknikariengan, hainbat esparrutan **gutxieneko espezializazio bat lortzea oso zaila** dutelako.
- Euskara teknikariei estrategiak falta zaizkie **euskararengandik horren gertu ez** daudenak euskarara hurbiltzeko. Hau da, horiei euskararen normalizazioa zer den azaldu eta prozesu horren parte aktibo bihurtzeko.

### 13.KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN BALORAZIO KUALITATIBOA

Sakontze egitasmo hau osatzeko 31 lagun elkarrizketatu dira, funtsean, sakoneko elkarrizketen eta talde eztabaiden bitartez. Ahal izan den guztietan eta, noski, egoki ikusi den guztietan, eztabaida taldeak lehenetsi dira informazio aberasgarriago bat lortzeko. 31 elkarrizketatu horiek honela banatu dira: 13 sakoneko elkarrizketa eta 7 talde eztabaida (2-4 lagun ingurukoak azken talde horiek).

Ikerketa lan honen hasierako maxima izan da Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sareari buruz ahalik eta ikuspuntu eta iritzi gehien jasotzea egitasmo anitz eta osoa izateko. Elkarrizketatu diren perfilak ikusita, helburua bete dela baieztatu daiteke, honako perfil hauen iritzi eta ikuspuntuak jaso baitira: politikariak<sup>35</sup> (Eusko Jaurlaritzan, Arabako Foru Aldundian zein Arabako Biltzar Nagusietan egondakoak edo daudenak), kuadrilletako gerenteak, euskara teknikariak (Euskararen Foru Zerbitzukoak, kuadrilletakoak eta udaletakoak), gizarte eragileak eta adituak. Perfil horiek guztiak kontuan hartuta, lagin txiki bat hartu eta elkarrizketak garatu dira.

Ondorengo paragrafoetan jasoko dira elkarrizketa horietan azaldutako iritziak. Ideia orokorrak azalduko dira, baita antzemandako desadostasunik aipagarrienak ere. Jarraitu baino lehen eta elkarrizketatutakoen anonimotasuna bermatzeko, honako kodifikazioa erabiliko da aipu zehatzetan: gerenteak<sup>36</sup> ( $G_1$ ,  $G_2$ ), euskara

<sup>35</sup> Sakontze egitasmo honetan jaso dira PP, EAJ-PNV, Bildu eta PSE-EEren ordezkarien edo esparru honetan lan-ildoak oso ondo ezagutzen dituzten pertsonen iritzi eta ikuspuntuak.

<sup>36</sup> Hiru gerente elkarrizketatu ziren arren, biren elkarrizketak besterik ez ziren grabatu. Hirugarrenaren elkarrizketarik ez zen grabatu, hala eskatu zuelako elkarrizketatuak. Hortaz, gerenteen aipamenak egiterakoan, birenak besterik ez badira erabiliko ere, hirugarren bati ere elkarrizketa egin zitzaion.

teknikariak ( $T_1, T_2, \dots, T_{11}$ ), kargu politikoak (izandakoak, direnak) ( $P_1, \dots, P_5$ ), gizarte eragileak ( $E_1, \dots, E_{10}$ ), adituak ( $A_1, A_2$ ).

Elkarrizketetan jasotakoan sakondu baino lehen, elkarrizketatuei kuadrilletako euskara teknikarien inguruan planteatu zitzaizkien ikergai orokorrak aipatuko dira jarraian. Kuadrilletan euskara teknikariak jartzearen beharra nondik etorri zen eta nola gauzatu zen, zeinen laguntzaz. Planteamendu horren zergatia eta egokitasuna. Sistema alderatua izan zen ala alde bakarrekoa. Zein neurritan laguntzen duten teknikari horiek Arabako Plan Estrategikoaren helburuen lorpenean eta Eusko Jaurlaritzako plangintzaldien helburuen lorpenean, baita tokian tokiko elkarten helburuen lorpenean ere. Teknikariek egin beharrekoak zeintzuk diren, alegia, zeintzuk diren funtzioak. Teknikari eta sareak ondo egindakoak eta hobetu beharrekoak zeintzuk diren. Lorpenik eta gabeziarik aipagarrienak zeintzuk diren. Elkarrizketei amaiera emateko, elkarrizketatuei ariketa berdina planteatu zaie: Araban euskara teknikarien sarea antolatu beharra. Azken ariketa horretatik gauza interesgarriak jaso dira eta 14. atala osatzeko oso baliagarriak izan dira.

### EUSKARA TEKNIKARIEN BEHARRA LEHENAGOTIK BAZEGOEN

Euskara teknikariaren beharra oso agerikoa zen, hala agertu da elkarrizketa gehienetan: bereziki gerente eta gizarte eragileen elkarrizketetan. Kontratazioak egin baino lehenago, haien beharra sumatzen zen tokiko administrazioetan. Hala adierazi dute elkarrizketatu diren hiru gerenteek. Behar hori, gainera, Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari inoiz planteatu izan diote; planteamendu horiek, nagusiki, bide informal batetik egin diren arren.

*"Ha habido conversaciones previas con Diputación y Gobierno Vasco. Hace cuatro años, cuatro años y medio se logró algo con diputación que era algo que ya veníamos pidiendo (...) Fue cuando se propuso la creación de la red de técnicos de euskera". (G<sub>1</sub>).*

Elkarrizketatutako hiru gerente horien kuadrilletan euskara teknikaria lanean sartu baino lehenago EBPNa onartuta zegoen, baina dinamizatzaile baten beharra zuten.

Alegia, EBPN horietan jasotako eta planifikatutako hori abian jartzeko dinamizatzaile baten beharra. Une hartan ageriagoan geratu zen euskara teknikari baten beharra.

*"Previamente a crear las figuras de técnicos de euskera, ya teníamos aprobado un plan de promoción de uso del euskera, pero lógicamente, para llevar a cabo ese plan necesitas medios humanos. Este proyecto [kuadrilletako euskara teknikariak] completaba la demanda que venía de antes". (G<sub>1</sub>)*

Behar horren berri teknikariek ere jaso izan dute lanean hasi ahala:

*"Beharra sumatzen zen eta beharra sumatzen denean gero lan egiteko erraztasuna ematen dizu horrek. Horrekin konturatu gara lanean ibili garen heinean, jendeak arrera ona egin digula, oro har, salbuespenak salbuespen, eta lan egiteko lekua badagoela" (T<sub>2</sub>).*

Izan ere, tokian tokiko gizarte eragileek ere figura horren beharra ikusi zuten. Hala ikusi da elkarrizketatu diren euskalgintzako hiru guneeetan (Arabako Errioxa, Lautada eta Zuia):

*"2000n (...) DAFO bat egin genuen eta hor ikusten zen beharren barruan euskara teknikariaren figura eskualdean inportantea zela eta horren atzetik ibili ginen" (E<sub>1</sub>).*

AMIA bat exhaustiboki egin gabe ere, behar hori beste zonalde bateko euskalgintzan agerikoa zen:

*"Argi zegoen beharra, eta euskalgintzak aldarrikatu zuen bere garaian euskara teknikari bat behar zela..." (E<sub>5</sub>).*

Beharra gerente, gizarte eragile eta euskara teknikariek ez ezik politikariek ere ikusten zuten:

*"Plan Estrategiko horretan [Arabako Plan Estrategikoa] jasotako ekintzetako bat zen koordinazioa hobetuko lukeen lantalde bat osatzea [teknikarien sarea]. Horren sorrera bultzatu zen gabezia ikusi zelako, baita tokian tokiko zinegotzi edo adituen eskutik ere bazetorren, eta hori eskertzekoa da" (P<sub>2</sub>).*

Behar hori lehenagotik aurreikusi zenez, alegia, beharra agerikoa zenez, euskara teknikarien sarea osatzera zihoala esan zietenean oso modu positiboan hartu zuten berria batzuek eta besteek: gerente, lanean zeuden euskara teknikari, zein gizarte eragileek. Hurrengo pausua izan zen udalekin hitz egitea teknikarien gaineko finantziazioaren inguruan akordio bat hartzeko. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak kuadrilletako euskara teknikarien portzentaje bat ordainduko zuen, baina gainerakoa kuadrillek eta udalek bere gain hartu beharko zuten.

*"Berria oso ondo jaso genuen. Teknikariaren beharra argi zegoen eta guztiok ados egon ginen kontratazioarekin. Ez zen zalantzarik egon, eskatutako zerbait izan zelako". (G<sub>2</sub>).*

Nolanahi ere, kuadrilletako euskara teknikarien proiektua egikaritu baino lehen, bilera bat egin zen Arabako Aldundian. Bilera horretan parte hartu zuten Arabako Foru Aldundiaren partez, garaiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendaria eta bertako euskara teknikariak; eta kuadrillen ordezkariak. Bilera horretan gai bakar bati buruz hitz egin zen: kuadrillek berezko euskara teknikariak izatearen garrantzia. Bilera horretara bertaratu ziren guztiak argi zeukaten behar hori eta bilera horretan zehaztu ziren behar horri aurre egiteko bidean eman beharreko pausuak.

*"En esa reunión todos tenían clara la necesidad de contar con unos técnicos de promoción del uso del euskera y la reunión se enfocó por llevar eso a la práctica"*  
(G<sub>1</sub>).

Kuadrillei proposatu zitzaientzen hasierako parte-hartzea ekonomikoa izan zen: Arabako Foru Aldundiak emandako diru-laguntzarekin aurre egin ezin zitzaion defizitari aurre egin eta euskara teknikarien kontratazioak errealitate egiteko. Gainontzeko guztia (sistema, funtzio orokorrak, aholkularitza teknikoa, prestakuntza, e.a) Arabako Aldundiaren esku egongo zen. Dena dela, gerora, kuadrillen parte-hartzea beste esparru batzuetan ere garrantzitsua izan da, kuadrillaren esku egon baita teknikariei egitasmoak garatzeko eta lan egin ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak ematea: azpiegiturak, giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak. Azken baliabide horien inguruan, gerente batek diru-laguntza gehiagoren beharra ere azpimarratu du:

*"Arabako euskararen aldeko apustua egiteko, teknikariak beharrezkoak dira baita jarduerak garatzeko diru gehiago ere, udal eta AFaren partetik" (G<sub>2</sub>)*

Gerente, gizarte eragile eta politikariek aipatutako teknikarien behar hori baina hainbat bidetatik heldu zen Arabako Aldundira. Kontuan hartu beharra dago esparru horretan gabezia handia zegoela: Arabako hiru herri handietan (Vitoria-Gasteiz, Amurrio, Laudio) eta Aramaion kenduta, ez zegoen euskara zerbitzurik besteetan. Noiz edo noiz Aguraingo Udalak berea izan du, baina jarraikortasunik gabea. Beraz, egoera honakoa zen kuadrilletako euskara teknikariak kontratatu baino lehen: udal euskara zerbitzu gutxi eta inolako loturarik gabe haien artean, bakoitza bere aldetik zegoen. Nolanahi ere, eskualde guztietan, gehiago edo gutxiago, egiten ziren euskara sustatzeko ekintzak. Ekintza horiek baina ez ziren modu artikulatu eta planifikatu batean egiten; koordinaziorik gabe egiten ziren, oro har, elkarlanik gabekoak eta tokian tokiko entitateak euskararekiko zuen atxikimenduaren arabera. Lan hori guztia tokian tokiko animatzaile soziokulturalek egiten zuten, figura hori existitzen zen lekuetan. Hor gabezia handia ikusten zen normalkuntzan arituak direnen ikuspuntutik eta hala adierazi zuen elkarrizketatutako euskara teknikari batek:

*"kultur teknikariak ere euskaratik oso urrun daude gaur egun: ezagutzatik, normalizazio programetatik, helburuetatik, prozeduretatik" (T<sub>1</sub>).*

Kuadrilletako euskara teknikarien kontratazioetan ez zen oso perfil itxia eskatzen; izan ere, tokiko ezaugarriak, gabeziak eta zeuden baliabideak oso bestelakoak ziren. Dena dela, eta garaiko egoera zein zen ikusita, perfil horren balorazioan bi ildo nagusitzen ziren: euskararen ezagutza eta inguruarena. Tokian tokikoa ezagutu behar zuen teknikariak hasierako helburuak eskualdearen diagnostia eta eragileen arteko koordinazioa zirelako. Batzuek eta besteek gabeziak izango zituztela aurreikusita, Arabako Foru Aldundiak bazeukan aurreikusita prestakuntza plan zehatz bat lehen aipatutako gabezia horiei aurre egiteko. Prestakuntza plan hori Asmoz Fundazioarekin egindako hitzarmen baten bitartez garatu zen. Prestakuntza plan hori baina ez da itxia, formazioan oraindik ere asko eragin behar da; izan ere:

*"euskararen normalizazioa diziplina gaztea, zabala eta berria da" (T<sub>1</sub>)*



Euskara teknikari hauen beharra edota papera, gainera, funtsezkoa bihurtzen da bai Eusko Jaurlaritzako plangintzaldien helburuak zein Arabako Foru Aldundiko euskararen Plan Estrategikoaren helburuak lortzeko.

*"Plan Estrategikoaren helburuen lorpenean osagai fundamentalak dela uste dut. Teknikarien lana zutabe ardatza da. Hori gabe ez dago zirkulaziorik. Planean jasotako ekintzak garatzeko laguntzaileak dira. Joan-etorriko laguntzaileak: bai irizpideak bertaratzeko, bai bertako erritmoa, problema edo indarguneak guri [Aldundiari] jakinarazteko. Nik uste dut, ezinbesteko tresnak direla"* (P<sub>2</sub>)

### SISTEMAREN EGOKITASUNA

Elkarrizketatuen artean adostasun zabala dago egungo sistemaren egokitasunarekiko, hain zuzen ere, kuadrilla bakoitzak bere euskara teknikaria izatea. Arabako errealitatea zein den kontuan hartuta, sistemarik egokiena dela deritzote. Gainera, Arabako berezko estruktura administratiboak errazten du proiektu hori egikaritzen eta sor litezkeen arazoei konponbide jartzen dio sistemak:

*"Planteamendua edo sistema egokia da eskualdeari ikuspegi orokor eta batasun bat ematen diolako. Haien arazoetako bat udalerrri txikiak eta masa kritiko askorik gabekoak dira gauzak antolatu eta egiteko. Sistema honekin herri txikiei aukera ematen diegu bertara joan eta parte hartzeko"* (G<sub>2</sub>)

Kuadrilla bakoitzean euskara teknikari bana jartzearena, gutxieneko baliabideak direla deritzote elkarrizketatuek:

*"El sistema actual es un mínimo que tiene que haber, tal y como está organizado Álava. Es un ámbito correcto [kuadrilla] para empezar a trabajar. Que haya, por lo menos, un técnico por cada una de estas comarcas"*. (G<sub>1</sub>).

Egitasmo hori egikaritzeko bide desberdinak aztertu baziren ere, tartean FOFELena, azkenean diru-laguntzen bidetik egikaritu zen egitasmo hau.

*"Bide hori [FOFEL bidezko finantziazioa] itxita zegoen, agortuta bezala, iraupenik ez zitzaion aurreikusten. Ez genuen argi ikusten: prozesua luzatu zitekeen,*

*denbora pasatuz eta euskara teknikariak kontratatua egon gabe. Gure helburua zen martxan jartzea, egokiena ez izan arren lanean hastea". (T<sub>1</sub>)*

Lehen aipatutako bide horien arteko bat izan zen Arabako Foru Aldundian euskara teknikari horientzako lanpostuak sortzea, alegia, Aldundiko langileak izatea. 2008ko egitasmoa izanik eta kontuan harturik krisia gogor astintzen hasia zegoela, Aldundian kontratazio gehiagorik ez zen egin.

*"Hasiara batean diputazioan nahi izan genuen kontratatu: diputazioko langile funtzionario izatea, iraunkortasunari begira. Horrela, nolabait, iraunkortasuna bermatuta egongo zen. Ez genuen hori lortu. Lortu genuena izan zen halako behin-behineko kontratazio bat, kuadrillaz kuadrilla" (P<sub>2</sub>).*

Kuadrillean euskara teknikariak jartzeko sistema hainbat eragilerekin alderatu zen eta hori abian jartzeko lan handia egin zen bi zentzutan: Aldundira begira, bidea zein izan zitekeen jakiteko; eta kanpora begira, kuadrilletako gerente eta lehendakariekin proiektua definitzeko:

*"Batetik etxe barruan prozedura zein izan zitekeen jakiteko, ea posiblea zen legez eta zein prozedimendu egin behar zitekeen. Bestetik, (...) joan ginen kuadrillaz kuadrilla gerente eta lehendakariekin hitz egiteko. Guk alferrik aterako genukeen diru-laguntza baldin eta gerente eta lehendakariak ados ez bazeuden ez zen inor kontratatuko. Beraz, sarea ez zen osatuko. Denborak erakutsi du bidea egokia izan zela, inork ez duelako arazorik izan diru-laguntza hori eskatzeko". (T<sub>1</sub>)*

Sistema horrek Euskararen Foru Zerbitzuak detektatutako arazo bati aurre egiteko oso baliagarria da. Izan ere, aipatutako zerbitzuak arazo bat zeukan diagnosi fasean: Arabako argazki zehatzik ez zuten egin, tokian tokiko ezagutzarik ez zuten. Ezagutza hori, egun, teknikariek ematen dute eta hori garrantzitsua da, nolabait, Arabari osotasun bat emateko, lurraldetasuna orekatzeko eta islatzeko.

Hortaz, sistema egokia da, Arabako errealitateari erantzuten diona eta joan-etorriko harremanak errazten dituenak: tokian tokiko errealitate fidagarri bat transmititu eta lurralde osorako ildoak aplikatzeko lanak erraztu.

## BI ARABA, GERTURATZEKO ESTRATEGIA BAT

Aurreko atalean zehaztutakoari jarraiki, baina beste ildo batetik jarraituz, kuadrillean euskara teknikariak jartzeko sistema eta haien arteko koordinazio gune bat osatzea (Euskararen Foru Zerbitzuak gidatuta) oso egokia izan da Arabak bizi duen errealitateari aurre egiteko. Proiektu honek batasuna eman dio lurraldeari. Perfil desberdinetako hainbat elkarrizketatu bat datoz ondorengo ideiarekin: soziolinguistikoki, bi Araba existitzen dira (iparraldeko kuadrillak -Aiara, Zuia, Lautada, Vitoria-Gasteiz- eta hegoaldekoak -Añana, Trebiñu, Mendialdea eta Arabako Errioxa).

*"...Arabak badagoela euskararekin marra bat Gasteizen, horrela zeharkatzen duena: mendebaldetik ekialdera. Eta hortik gora euskararen kontua beste begi batzuekin ikusten da, sentsibilidade hobea dago, e.a, eta seguruenez izango da iparraldean dagoelako Gipuzkoara eta Bizkaira begira... Orduan eremu euskaldunagoa izango da. Eta Gasteiztik behera panorama oso desberdina da, oso. Ez du zerikusirik Laudiok eta Trebiñuk edo Haranak edo Rivabellosak edo zure udalek [Arabako Errioxakoei erreferentzia] . Zonifikazio bat dagoela argi eta garbi esango nuke" (T<sub>5</sub>).*

Aldundiak argi ikusi zuen egoera honetan ezinbestekoa zela entitate honen esku-hartzea neurri zuzentzaileak abian jartzeko:

*"Vimos que había que estructurar en función de los diferentes campos. También vimos una diferenciación entre norte y sur, en cuanto al uso. Ahí vimos como unos necesitaban más y otros menos. Ahí vimos que necesitábamos estructurar la intervención de la Diputación" (P<sub>1</sub>)*

Horri jarraiki, haien esku-hartzea parte-hartzailea eta deszentralizatua izan behar zela argi ikusi zuten:

*"Para estructurar la intervención pensamos en una política descentralizada y participativa, esto nos venía desde Europa atendiendo al principio de subsidiariedad: las cosas se hacen mejor cuanto más cerca del ciudadano. Por lo tanto, quien mejor sabe lo que le pasa a la Rioja es quien esté en la Rioja (...) lo mejor era utilizar lo que ya teníamos, que eran las Cuadrillas, para que en cada*

*Cuadrilla hubiera una persona dedicada a la ejecución a través del servicio y con la tutela del Servicio de Euskera y la Diputada pero partiendo del territorio, porque eran los que mejor conocimiento tenían" (P<sub>1</sub>)*

Egitasmo honen beharra ere ikusten da, euskararen normalizazioari dagokionez, hobeto dauden lurraldeenganako gerturapen bat bezala. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden aldeak murrizten joateko tresna gisa.

*"Oraindik alde handiak daude Araba eta beste bi lurraldeen artean. Eta, nik hortik ateratzen dudan lehenengo ondorioa da, dudarik gabe, lanean tinko jarraitu beharra dagoela Araban. Inolako geldialdi eta, dudarik gabe, atzera pausorik gabe. Horrek ekarriko lukeena izango litzatekeelako areagotzea oraindik lurraldeen arteko desberdintasun horiek" (P<sub>4</sub>)*

#### **BERTAKO LANGILE IZATEAREN GARRANTZIA: BERTAKOA, BERTATIK BERTARA**

Elkarrizketatuen artean adostasun zabala dago ideia horrekin; hain zuzen ere, euskara teknikariak kuadrilletako langilea izatea garrantzitsua da. Bertako lankide izatea eta bertatik bertara lan egitea. Hasiera batean, gerenteei planteatu zitzairen Aldunditik emango zela zerbitzu hori, alegia, euskara zerbitzuarena. Lan horretan Aldundiko langile bat izango zuten noiz edo noiz kuadrillara joateko. Hori ez zuten inondik inora ikusi, bereziki, gerenteek.

*"Ez dugu ikusten hasiera batean planteatu zena: pertsona bat egotea Aldunditik datorrena, zurea ez dena, kanpokoa dena,... parakaidista bat. Hemen egoteak, zure langilea izateak ematen dizu beste kontaktu bat. Errealitatearen ezagupena oso desberdina da eta jendearen harremana ere bai". (G<sub>2</sub>)*

Tokiko Agenda 21eko eta prebentzionisten kasuak aipatu dira hainbat elkarrizketetan. Langile horiekiko urruntasuna dago, kanpotik datorren langilea baita.

*"...horrek urruntasuna ematen dizu, kanpotik datorren langilea da" (G<sub>2</sub>)*

Eskualdea ezagutzea eta bertako talde euskaltzaleekin etengabeko harremana izatea ezinbestekoa da. Hortaz, ezinbestekotzat jotzen da toki erakunde horietan lan egitea. Tokikotasun hori baina ez da kuadrillako entitatera mugatzen; izan ere,

elkarrizketatuen artean ados agertu dira gerente, teknikari zein gizarte eragile batzuk, kuadrillan egoteaz gain, udaletako ñabarduren ezagutza ere beharrezkoa dela. Udalez udal mugitzea ere garrantzitsua da: teknikariek bertatik bertara ezagutu behar dituzte pertsonak eta beren errealitateak. Kontrako zentzuan ere bai: tokian tokiko pertsonak euskara teknikaria ere ezagutu behar dute. Euskara teknikariaz ari garenez, figura horrengan jarri da arreta guztia, baina udalez udal mugitzearen garrantzia kuadrillatik modu mankomunatu batean (nolabait esateagatik) eskaintzen diren zerbitzu guztietarako aplikagarria da. Horrekin lortzen da, ezbairik gabe, beste modu bate lortu ezin den errealitatearen ezagutza.

Kuadrilletako euskara teknikariak udalez udal mugitzen dira, salbuespenak salbuespen. Egunero entitate bakoitzean ari dira lanean eta, hala behar den kasuetan, banaketa berdin bat lortzeko, goiz erdia ematen da entitate batean eta beste erdia bestean. Sistema horren inguruan euskara teknikariek iritzi kontrajarriak dituzte, funtsean, udalerrri kopuru eta batetik bestera mugitzeko distantzian oinarrituta:

*"Animatzaile soziokulturalek badute non zentratu: eragin eremu geografikoa oso definitua dute eta ez dira langile bakarrak horretara dedikatzen direnak. Ez dute eskualde osorako lan egiten. Euskararena, gainera, nola den EBPNa, dira hamar arlo, garatu behar dituzu mila gauza, mila tokitan eta azkenean mila ofizio, mila miseria... Dimentsionamendu handiko lanpostua da eta ez dago behar bezala hornituta, beharbada, dimentsio horretarako (...) Niri eskatzen didate beste zerbitzu batzuetan pertsona gehiagorekin egiten dena. Ez da berdina lau udal izatea edo 10 udal izatea". (T<sub>6</sub>)*

*"Egun batzuetan 100 kilometro ere egin behar izaten nuen: denbora galtze handia izan zen". (T<sub>5</sub>)*

*"Nik kasu batzuetan ikusten dut, ez nirean, baina bai kasu batzuetan, eremu geografikoa zabalegia dela. Eremu geografikoa zabalegia da, udalerrri pilo eta ikusten da, batzuetan, horrek zailtasun izugarri ekartzen dituela eta gure lankide batzuk, alde horretatik, iritsi ezinik dabiltzala. Baina bakar bakarrik kopuru hutsagatik. Hori bai ikusten dut, pentsatzea hamar udalerritan teknikari bat ibiltzea hara eta hona, eta proiektuak leku guztietan berdin atera nahirik, eta*

*EBPNak leku guztietan, eta hau, eta beste... hori zoramena da, pentsaezina da, benetan". (T<sub>5</sub>)*

Leku batetik bestera mugitze horren gaineko iritzi negatiboak mahai gaineratu badira ere, bi pertsona horiek ez ezik beste askok ere ikusten dute mugikortasun horrek abantailak ere dakartzala hiru esparru handitan: errealitatearen ezagutza hobea, euskara zerbitzuaren indartzea eta langile publikoek euskararekiko dituzten beldurrak uxatzeko (nagusiki, derrigortasun-daten inguruan).

### **FUNTZIOAK: DIMENTSIONAMENDU HANDIKO LANPOSTUAK**

Euskara teknikarien elkarriketatik jasotako informazioarekin osatu da honako atal hau, haiek baitira ondoen dakitenak zer den egunero eta entitate desberdinetan egin ohi dutena. Horri jarraiki, euskara teknikarien artean adostasuna nagusi da ondorengo ideiarekiko: kuadrilletako euskara zerbitzuak dimentsionamendu handiko lanpostuak direla. Hori, kasuren batean, aipatu izan da gabeziarik aipagarrienetako bat bezala.

*"...euskara zerbitzuaren dimentsionamendua: gero eta denbora gehiago pasa, gero eta lan gehiago dugu. Hori da gero eta hobeto dakigulako zertan ari garen eta jendeak ere bai. Orduan jendeak geroz eta gehiago eskatzen du eta erakundeak ere bai" (T<sub>2</sub>)*

Funtzio horietan, gainera, dispertsio handia dagoela deritzote teknikariek. Oro har, EBPNak bere gain hartzen dituen hamar esparruetan eragiteaz gain, batzuetan, teknikaria izan da hizkuntza politika bideratzen duena:

*"Azkenean teknikariak aurre egiten dio ateratzen den guztiari: bekak eman behar direla euskara ikasteko, barne plana egin behar dela, kanpo plana egin behar dela,... Funtzioen dispertsio izugarria eta askotan ez dakigu nola defendatu berez geureak sentitzen ditugun funtzioen aurrean. Horrek funtzionamendu aldetik halako kaos bat sortzen du... Ari gara gauza gehiegitan sartuta..." (T<sub>4</sub>)*

Funtzioen dispertsio hori areagotu egiten da, entitatearen arabera funtzioak garatu behar izaten dituztelako teknikariek:

"Horri beste egoera bat gaineratu behar zaio: oso bestelako funtzioak egin beharra kuadrillan eta udaletan" (T<sub>7</sub>)

Funtzio eta zeregin horiek desberdinak izanik, norentzako lan egiten duten definitzea garrantzitsua da; izan ere, horren arabera helburu eta zereginak zehaztuko dira:

"Nik uste dut, egitura hori sortzea [kuadrilletako euskara teknikariak], momentu honetan, beharrezkoa dela. Nik uste dut badagoela beste problema bat eta ez bakarrik Araban, gertatzen dena da hori Araban gailendu edo handitu egiten dela problema. Zein da problema? Hizkuntza normalizazioko teknikarien atazak zeintzuk diren finkatzea. (...) Norentzako egiten dute lan teknikariek? Kuadrillentzat ala kuadrillentzako udalentsat? Zeregin desberdinak zehaztu beharko lirateke" (A<sub>2</sub>).

Nolanahi ere, funtzioen definizio falta eta dimentsionamendu zabal hori ez da Araban bakarrik gertatzen:

"Toki askotan, ez Araban bakarrik. Gipuzkoan esango nuke, Bizkaian, askoz mugatuagoak daude teknikarien egitekoak, baina lanpostuaren beraren definitiotik hasi esango dizut. Itzultzaile-euskara teknikariak-euskara irakasleak. Gaur arteko esperientziarekin askoz gehiago mugatu beharko lirateke eginkizunak" (P<sub>4</sub>)

Arabian baina areagotu egiten da funtzioen auzia; izan ere, oro har, kuadrillak eta menpeko udalak oso entitate txikiak dira, bitarteko gutxikoak, hortaz, bertako langileei egokitzen zaizkien funtzioez gain, bestelakoak ere egin behar izaten dituzte:

"Nik topatzen dudan traba handia, eta ez da euskararekin bakarrik, horrelako e-  
struktura txiki hauek (kuadrillek eta udal txikiek, ruralek nolabait esateko) Araban  
gainera oso bitarteko gutxi dutela: pertsonal aldetik, ez dute ondo artikulatuta...  
ez dago ondo artikulatuta nork zer egin behar duen, askotan gauzak aurrera ate-  
ratzen dira edo atera nahi, baina ez dago definituta nork atera behar duen hori,  
nork izan behar duen ardura hori, nork gestionatu behar duen (...) eta ez da eus-  
kararekin bakarrik; agerik handiena da pertsonal urritasuna eta ez dagoela ondo  
definituta eta ondo artikulatuta, eta bitarteko oso gutxi dagoela edozer aurrera  
ateratzeko, edozer" (T<sub>5</sub>)

Horri guztiari gehitu behar zaio, oro har, entitateotan ez dela zeharlerrotasuna lortu. Hau da, euskararen gaia, oraindik orain, euskara zerbitzuaren ardura dela:

*"...euskara plana zerotik abiatu da horrelako tradizioz izan ez duen leku batzuetan eta hasieran protagonista izatea normala da [euskara teknikaria]. Protagonista izan behar da. Hemendik aurrera? Saiatu behar gara dibertsifikatzen: helburuak lortzeko eragile gehiago bilatzen eta helburu horiek pixka bat banatzen. Transbertsalitatea lortzen bai kuadrillan eta bai udaletan. Bakoitza bere eremuan, nahiz eta udalak oso txikiak izan (5 langilekoak, 6 langilekoak...). Helburuak banatu egin behar dira. Beste gauza batzuetarako banatzen dira" (T<sub>2</sub>)*

Arabako Foru Aldundiak funtzio orokor batzuk zehaztu zituzten diru-laguntza deialdiari begira. Oso zehatzak ezin zituzten jarri ohartu zirelako garatu beharreko funtzioak oso bestelakoak zirela leku batetik bestera. Lan horretan kuadrilletako gerente eta lehendakarien garrantzia azpimarratzen da:

*"Argi geneukan funtzioak gerente eta lehendakariekin zehaztuko zirela. Tokitik tokira oso ezberdinak dira. Lehentasun, baliabide, egitekoak... ezin elkartu. Garbi geneukan zertarako ez ziren euskara teknikariak: ez dira kartelak egiteko, itzultzaileak, euskara irakasleak (...) Lan orokorrakoak eta goragokoak egiteko dira: planifikazioa eta hemen dituzuen arazoan aurrean aholkuak eman. Egitekoak ezinezkoa da berdina izatea kuadrillen egoerak oso bestelakoak direlako. Egoeran ez hainbeste, baina dituzten baliabideetan bai. Orduan egitekoak oso desberdinak. Funtzioak denek izan beharko lituzkete berdina, lehentasunen arabera gehiago ala gutxiago egingo dira. Horri konponbidea: kuadrillako gerente eta lehendakaria, diputatua eta gu ikustea zeintzuk diren beharrak normalizazioaren ikuspegitik" (T<sub>1</sub>)*

Hortaz, kuadrilletako teknikarien lana dispertsio handiko lana da bi arrazoi nagusirengatik: batetik, eragiteko eremu asko eta oso bestelakoak dituztelako; eta bestetik, entitate desberdinak dituztelako bere gain. Ardura hori euskara teknikariaren gain erori ohi da, oro har, entitate hauetan zeharlerrotasunik oraindik ez delako lortu. Euskara teknikarien lan karga areagotzen da kuadrilla eta udal txiki hauetan; izan ere, langile kopuru askorik ez dagoenez, teknikari hauek (beste langileak bezala) berezkoak



ez dituzten funtzioak ere egin behar izaten dituzte. Funtzio orokor batzuk zehaztu ziren hasieratik, gehiegi zehaztu gabe ezin zelako guztia zehaztu: kontuan hartu behar da kuadrillak, beren artean, oso bestelakoak direla eta behar diferenteak dituztela egoera desberdinetatik abiatzen direlako. Hortaz, funtzio orokor horiek oinarri hartuta, tokian tokiko eragileen artean zehaztuz doaz kuadrilla bakoitzean euskara teknikariek egin beharreko lana.

Kuadrilletako euskara teknikariek esparru eta entitate askotan eragin behar dute. Hainbat teknikariren iritziz, baliabide gehiago beharko lirateke planteatutako funtzio guztiei aurre egiteko. Horrez gain, espezializazioaren beharra ere aldarrikatzen dute; izan ere, orain arte, egin beharrekoak oso bestelakoak dira (xede-taldeak, egitasmoak, egitasmoen hartzaileak -kopuru eta adinari dagokionez-...) eta modu horretan oso zaila da gutxieneko espezializazio bat lortzea esparru batean edo bestean.

*"Daukagun dedikazioarekin gertatzen dena da ezinezkoa dela funtzio horiei guztiei aurre egitea. Funtzioak zehaztea baino benetako giza baliabideen beharra aztertzea. Gainera, aurre egiteko langile bezala prestakuntzak ere bestelakoak dira. Espezializazio desberdina behar da funtzioak aurrera ateratzeko. Ez da berdina funtzionarioen euskalduntzea, trebakuntza eta merkataritza, gazteak... Gaur egun badirudi pertsona batek denetik jakin behar duela modu oso profesionalean bete ahal dituela eta hor ikusten da hutsune handi bat: heltzen diogu honi, horri... Itzulpenak, interpretaritza lanak... Eta ez da baloratzen itzulpen bat egiteko behar den denbora. Gero egin behar duzu horrekin zerikusirik ez daukan beste zerbaít" (T<sub>4</sub>)*

#### **KONTROLERAKO NEURRIAK BADAUDE**

Kuadrilletako euskara teknikariek egiten duten lanaren berri bi esparrutan ematen dute, nagusiki: kuadrillan bertan eta Arabako Aldundian. Bi kontrol mota horiek jarraituak badira ere (kuadrillako batzordeak eta Aldundian hilero egiten diren koordinazio bilerak), urte amaieran kuadrillan zein Arabako Foru Aldundian teknikariek urtean zehar egindako lanekin memoria txosten bat entregatzen dute.

Teknikariek kuadrillean foro bereziak dituzte bertan euskara zerbitzuari dagozkion informazioaren gaineko xehetasunak emateko. Foro horiek izan ohi dira euskara zerbitzuek planteatutako planen onarpena egin behar dituztenak (kuadrillako batzarrak edota euskara batzordeak).

*"Se aprobó en el pleno y en las comisiones informativas se da cuenta del grado de desarrollo del plan. Es suficiente; están debidamente informados los órganos de gobierno. Ellos tienen que dar el visto bueno a lo que se plantea" (G<sub>1</sub>)*

Udalez udal mugitzen diren euskara teknikarien kasuan, udalek egiten duten kontrola agerikoa da; izan ere, astero dute aukera euskara teknikariarekin hitz egin eta ordura artekoari buruz hitz egiteko.

*"...astero egoten da gerentearekin, animatzailearekin... astero leku guztietatik pasatzen da (...) guztiek beti dakite zertan ari den...". (G<sub>2</sub>)*

Arabako Foru Aldundiari urtero entregatzen zaio euskara teknikariek egindako lana eta lan dinamika azaltzen duen memoria txostena. Txosten hori teknikarien kontrataziorako diru-laguntza deialdiaren justifikaziorako entregatu beharreko dokumentu bat da, beste batzuen artean. Nolanahi ere, Euskararen Foru Zerbitzuak maiztasun handiagoko kontrola darama euskara teknikarien lanen gainean; izan ere, euskara teknikariek (kuadrilletakoek eta udal euskara teknikariek parte hartzen dute) hilero egiten dituzte koordinazio bilerak. Informazio trukea nahiko jarraitua eta zuzena da.

*"Hilabetero koordinazio bilera bat egiten dugu guk, kuadrilletako euskara teknikariok eta diputazioko Euskararen Foru Zerbitzuak, eta horrek esan nahi du diputazioan badakitela zertan ari garen, kuadrillean antolatzen ditugun gauzen berri iristen da diputaziora: bai agendaren bidez, bai ekimen partikularren bidez, e.a. Informazio trukea nahiko jarraitua da" (T<sub>2</sub>)*

### **ZABALKUNDERAKO BIDEAK, DAUDENAK INDARTU ETA BERRIAK SORTU**

Kontrol mekanismo horiez gain, beste bide batzuetatik zabaltzen da kuadrilletako euskara teknikariek egiten dutenaren berri. Egiten denaren zabalkundea, oro har, ondo

baloratuta dago. Zabalkunde hori eskualde batzuetan errazagoa suertatzen da besteetan baino, tokian tokiko baliabide eta sistematizazioagatik. Aiaraldea.com da horren adibiderik argiena Aiarako eskualdean eta Berberana hilabetekaria edo Arabar Errioxa Irratia Arabako Errioxan. Lautadan aipatu den gabeziak bat ildo horretatik joan da; hain zuzen ere, eskualde osorako hedabide baten beharra.

Aurreko paragrafoan aipatutako zabalkunde bide antolatuez gain, beste maila batean, baina eraginkorrek eta oso baliagarriak izaten ari diren beste batzuk abian jarri dira: Euskararen Orriak (Zuia, Mendialdea, Arabako Errioxa), euskara zerbitzuen blogak (Laudio, Zuia, Arabako Errioxa), sistematizatuta dauzkaten zirkularren banaketak (gurasoei zuzendutako informazioa ikastetxeen bitartez banatzea, esate baterako), e-posten eta buletinen zabalkundeak (Laudio, Mendialdea), web orriak (euskaraba.com-en erabilera, orain Hirinet.net, udal eta kuadrilletako web orriak) edota betiko bideak (kartelak herri guztietan).

Zabalkunderako zehazten diren bideak zehazten direla, euskara modu gertuagoko batean bizi dutenek Euskararen Aholku Batzordeetan parte hartzen dutelako edo euskara teknikariarekin, dena delakoagatik, harreman estuagoa dutelako, informazio zuzenagoa dute.

### ARABAKO KOORDINAZIO GUNEA, BEHARREZKOA

Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak hartu du bere gain Lurralde Historikoko euskara zerbitzu publikoen koordinaziorako ardura. Gaur egun, koordinazio horretan parte hartzen dute lurraldeko euskara teknikari guztiek (udal eta kuadrilletakoak); ez horrenbeste Vitoria-Gasteizko Udaleko euskara teknikariek. Azken horien eta Arabako Foru Aldundiaren artean badago lankidetzaren hitzarmen bat eta horrek gidatuta, koordinazio desberdin bat ematen da bi entitateen artean. Nolanahi ere, gaia zein den, hileroko koordinazio bileretan ere parte hartzen dute. Esan beharra dago, Arabako Foru Aldundiaren barne Erabilera Planaz arduratzen diren teknikariek ere noiz edo noiz parte hartzen dutela koordinazio bilera hauetan landu beharreko gaia zein den. Hortaz, esparru eta entitate desberdinetan lanean ari diren teknikarien koordinaziorako gunea da gaur egun, nahiz eta hastapenetan hasi berriak ziren kuadrilletako euskara teknikariek lan gehiago egin zen.

Lehen esan bezala, Arabako euskara zerbitzu publikoen koordinaziorako ardura Euskararen Foru Zerbitzuak hartu du bere gain. Ezinbestean, Arabako euskararen Plan Estrategikoan jasotako helburuak zeintzuk diren ezagututa eta bertan tokian tokiko teknikariek hartzen duten papera zein den ikusita (oso garrantzitsua gero azalduko denez). Euskararen Foru Zerbitzuak zuzentzen duen koordinazio gune horrek bost ildotan banatzen ditu bere zereginak, edo beste era batera esanda, bost helburu lortzen ditu: euskara teknikarien artean esperientziak trukitzea, Arabako Lurralde Historiko osorako irizpideak bateratzea, proiektuak elkarrekin egitea, teknikarien artean koordinatu eta informatzea, eta formazio beharrei modu bateratu batean erantzutea.

Hileroko bilera horiek bi zentzuko bilerak dira: batetik, teknikariek, bakoitzak bere eremuan, abian jartzen ari diren egitasmoen berri ematen dutelako; eta bestetik, Aldundiko egitasmoen berri ematen da, gerora, bakoitzak behar dituen egokitze lanak egin eta berean aplikatzeko.

*"Joan-etorriko lana da bilera horietan egiten dena: kuadrilletan egiten denaren berri ematen dugu diputazioan eta Diputazioa, nik uste, aberasten dela, bueno, plana gure ekintzekin aberasten dela; eta gero Diputazioan dituzten egitasmoen berri ematen digute eta neurri batean edo bestean kuadrilla bakoitzeko euskara zerbitzuak berean aplikatzen du Diputazioko Plan Estrategikoan jasotakoa. Koordinazio bilera horiek gabe ez genuke hainbeste egingo" (T<sub>2</sub>)*

Arabako euskara teknikariek elkarrekin hainbat egitasmo jarri dituzte abian elkarrekin eta lan horretan Euskararen Foru Zerbitzua akuilu eta eragilea izan da.

*"Teknikariok jarri ditugu gauza batzuk abian Araba mailan, dela ideien laborategia, dela merkataritza plana orain Artezekin edo Erabilera Planetarako orain daukagun asmo hori [lantalde bat osatu da teknikarien artean entitateetan V. Plangintzaldirako erabilera planen plan estrategikoak osatzeko]. Hori da bide berean goazenaren lekukotasun garbia. (...) Ematen du gauza puntualak direla, baina ahalegina eskatzen duten kontuak dira, eta denok elkarrekin lan egitearen ondorio direla" (T<sub>2</sub>)*

Lan horretan Euskararen Foru Zerbitzuak izan duen garrantzia eta papera honela azpimarratu du teknikari berak:

*"Euskararen Foru Zerbitzua lan horretan izan da motorea eta akuilu lana egin du. Nik uste dut beraiek gabe zaila izango zela estrategia bateratuak martxan jartzea. (...) bakoitza zentratuko ginen gure kuadrillan eta horrek arriskua ekarriko luke (...) iparraldeko kuadrillak eta hegoaldeko kuadrillak, adibidez, bakoitzak bere bidea egiteko. (...) Elkarrekin hilabetero koordinatuko ez bagina, elkartuko ez bagenu, hor sortu liteke eten handi bat. Euskararen Foru Zerbitzuak lortu duena da hori guztia, hasieran hori horrela planteatu zuelako, hori guztia modu bateratuan eramatea. Eta eskerrak" (T<sub>2</sub>)*

Euskararen Foru Zerbitzuak zuzendutako koordinazio gune hori udal euskara teknikariek sumatzen zuten gabeziari aurre egiten dio.

*"Faltan bota izan dugula horrelako koordinazio gune bat, zabala eta sakona. Nik uste dut eman dezakeela gaur egun ematen duena baino askoz gehiago" (T<sub>8</sub>)*

Euskara teknikariek, oro har, beharrezkoa ikusten dute sortu den koordinazio gune hori. Baina gehiago indartu beharra ere ikusten dute. Inbertsio handiagoak egin beharra ikusten dute; izan ere, hasteko, Euskararen Foru Zerbitzuak bi teknikari besterik ez ditu gaur egun eta hori indartzea ezinbestekoa ikusten da teknikarien koordinazio gune hau gidatu eta haratago joateko Araban euskararen normalizazioan. Hortaz, teknikari desberdinek behar berdina ikusten dute: giza baliabide gehiagoren beharra egungo lan kargari aurre egin ahal izateko; behar hori, bereziki, Euskararen Foru Zerbitzuan ikusten da.

Koordinazio gune honen inguruan P<sub>3</sub>-k bideratzeko bi aspektu ikusten ditu, elkarren artean erlazionatuta daudenak eta bat aipatu berri den ideiaen ildotik; izan ere, zuzendaritzan eta koordinazioan gabezia batzuk ikusten ditu. Euskara teknikariei laguntza teknikoa emango dien zerbitzu bat jarriko luke, egun Euskararen Foru Zerbitzuak egiten dituen lanetan laguntzeko. Kontuan hartu behar da, egun, hiru langile direla Euskararen Foru Zerbitzuan lanean ari direnak (bi teknikari eta administrari bat) eta egin beharrekoak hamaika.

"No ha habido descontrol pero sí un desparrame de cosas. Ha faltado una puesta en común y dirección (...) para que alguien diera unas pautas de así hay que hacer las cosas. Una especie de asistencia técnica de cómo elaborar las cosas (elaborar los planes) que daría apoyo a los técnicos (...) A todo no se puede llegar. Vendría a reforzar lo que sería el Servicio Foral del Euskera con una contratación externa (...) siempre con ese objetivo: reforzar y mejorar y avanzar" (P<sub>3</sub>)

### EUSKARAREN AZPIEGITURA, POLITIKAREN MENPE

Hori da hainbat elkarrizketatuk (teknikari, gerente, politikari eta gizarte eragile) azpimarratu duten ideia. Oraindik ere euskara oso politizatuta dagoela. Horren adibide jarri dute 2013ko Aldundiko aurrekontu proiektuan hainbat partida sartu ez izana: batetik, kuadrillean euskara teknikariak kontratatzekeo partida ez sartzea; eta bestetik, euskararen normalizaziorako proiektuen garapenerako diru-laguntzetarako partiden beherakada nabarmena. Egoera horren aurrean kezka orokortua dago:

"...ikusi dugunean erabaki ahalmena duten politikoak ari direla honekin kromo trukea egiten...ba, kezka dago, kezka dago euskalgintzan orokorrean" (A<sub>1</sub>)

Hainbat eragilek teknikarien etorkizuna zalantzakor ikusten dute, batez ere, kontrolatzen ez den esparru baten menpe daudelako kuadrilletako euskara teknikariak; hain zuzen ere, politikaren menpe.

"...zoritxarrez, gure lanpostuaren beharra nahiz eta guk eta honetan lanean ari garen guztiok eta euskalgintza osoak ikusi, azken hilabeteotan ikusi den bezala, benetan azkenean erabakiak hartzeko ardura daukan jendeak ez dauka hain argi gure lanpostua benetan estrategikoa dela eta aurrera egiteko beharra dagoela, eta guk laguntzen dugula aurrera egiten" (T<sub>2</sub>)

Kuadrilletako euskara teknikariek ikusten dute lau urte inguru pasata, eguneroko lanean orain arte lortu den gutxi gorabeherako egonkortasuna, hori guztiz apurtzen dela urtea bukatzera doanean haien lanpostua elikatzen dituen diru-sarrerara kuestionatzen denean. Kuestionatzen dutenean, kasu honetan, Aldundian dauden alderdi politikokoek. Horrek zailtzen du tokian tokiko, eta ondorioz modu orokorrean Arabarako, Plan Estrategiko baten helburuak garatzen.

*"...Hizkuntza politika bat ezin da egon aldian aldiko gobernuan dauden agintarien baitan. Hori izugarritzko arriskua litzateke hizkuntza politikaren jarraikortasunerako" (P<sub>4</sub>)*

Arabako Foru Aldundiko 2013ko aurrekontu proiektuan kuadrilletako euskara teknikarien kontrataziorako partida ez egoteagatik, bi kuadrillek eten behar izan dute euskara zerbitzuak: Mendialdea eta Añana. Lehena bi hilabetez eta bigarrena bost hilabetez. Euskararen normalizazioan etenaldiak atzera pausu lez ikusten dira.

*"Teknikari batzuk egon dira hilabeteetan beraien lana utzita eta orain berriro hasi dira. Hilabete horietako etenak, seguru, kalteak eragin dituela. Espero dezagun txikiak izatea eta ea urte bukaerarako lortzen duten egon diren galera horiek, nolabait, osatzen eta neutralizatzen" (P<sub>4</sub>)*

Elkarrizketatuen artean nagusitzen den ideia da kuadrilletako euskara teknikarien sareari jarraikortasuna eman behar zaiola. Izan ere, beste eragile garrantzitsu bat dira euskararen normalizazioan.

*"Edozein kasutan nik uste dut ezinbestekoak direla lanpostuen zerrendan ezartzearena eta etorkizun hori bermatzea". (T<sub>9</sub>)*

Etorkizunaren beharra ikusten da bi arrazoiengatik: batetik, euskararen normalizazioan atzera pausorik ez emateko; eta bestetik, horrelako figurak beharrezkoak direlako.

*"Etorkizuna behar du, herrietan horrelako jendea behar dugulako" (E<sub>8</sub>)*

### **HASIERAKO HELBURUAK BETE DIRA**

Kuadrilletako euskara teknikarien sarearen helburu behinenak oso argiak ziren. Batetik, diagnostia egin beharra zegoen euskararen egoeraren analisi errealago bat osatzeko. Lan horretan tokian tokiko eragileen laguntza izatea ere aurreikusten zen. Eta bestetik, tokian tokiko koordinazio gune edo azpiegitura bat osatzea: tokian tokiko gizarte eragileak eta eragile instituzionalak plano beretik (EBPN izango zena) zentzu berean lanean jartzea. Helburu horiek lortu dira, hainbat elkarrizketatuk baieztatu duten moduan.

*"El objetivo en "XXXX" era hacer frente a la coordinación entre todos los agentes promotores del euskera, porque faltaba esa coordinación. Faltaba una persona que trabaja en un estamento público que coordinara todos esos esfuerzos de mucha gente que venía trabajando desde muchos años y estamentos. Sólo ya en ese ámbito se consideraba muy importante esta figura. Se buscaba, además de la coordinación, el fomento del uso en distintos ámbitos. La coordinación se está logrando y se está llevando a cabo adecuadamente. Ahora la cuadrilla es una referencia en este ámbito. Demandas, asistencia, proyectos, coordinación. El trabajo se ve" (G<sub>1</sub>)*

Koordinazioa hortik haratago heldu da; izan ere, euskaldun euskaltzaleen arteko sareak ere, pixkanaka-pixkanaka, osatuz joan dira batean eta bestean. Euskararen arnaguneak ugarituz doaz, beraz.

*"gazte asanbladaren bitartez antolatu dugu lehenengo aldiz koadrilen arteko berba txapelketa bat, eta lehen hori zen pentsaezina. Nik ez nituen ezagutzen beste herrietako gazteak (...) eta berari esker elkartu izan gara eta orain badugu gure saretxo moduko bat (...) Aurrera pauso bat gure artean elkar ezagutzeko. Baduzu jende gehiago identifikatuta, badakizu horiek euskaldunak direla" (E<sub>7</sub>)*

Euskararen normalizazioan eragiten duten eragile guztien arteko koordinazioa hobetzeaz gain, eskualderen batean bestelako helburuak lortu dira: euskara bertakoa dela adieraztea. Hortaz, euskara arrotz sentitzetik, bertakoa dela ikustaraztea lortu da zenbaitetan.

*"Teknikariaren bitartez eta toponimia lanak egiten lortu duguna izan da jendeak ikuste euskara ez dela kanpotik etorri den zer edo zer, euskara hemengoa dela" (G<sub>2</sub>)*

Lortutako beste helburu garrantzitsu bat izan da ikustaraztea eta sinestea euskararen normalizazioa ez dela bakarrik hezkuntzaren ardura. Zentzu horretan, korresponsabilidadea lortu dela aipatu da hainbat elkarrizketetan. Ardura banaketa hori baina hobetu beharra ere ikusten dute.



*"Lehen ematen zuen euskararen asuntza zela ikastolena, euskaltegiarena. Eta orain, aldiz, euskararen normalizazioa ere bada kuadrillako lehendakariaren ardura, irratiko langileen ardura, kirolekoaren ardura, turismokoaren ardura..."*  
(E<sub>1</sub>)

Bestelako helburu eta lorpenak aipatu izan dituzte elkarrizketatuek. Nolanahi ere, hemen aipatu diren helburuak orokor batzuk besterik ez da izan. Lorpen zehatzetarako atal berezi bat osatu da.

### ONDO EGINDAKOAK

Tokian tokiko lorpen zehatzak albo batera utzita, baina garrantzirik kendu nahi izan gabe, ondoren aipatuko diren lorpenak dira modu orokorrago batean elkarrizketatuek aipatu dituztenak:

Sarea bera egotea, bada elkarrizketatu batzuek aipatu duten lorpen aipagarrienetako bat.

*"Sarea egotea bera lorpen handia da. Kanpotik ikusita engranaje hori lortu da: gizartea, instituzioak"* (P<sub>2</sub>)

Euskara zerbitzuak erreferente bihurtu dira eskualdean. Euskararen normalizazioan diharduten eragileen artean, beste bat da orain.

*"El Servicio de Euskera es un punto de referencia en la comarca, para asociaciones, AMPAS, personas a título individual (...) Es un punto de referencia, un punto de coordinación "* (G<sub>1</sub>)

Tokiko ia eragile guztiak foro bakar batean bildu dira. Alegia, eskualdean bertan lantaldeak antolatu dira: gizarte eragile eta eragile instituzionalen arteko lantaldeak. Horrek ekarri du dauden baliabideen erabilera hobea ematea. Koordinazio eta komunikazio hobea gauzatzen da gaur egun eskualdeetako eragileen artean.

*"Lantaldea edo sarea osatu da. (...) lehen euskaldunak ez zeuden antolaturik, elkarteak sortu dira. Ez doaz beren kabuz, koordinazioa eta komunikazioa badago. Euskara teknikariak erabiltzen ditu bere ekintzak ateratzeko eta*

*alderantziz. ... Baliabideen erabilera hobea ematen da: lehen antolatzen ziren gauzak, baina ez zegoen programaziorik, EBP Nari ez zitzaion jarraipenik egiten"*  
(G<sub>2</sub>)

Gizarte eragile eta eragile instituzionalen arteko elkarlan horretan adituak arrisku posible bat ikusten du, horrekin adi egon beharrekoa: ordura arte gizarte eragileek dituzten funtzioak euskara teknikariak bereganatzea edo harengan delegatzea. Arrisku horrek ekarriko luke ordura arteko bizitasun soziala desagitea eta hori ez da helburua, baizik eta elkarlanean aritzea, batak eta besteak dituzten gabeziei aurre egiteko.

*"Arrisku handia dago hor: zein da teknikariaren funtzioa eta zein da herritar antolatuen funtzioa, egotekotan. Eta hor dago subsidiaritate printzipioa: hau da, ez dezala egin teknikariak boluntarioek egin ahal dutena. Nik uste dut hori bere horretan aplikatu beharko genukeela. Lanean hasten direnean bereganatzen dituzte ordura arte herritarrek landu dituzten eremuak, egitasmoak. Herritarrek nekea, errelebo falta, baliabide falta... gustura delegatzen dute pentsatuz horrek berdin-berdin edo hobeto egingo duela ordura arte eurek egiten zutena. Delegazioa ematen du gure aldetik eta teknikaria batzuetan borondate onenarekin... Bien funtzioak, mugak definitu behar dira. Osagarritasuna baina behin arloak definituta. (...) Ondorioa izan daiteke boluntarioen talde horiek funtzio gabe gelditzen direla, desagertzen dira"* (A<sub>1</sub>)

Euskara kalera atera da eta ordura arte oso presentzia eskasa izan duen esparruetan, nabari hartu du pisua: administrazioan. Esparruak irabazi ditu, beraz.

*"Euskara kalera atera dela. Administrazioan eginak aldaketarekin bakarrik bestelako erreferentziak edo animoak piztu dira. Aldatu dira hainbat gauza. Herritarrek ikusi du hori, eskaera aldatu da. Orain eskatzen dute euskaraz. Administrazioan eragina nabaria izan da"*. (G<sub>2</sub>)

Ondorengo ideiaz kontzientziatzea: euskararen ardura guztiona dela.

*"Nik uste dut sareak ekarri duena izan dela lehenengo mundu guztia jabetzea euskararen garrantziaz, baita azken herrixkan ere. Bakoitzak baduela bere erantzukizuna"* (P<sub>4</sub>)

Pausu kuantitatiboak eman dira; izan ere, lehen ez zeuden ekintza gehiago egin dira. Baina pausu kualitatiboan garrantzia azpimarratu da: euskara sustatzetik euskara normalizatzerara pasa da, koordinazioa indartu da eskualdean eta lurralde osoan, praktika onak partekatzeke foroak sortu dira, baita esperientziak eta arazoak partekatzeke foroak ere. Euskararen normalizazioa modu espezifiko eta artikulatuan lan egitera pasa da Arabako eskualde guztietan. Orain epe jakin bateko helburuak zehazten dira normalizazioan eragin dezaketen eragile guztiekin batera. Teknikarien sarea oraindik ere gazteegia da normalkuntza prozesu batean izandako eraginak aipatzeko; lorpen kualitatiboek garrantzia handiagoa dute.

*"Soziolinguistikaz dakienak eta euskara planetaz dakienak, nik uste dut, konturatu beharko lukeela gehiago mugimenduaren bizitasunean neurtu behar dela egindako lanaren arrakasta eta ez datuetan, ze datuak igotzea da urte askotako ibilbide baten ondorioa" (T<sub>2</sub>)*

Lurraldeari kohesio nabaria eman zaio egitasmo honen bitartez. Aurreko atal batean aipatu den bi Araba horiei aurre egiteko estrategia komuna abian da: Arabako Lurralde Historikoko euskara zerbitzu publikoek osatutako sarea eta Euskararen Foru Zerbitzuak dinamizatutako koordinazio gunea.

*"Nik uste dut egin dena, gainera leku askotatik entzuten dut, zerbait egitekoa bazela, aspaldi beharrezkoa zela hori egitea eta nabaritzen dela nolabaiteko kohesioa ematen ari garela lurraldeari eta egitekoari". (T<sub>1</sub>)*

Kuadrilletako euskara teknikariek eskualdeko ikuspegia eman diote eskualde bakoitzean egiten denari, baita baliabideen erabilera hobea bideratzea lortu dute ere.

*"Nik uste dut ikuspegi orokorra eta eskualdeko ikuspegia daukan pertsona bat bakarra dagoela ia-ia (...) Orduan baliabideak optimizatzeko, eta leku batean eta bestean egiten diren ahaleginak uztartzeko ezinbestekoa izan daiteke" (E<sub>5</sub>)*

Kuadrilletako euskara teknikarien eta Euskararen Foru Zerbitzuak gidatutako euskara zerbitzu publikoen koordinazio gunearen sorrerak lehenago existitzen ziren udal euskara zerbitzuak indartu ditu hainbat aspektutan:

*"Aldundiak antolatzen dituen ekimenekiko informazio eta esku-hartze zuzenagoa izateko aukera diru-laguntzen deialdietan, Araba mailan antolatzen diren hainbat ekimen edo kanpainen berri eman edo inkluso aurrera eramán (...)  
Kolektibotasuna, bakarrik ez sentitzea. Ideiak trukatzeko foro bat da" (T<sub>9</sub>)*

Ekarpen horiek baina ez dira oso baliagarriak izan Vitoria-Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuarentzat. Izan ere, dinamika propio bat daramate; ezinbestean, hiriburuan, lurralde osoa kontuan hartuta, biztanleriaren gehiengoa bizi baita. Oro har, kuadrilletako euskara teknikariek Vitoria-Gasteizen abian jartzen diren egitasmoak erreferente dituzte, baina alderantziz gertatzea zaila da. Nolanahi ere, gaia zein den, Vitoria-Gasteizko ordezkariak parte hartzen dute koordinazio bilera hauetan.

### **HOBETU BEHARREKOAK / GABEZIARIK AIPAGARRIENAK**

Lorpen orokor asko aipatu diren arren, batetik eta bestetik hobetzeko hainbat gauza ikusten dira. Maila eta neurri desberdinetan. Jarraian aipatuko dira elkarrizketatuek azaldutako gabeziarik aipagarrienak hona ekartzen. Horiek dira, gaur egun, kuadrilletako euskara teknikarien sareak dituen ahulgune eta mehatxurik aipagarrienak.

Hainbat elkarrizketaturen ustez tokian tokiko eragileenganako gerturatze sendo eta positibo bat lortu den arren, euskararen aldekoengana gertatu da; izan ere, euskararengandik urrun eta euskararen horren inplikaturik ez daudenengana ez da lortu horrenbeste gerturatzea.

*"Horiengana iristeko estrategiak falta zaizkigu. Ez dugu lortu. Normalizazioa gizarte osora nola zabaldu bidea topatzeko falta zaigu oraindik ere" (T<sub>2</sub>)*

Zentzu horretan, oraindik ere euskararen gaia politikarekiko menpekotasun handiz ikusten da eta horrek Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sarearen egonkortasunean zuzeneko eragina izan duela ikusten da hainbat esparrutatik.

*"Oraindik ere zantzu politikoak ikusten dizkiogu euskarari Araban. Orain dela sei hilabete bildu ginen mahai honetan eta teknikariaren inguruko egoera,*

*aurrekontuak, (...) horrelako truke-jokoetan sartuta egon ginen, eta ez da serioa. (...) Hemen ikusi zen argi eta garbi euskara zela trukaketa elementu bat" (E<sub>1</sub>)*

Aipatu berri den ideia horren lerro artean kuadrilletako euskara teknikarien jarraikortasuna dago. Hori da elkarrizketatuek ikusten duten hobetzeko beste aspektu bat: euskara teknikarien figuraren jarraikortasuna.

*"Arabaren kasuan, bereziki, kuadrillen ezaugarri hauengatik baina askoz egonkorragoa beharko lukeela izan. Alegia, ez lukeela egon beharko inondik ere jaurlaritzaren edo aldundiaren diru-laguntzen baitan. Egonkortasun bat behar da (...) teknikariek ere segurtasun gutxieneko bat gabe bere lan emaitzetan, dudarik gabe, horrek islada izango du" (P<sub>4</sub>)*

Egonkortasun behar hori baina kuadrillen gaur egungo finantziario behararekin talka egiten du. Hortaz, bide horiek hobetu beharra ikusten da, zerbitzuari eta euskararen normalizazioa lortzeko politikei bide erreala emateko. Kuadrillek duten kanpo finantziario hori da, egun, mehatxurik aipagarrienetakoa.

*"Zerbitzua mantendu nahi bada, ezin gara ibili horrela urtero. Arabako Foru Aldundiak ez badu finantziariorik bermatzen, guk ezin dugu gure kabuz zerbitzu hori mantendu, ez dugu dirurik %100ean ordaintzeko. Hori da lehenengo pausua" (G<sub>2</sub>)*

Hainbat elkarrizketatuk ikusten dute finantziarioaren jarraikortasunean urtez urte errepikatzen diren zalantzek zuzeneko eragina dutela euskara zerbitzuen helburuak zehazteko orduan.

*"...ezin duzu lan egin urte batean pentsatzen. Euskara indartzeko lana plan estrategiko edo luzeagoak behar dira. Ezin gara ibili orain arte bezala" (G<sub>2</sub>)*

Horri aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiak deszentralizatutako beste hainbat lanpostu moten jarraikortasuna mantentzeko abian dituzten sistemak aztertzea proposatzen da: bai FOFEL bidezkoa, bai hitzarmen bidezkoa. Arabako Foru Aldundian bertan dauden esperientzia horiek aztertzea litzateke lehenengo pausu bat, gerora inplikaturako entitate guztientzat egokia den sistema abian jartzeko.

*"Badaude beste langile batzuk Arabako Foru Aldundiak beren soldatetan parte hartzen duela eta badute finkotasun bat" (G<sub>2</sub>)*

Hobetu beharreko beste puntu bat da teknikarien arteko koordinazioa. Gaur egun, Arabako udal eta kuadrilletako euskara zerbitzuen arteko koordinazio eta komunikazioa hobetu den arren, gauza gehiago egin daitezkeela ikusten dute hainbat elkarrizketatuk. Gauza gehiago egite hori baina mugatuta dago; izan ere, giza baliabide gehiagoren beharra dago, bereziki, Euskararen Foru Zerbitzuan Lurralde Historiko osorako koordinazio gune sendoago eta bestelako ikuspegi bat lortzeko.

*"Egun, Euskararen Foru Zerbitzuak bi teknikari ditu eta uste dut hori ez dela bideragarria. Gasteizko udalerrri batek propio badauzka askozaz teknikari gehiago; ba Arabako ez zait iruditzen... Egia da kuadrilletako euskara teknikarien bitartez gutxieneko batzuk bermatzen direla, baina ikuspegi integrala eta benetako koordinaziorako, sarea eratzeke... Egunerokotasun zurrumbilotik kanpo dagoen egitura bat egon beharko litzateke sare hori elikatzen" (T<sub>8</sub>)*

Giza baliabide gehiagoren beharra hainbat kuadrillean ere ikusten da; izan ere, euskara teknikariek geroz eta funtzio gehiago hartzen doaz, berez, dimentsionamendu handia duen arlo honetan. Dimentsionamendu handi horregatik, kuadrillak langile gutxiko entitate txikiak izanik eta kuadrilla osatzen duten udaletan eragin behar izanik, euskara teknikariek, beste langile batzuek bezala, denetik egin behar izaten dute egitasmoak aurrea ateratzeko. Horrek zuzeneko eragina dauka teknikari hauen espezializazioan, oso zaila baitute esparruetan beharrezkoa litzatekeen denbora inbertitzea. Zentzu horretan beste mehatxu bat gaineratu behar zaio esandakoari: entitate horietan, oro har, euskarak ez duela zeharlerrotasunik lortu. Horren ondorioz, oraindik orain eta neurri handi batean, euskara teknikariak dira euskararekin zerikusia duen guztia kudeatu behar dutenak.

Hobetu beharrekoen artean, elkarrizketa hauetan parte hartu duen adituak gauza garrantzitsu bat aipatu du; hain zuzen ere, ez dela sarea ikusten, baizik eta euskara teknikariak banan-banan. Aditu honek dio banakako harremana dela gizarte eragileek dutena euskara teknikariek. Horri gaineratzen dio interlokutore bakar bat izango luketela sare bezala funtzionatuko balute euskara zerbitzuek.

*"Akaso bi kontu dira: euskara teknikariak eta euskara teknikarien sarea (...)  
Arabian uste dut ez dugula igartzen sarea bezala; ezagutzen zaituztegu banan-  
banan, batzuekin harreman gehiago, besteekin gutxiago... Baina sare gisa ez  
bada aldundiko teknikariek (...). Bestela guk ez dugu ikusten sarea, sarea  
interlokutore gisa, sarea kontrasterako sare gisa,... Guretzako teknikarien sarea  
ez da antzematen dugun gauza bat" (A<sub>1</sub>)*

### **BADAGO ALDEA**

Gabeziak gabezi, elkarrizketatuen artean ideia berdina nagusitzen da; hain zuzen ere, alderik badagoela euskara teknikaria egon baino lehenagoko eta egungo egoeraren artean. Alde horretan gehiago dira azpimarratzen diren alde kualitatiboak kuantitatiboak baino. Egoera bi horien arteko aldearen adibide dira "lorpenak" atalean jasotakoak.

*"Jakina nabaritzen dela. Oso xumeak dira, baina gehiagorako ez du ematen.  
Nabaritzen da, gutxienez, herri guztietan euskararen zerbait badagoela hortik.  
Lehen erreferenteak oso urrunekoak ziren" (T<sub>9</sub>)*

## **14.ARABAKO KUADRILLETAKO EUSKARA TEKNIKARIEN SAREA HOBETZEKO HAINBAT PROPOSAMEN**

**Kuadrillak oinarri hartuta, euskara teknikarien sarearekin jarraitu.** Arabako errealitatea zein den kontuan hartuta (herri txikiak, geografikoki sakabanatuak eta dentsitate gutxikoak), denborak erakutsi du sistema egokia dela behetik gorako informazioa transmititzeko (tokian tokiko errealitatearen diagnostia kuadrillaz gaindiko entitateei) eta goitik beherako irizpideak zabaldu eta egokitzeko (Eusko Jaurlaritzako plangintzaldi bakoitzeko irizpide orokorrak direla, Arabako Foru Aldundiko bestelako irizpideak direla). Sistema hori laguntzen ari da "bi Arabak" (batetik Aiara, Zuia eta Lautada; eta bestetik Añana, Arabako Errioxa, Trebiñu eta Mendialdea) gerturatzen; baita Araba gainontzeko EAEko lurraldeetara ere.

**Adostasuna lortu indar politiko guztien artean eta elkarlana normalizazioan eragiten duten agente guztien artean, sarearen iraunkortasunerako eta hizkuntza politika oso bat lortzeko Araban.** Ezinbestekoa da ahalik eta adostasun zabalena lortzea Arabako Biltzar Nagusietako indar politiko guztien artean kuadrilletako euskara teknikarien sarea berriro ere ezbaian ez egoteko eta, oro har, Arabako hizkuntza politika bateratu, iraunkor eta sendo bat abian jartzeko. Nolanahi ere, indar politiko guztien arteko adostasunaz gain, ezinbestekoa da gizarte eragile eta eragile politikoen arteko benetako elkarlana. Izan ere, batak zein besteak nahikotasunik ez du normalizazioan egoki eta modu oso baten eragiteko. Lehen aipatutako politikarien arteko adostasun hori egongo ez balitz (egungo kasua), hori lortu bitartean dagoen estrukturari eustea gomendatzen da ordura arte lortutakoa bertan behera ez gelditzeko.

**Lege babesaren sarearen iraunkortasuna bermatzeko.** Aurreko puntuan aipatutako adostasun maila hori ideala litzake, baita adostasun horri lege babesaren eman ere; horrekin lortuko litzateke gobernu aldaketa batek ordura arte egindakoa bertan behera ez uztea, hau da, egitasmoaren jarraikortasuna bermatzea. Bizkaiko Alkarmide da EAEn bakarra lege babes hori eman diona euskara teknikarien sareari.

**Kuadrilletako euskara teknikarien kontratazioetan laguntzeko sistema iraunkorra** bilatzea, adostasunean oinarrituta, beti ere. Adostasun hori lortzeko kuadrilletako euskara teknikarien sarean inplikaturako agente guztien iritziak partekatzea gomendatzen da. Bideak oso bestelakoak izan daitezke eta horien adibide asko daude Arabako Foru Aldundian gaur egun, besteak beste, hitzarmen bidezko laguntzak, FOFEL bidezkoak, diru-laguntza deialdiak edota Arabako Foru Aldundiko langileak izatea, baina eskualdeetan lan egiten dutenak. Garrantzitsuena da helburua partekatzea (euskararen normalizazioa Araban) eta zerbitzuaren beharrezkotasuna onartzea helburu hori lortzeko. Aurreko horrek konponduko luke kuadrillek duten gabezia lanpostu mota hauen gastuei aurre egiteko. Hori kontuan hartuta, **Arabako Foru Aldundia sarearen sustatzaile nagusia** izan dadila proposatzen da. Helburua da garrantzitsuena, bidea malgu izan daiteke.

**Beste lurralde batzuetako sareen sistemak Arabara aplikatzea oso zaila da; izan ere, errealitateak oso bestelakoak dira.** Arabako balizko funtzionamendua ezin da



Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa edo Iparraldekoaren berdina izan; egongo dira aspektu batzuk aplikagarriagoak beste batzuk baino, baina bere osotasunean ezin dira aplikatu Araba oso bestelako lurraldea delako. **Kasuan kasu aztertu beharko litzateke zer den aplikagarria eta nola egokitu litekeen.** Lan horretan eragile desberdinen parte hartzea egon dadila proposatzen da.

**Tokian tokiko langileak, bertatik bertara lan egiten dutenak.** Sistema horrekin jarraitzea proposatzen da; izan ere, batetik zein bestetik hori oso ondo baloratuta dago. Udalez udal mugitzeak ere ematen die teknikariei tokian tokiko ezagutza hobea jasotzeko aukera eta bertakoei euskara teknikaria hobeto ezagutzeko aukera. Elkarlan sendoagoa eskaintzen du sistema horrek. Nolanahi ere, kasu batzuetan, arazo bihurtzen da euskara teknikariek dituzten entitate kopuruengatik (8, 10 edota 15 kasu batzuetan). **Oreka non egon litekeen aztertu** beharko litzateke.

**Arabako euskara zerbitzuen koordinazioa zuzendu eta gidatzen duen organoa Arabako Euskararen Foru Zerbitzua izaten jarraitzea proposatzen da. Orain arte bezala, baina beste modu batean dimentsionatuta;** izan ere, lan karga handia da eta ez dago giza baliabide nahikorik horri aurre egiteko. Hortaz, koordinazio gune horrek langile gehiago eta funtzioen dibertsifikazio handiagoa izatea proposatzen da, besteak beste, zuzendaritza bat, diru-laguntzen arduraduna, komunikazio arduraduna, eta kuadrilletako teknikarien koordinatzaile bat.

Aurrekoari jarraiki, **Arabako euskara teknikarien lan-dinamika zertxobait aldatzea proposatzen da:** ohiko lanez gain, **interes-guneka** elkartu daitezten (merkataritza, kirola, administrazioa, e.a) proiektu komunak definitu eta abian jartzeko (dela merkataritza plana, dela kirol esparruko plan estrategiko berezia, direla administrazioan abian jarri beharreko erabilera planak). Lantalde bakoitza (edo gehiago), Arabako Euskararen Foru Zerbitzuko teknikari batek gidatzeko aukera aztertzea proposatzen da. Sistema horrek hainbat onura ekarriko lituzke: batetik dinamika horrek eskainiko lieke euskara teknikariei orain arte lortu ezin izan duten gutxieneko espezializazioa; bestetik proiektu orokorrek tokian tokiko behar eta errealitateak jasoko lituzkete; hirugarrenik kanpoko eragileei interlokutore bakar batekin lan egitea suposatuko lieke, eraginkortasunaren izenean; azkenik formazio

beharrak eta horretara zuzendutako baliabideak (egoera hobetu arte) banatuko lirateke. Sistema horrek unean uneko teknikarien bajek utzitako hutsunea betetzea ahalbidetuko lukeen aztertzea proposatzen da.

Tokian tokiko giza baliabide kopurua, lan karga eta eraginpeko entitate kopurua aztertzea proposatzen da eta ratio bat oinarri hartuta, ahal dela, **giza baliabide kopurua handitzeko aukera azertu** (ratio hori zeren arabera egin zehaztu beharko litzateke: biztanle kopurua, herri kopurua, gainontzeko teknikari kopurua -animatzaile soziokulturalak, adibidez-).

**Araba osorako funtzio orokor batzuk zehaztea proposatzen da, beti ere, tokian tokiko xehetasunetarako tartea utziz.** Kontuan hartu behar da kuadrillen egoera oso bestelakoa dela eta oso zaila dela funtzio estandar batzuk eskualde guztian aplikatzea. Lehen aipatutako funtzio zehatz horiek Arabako Euskararen Foru Zerbitzuaren eta kuadrilletako ordezkarien artean definitzea proposatzen da.

**Etengabeko lankidetzaz kuadrillaz gaindiko entitateekin;** Arabako Foru Aldundiaz gain, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin. Kontuan hartu behar da, teknikari hauek oinarrian jarraitzen duten marko orokorra (EBPN eta Erabilera Planak) zein legea EAE mailakoa dela eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gidatzen duela. Sailburuordetza hori da, hainbat zereginetan, aholkularitza teknikoa eskaintzen diena euskara teknikariei.

**Teknikarien eragin esparrua zein den azertu eta definitu: kuadrillak edo(ta) udalak.** Horren arabera modu batez ala bestez lan egingo du teknikariak, eta horren arabera baliabide gehiago beharko dira eskualde batean edo besteak (batez ere, giza baliabideak).

**Euskararen eremuan dauden beste euskara teknikarien sareekin koordinazio eta lankidetzaz bultzatzeko bideak azertu eta definitzea** proposatzen da: esperientziak trukatzeko, zailtasunei aurre egiteko edota lurraldeen egoera soziolinguistikoak gehiago gerturatzeko lagunduko duen lan-dinamika bat abian jartzeko. Euskararen eremuko euskara teknikariak biltzeko aukera ematen duen gune "sistematizatu"

bakarra, gaur egun, Udaltop da: udaletako euskara zerbitzuen topaketak, urtero Lasarte-Orian egiten direnak (2013ko edizioa V.a izan da).

**Hobekuntza bide horietan guztietan proposatzen da inplikaturako eragile guztien iritzia jasotzea edo ahalik eta gehien iritziak:** kargu politiko, euskara teknikariak (Euskararen Foru Zerbitzukoak, kuadrilletakoak, udaletakoak), kuadrilletako ordezkariak (presidente edota gerenteak), gizarte eragileak eta soziolinguistikan adituak. Horrek emango dio unean uneko auziari ikuspegi anitza diagnosian eta konponbidean.

## 15.EGILEAREN GOGOETA

V. Inkesta Soziolinguistikoko datuei erreparatuz gero, baieztatu daiteke Araba dela Euskal Autonomia Erkidegoko lurralderik erdaldunena. Hortaz, behar gehien dituenak euskararen normalizazioaren aldeko urratsak emateko. Zentzu horretan, Arabako Euskararen Foru Zerbitzuko Plan Estrategikoak (2010-2013) jasotako ekintza batek 2009an errotik aldatu zuen Arabako euskararen normalizazioaren alde lan egiteko markoa; izan ere, horren bitartez Arabako kuadrilletan euskara teknikari bana jartzea ahalbidetu zuen Arabako Foru Aldundiak (gerora, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak babestutako egitasmoa).

Proiektu gaztea da kuadrilletako euskara teknikarien sarearena, oraindik ere lau urte bete ez baititu. Hizkuntza baten normalkuntza prozesuan lau urteko epea oso laburra da, adibidez, hizkuntza gutxituaren erabileran izandako eragina neurtzeko. Hala eta guztiz ere, eta txosten honetan jasotako guztia oinarri hartuta, baieztatu daiteke Arabako kuadrilletako euskara teknikarien sareak funtzionatu duela; izan ere, oro har, aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatiboak eman dira Araban euskararen normalizazioan. Txosten honek ageriago uzten ditu aurrerapauso kualitatiboak kuantitatiboak baino (lehen aipaturako arrazoiagatik). Arabako euskararen aurrerakuntza kualitatibo horiek guztiak kontuan hartuta, txosten honen egileak honakoak azpimarratu nahi ditu:

- Dagoeneko, Arabako eskualde guztiek dute gutxienez euskara zerbitzu bana, Trebiñuko Konderrria barne. Hori lortu da Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuaren egitasmoari esker: kuadrillean euskara teknikari bana jartzeko laguntza ematea. Horri esker Arabako iparraldeko kuadrillen eta hegoaldekoen artean dagoen tartea murriztea ekarriko du.
- Euskara zerbitzu horien artean, Arabako udaletako euskara teknikariekin batera, lantalde edo sare gero eta indartsuago bat eratzen ari da. Lantalde hori esperientziak partekatzeko foroa da, proiektu komun eta zehatzak martxan jartzeko abiapuntua, prestakuntza gabeziei aurre egiteko gunea eta Arabarako planteatutako hizkuntza estrategia orokorrak tokian tokira egokitzeko puntua. Lantalde honek Arabako Euskararen Foru Zerbitzua du gidari eta aholkulari. Zerbitzu horri esker lortu da Arabako euskara zerbitzuen arteko lan-dinamika horren bizia izatea.
- Azpimarratzekoa den beste aurrerapauso kualitatibo bat da, eskualdeetan osatutako lantalde edo batzordeei esker, euskararen normalizazioa modu koordinatu eta artikulatu batean garatzen ari dela; modu planifikatu batean euskararen normalizazioan inplikaturako eragile guztiak plano beretik (tokian tokiko EBPNak) zentzu berean lan eginez.

Arabako euskararen normalizazioan aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatiboak eman diren arren, euskararen normalizazioa eraginkorragoa lortuko bada Araban, ezinbestekoa da euskara teknikariz osatutako egitura sendo eta iraunkor bat osatzea, baita beharrezkoak diren baliabideez (giza baliabideak, materialak eta ekonomikoak) hornitzea ere.

Sistema sendo eta iraunkor hori lortzeko, hain zuzen ere, gobernu aldaketa batek desorekatu edota desegingo ez duen egitura osatzeko, txosten honetan hainbat hobekuntza bide proposatu dira: egonkortasunean eta beste hainbat esparruetan hobetzeko. Bide horiek izan litezke, beste batzuen artean eta beti ere justifikatuta, Arabako euskara teknikarien sarea hobetzeko ildoak.

Dena dela, hobekuntza horietan zein bestelako planteamenduetan, ezinbestekoa da euskararen normalizazioan eragiten duten guztien arteko elkarlana. Horrek suposatzen du: batetik, euskara ez erabiltzea aldeko edo kontrako baliabide politiko gisa; eta bestetik, gizarte eragile eta eragile instituzionalen arteko akordioa.

Helburua argi izanez gero, bidea eraikiz joango gara guztion artean. Txosten hau izan dadila bidea guztion artean eraikitzeko hasiera: abiapuntu beretik eta zentzu berean abiatzeko puntua.

## 16.BIBLIOGRAFIA

Araba. (2009). 813/2009 Erabakia Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuko Plan Estrategikoa (2010-2013) onartzen duena.

ARABAKO FORU ALDUNDIA (2009). Plan Estrategikoa 2010-2013. Euskaraba.com. <http://www.euskaraba.com/fitxategiak/dokumentuak/albisteak/efzren-2010-2013-plan-estrategikoa.pdf> (abenduan bistaratua).

ARAKAMA, J.M (2012). Euskararen erabilera planak herri administrazioetan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ARRUTI, I. (2012). Hizkuntza plangintza udalerrri mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

BALDA, A. (2010). Zertan da udaletako euskara teknikarien koordinazioa? Arabako Euskara Foru Zerbitzua. Landalan.com. <http://www.lantalán.com/bestelakoak/zertan-da-udaletako-euskara-teknikarien-koordinazioa-arabako-euskara-foru-zerbitzua> (apirileran bistaratua).

BALDA, A. (2010). Zertan da udaletako euskara teknikarien koordinazioa? Bizkaiko Alkarbide Bilgunea. Landalan.com. <http://www.lantalán.com/bestelakoak/zertan-da-udaletako-euskara-teknikarien-koordinazioa-bizkaiko-alkarbide-bilgunea> (apirilean bistaratua).

BALDA, A. (2010). Zertan da udaletako euskara teknikarien koordinazioa? Nafarroako Euskarabidea eta NUETS. Lantalan.com. <http://www.lantalan.com/bestelakoak/zertan-da-udaletako-euskara-teknikarien-koordinazioa-nafarroako-euskarabidea-eta-nuets> (apirilean bistaratua).

Euskal Autonomia Erkidegoa. (1997). 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

EUSKO JAURLARITZA (2011). V. *Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (2011). V. *Inkesta Soziolinguistikoa: Arabako datuen desglosea*. Argitaratu gabea.

EUSKONEWS (2008). Jokin Larrañaga Arabako Diputazioko Euskararen Foru Zerbitzuko arduradunari elkarrizketa. 460. zenbakia. Euskonews.com. [http://www.euskonews.com/0460zkb/elkar\\_eu.html](http://www.euskonews.com/0460zkb/elkar_eu.html) (apirilean bistaratua).

LABAKA, S. (2009). Arabak badu Euskararen Plan Estrategikoa, *Argia* aldizkarian argitaratutako elkarrizketa, 2009ko abenduaren 27a. 2212: 46-47.

MENDIZABAL, P. (2012). Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

UETS (1994). Udaletako Euskara Teknikarien Sarea (UETS), *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 12: 53-57.

## WEBGRAFIA

Bizkaiko Foru Aldundia. Koordinazio mahaiak lurraldez lurralde: <http://www.bizkaia.net/Kultura/Euskara/Alkarbide/Dokumentuak/dokumentuak/erreportajea.pdf>; apirilean bistaratua.

Bizkaiko Foru Aldundia: <http://www.bizkaia.net>

Euskaraba, Arabako euskararen ataria: <http://www.euskaraba.com>

Euskarabidea: <http://www.euskarabidea.es>

Euskararen Erakunde Publikoa: <http://www.mintzaira.fr>

Eustat: <http://www.eustat.es>

Gipuzkoako Foru Aldundia: <http://www.gipuzkoeuskara.net>